Zu hemen zaude.
goiena

2023-07-14 EGUBAKOITZA / 1.001. ZENBAKIA / 23. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM




# BAINURIK BAKO UDA

Denboraldia hasi eta berehala debekatu zuten Usakon bainua hartzea. Uraren kalitatea neurtzeko hartutako laginak ondorioztatu du ez dagoela bainua hartzeko nahikoa bermerik. / 28

Bi bisitari, martitzenean, Oñatiko Usakoko ur putzura begira; atzean, bainua hartzea debekatzen duen kartela.

XABIER URZELAI



## Umorearekin eta ohiko dantzekin hasi dituzte jaiak Antzuolan; bihar, Mairuaren Alardea / 25

## Kadete eta gazte mailetako txirrindulariak zapatuan Bergaran eta Oñatin / 32

## Arrasate, bluesaren topagune: hemengo eta nazioarteko proposamenak, kalean aukeran / 34

## Euskaldunon hizkuntza eskubideei eraso egitea salatu dute alkateek

Espainiako Konstituzionalak udalei euskara hutsean aritzeko araua ezeztatu ostean etorri dira erreakzioak / 2



EAEko alkateek Bilbon atzo, eguena, egindako bilkura. KONTSEILUA

### SINADURAK


JOANES PLAZAOLA / 20

IGOR ARIZMENDIARRIETA / 6

UXUE MONTERO / 29

JOHANNA SANCHEZ / 9

ANDER ETXEBERRIA / 40

+




Berdintasuna agertokietatik urrun dago

Mariasun Zubia erizainari elkarrizketa









Ebazpenaren kontra elkarretaratzea egin zuten astelehenean Arrasaten. AITOR AGIRIANO

# Epaitegiek esku hartuta ere, euskaraz lanean jarraituko dute udalek

Espainiako Konstituzionalak udalei euskara hutsean aritzeko modua ematen zien araua ezeztatu ostean etorri dira erreakzioak eta erantzunak. UEMAko udalek jakinarazi dute orain arte moduan jarraituko dutela, euskaraz funtzionatzen

**Miren Arregi Amasorrain** ARRASATE
Hautsak harrotu ditu UEMAko kide diren udaletan eta euskalgintzan, oro har, joan den asteko eguenean Espainiako Auzitegi Konstituzionalak emandako sententziak. Konstituzionalak 2016ko Udalen Legearen aurka ebatzi zuen, eta udalei euskara hutsez aritzeko aukera zabaltzen dien araua ezeztatu. Izan ere, Udal Legearen 6.2 artikuluak euskaraz jarduteko modua ematen zien udalei, barne funtzionamendurako agiriak-eta euskara hutsean egitekoa: toki erakundeetako organoen deialdiak, gai-zerrendak, mozioak, erabaki proposamenak, aktak eta abar euskaraz idatzi ahal izatea ahalbidetzen zuen, betiere, toki-erakundearen barruan, euskaraz ez dakiela alegatzen duen kideren baten eskubideak urratzen ez baziren.

Konstituzionalaren epaiaren berri izan eta berehala, agerraldi jendetsua egin zuten Usurbilen Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) hautetsiek. Agerraldian, Elgetako Iraitz Lazkanok, UEMAko jarduneko presidenteak, azaldu zuen, besteak beste, sententzia "kolpe handia" dela, Konstituzionalak interpretazio "erabat traketsa" egin duela eta hizkuntza eskubideei buruzko argudio erabat onartezinak erabili dituela.

### Orain arte bezala

Lazkanok, halere, UEMAko udaletan euskaraz funtzionatzen jarraitzeko asmoa dutela adierazi zuen agerraldian: "Lege babesarekin edo gabe, guk horrelaxe jarraituko dugu, euskaraz funtzionatzen; horretarako bide luzea egin dugulako eta gure konpromisoa eta nahia delako". Eta halaxe berretsi du Oñatiko alkate Izaro Elorzak ere. "Gure egunerokoan orain arteko moduan jarduteko asmoa dugu. Lege horren aurretik ere horrela ibili ginen; egia da arau horrek berme bat ematen zigula, baina guk berdin jarraituko dugu. Aurreko arauak guztion hizkuntza eskubideak bermatzen zituen, euskaraz ez zekien norbait bazegoen gaztelerazko itzulpena egiten zelako guztien eskubideak errespetatuz", azaldu du. Bergarako Udaleko Euskara teknikari Estepan Plazaolak ere euskaraz funtzionatzea normaltzat hartu dela azaldu du, eta "behar izan denean ez zekienari itzuli" egin zaiola. Gaineratu du Bergarako Udalaren barruko funtzionamendua nagusiki euskaraz dela joan deneko 25-30 urteotan, eta hori ez dela kapritxo bat. "Aditu guztiak bat datoz hizkuntza batek, biziko bada, bera nagusi den guneak behar dituela, arnasguneak behar dituela".

### Kontseilua: "Olatu erreakzionarioa"

Ebazpena publiko egin eta berehala, hainbat eragile atera ziren UEMAko hautetsiei babesa erakustera. Euskalgintzaren Kontseiluak, esaterako, sententzia euskararen biziberritzearen aurkako oldarraldiaren azken kolpetzat jo zuen. "Kezka hori ez da berria, azken boladan euskararen normalizazio eta biziberritzea helburu duten neurrien kontrako epaiak bata bestaren atzetik heltzen ari baitira Euskal Autonomia Erkidegoan –joera hori lehenagokoa da Nafarroan–".

Atzo, eguena, Kontseiluak deituta, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako alkateak, udal hautetsiak eta euskalgintzako ordezkariak elkartu ziren agerraldi bateratua egiteko EAEko Auzitegi Nagusiaren Bilboko egoitzaren aurrean. Debagoieneko ordezkaritza ere ez zen falta izan; han izan ziren Izaro Elorza eta Gorka Artola, Oñatiko eta Bergarako alkateak, eta baita zinegotziak ere, hala nola Bergarako Jesus Mari Telleria (EH Bildu), Mikel Lete eta Maite Agirre (EAJ), eta Aramaioko Alberto Amenabar (EAJ). "Epai hau oldarraldi judizial zabalago baten parte da, hizkuntza gutxituak jomugan dituen olatu erreakzionario batean kokatzen da" adierazi zuen Kontseiluak.

### Erantzunak herrietan

Konstituzionalaren ebazpenaren kontrako aldarrikapenak herrietan ere izan du isla, eta, horren adibide, astelehenean, Euskaldunon Hizkuntza Eskubideen Aldeko Arrasateko Protokoloak deituta Herriko Plazan egin zuten elkarretaratzea. Olaia Murua AEK-ko kideak "Espainiatik euskararen aurkako oldarraldi gogorra" datorrela salatu zuen, eta horren aurrean "elkartzen, indarrak batzen eta mobilizatzen" jarraituko dutela gaineratu zuen. Epai horrek ekar ditzakeen ondorioengatik eta Udalen Legearen inguruan egiten duen "irakurketa maltzurragatik", sententzia oso larritzat jo zuen AEDko Itxaro Artolak ere: "Duela 12 bat urte, Mariano Rajoy Espainiako Gobernuko presidente zela, Espainiako Gobernuko delegatuak hainbat helegite jarri zituen udalerri euskaldunetan euskara hutsez jasotako akten kontra, eta orain ari gara horren ondorioak ezagutzen, eta horrek ekarri du euskaldunon hizkuntza eskubideen kontrako oldarraldia".

### Politika alorrean erreakzioak

Politikan ere eragin ditu erreakzioak. EAJ-PNVren EBBko presidente Andoni Ortuzarrek hau esan du: "Gure hizkuntzaren eta gure udalen antolatzeko gaitasunaren kontrako erasoaldi bortitza da erabakia". EH Bilduko Arnaldo Otegik, berriz, hauxe adierazi du: "Nola erabaki dezakete Madrilen hamabi pertsonak zein hizkuntza erabili behar dugun guk gure udalerrietan?". Elkarrekin Podemosek aldarrikatu zuen "dokumentu publikoek pertsona guztien hizkuntza eskubideak errespetatu" behar dituztela, eta, ondorioz, bi hizkuntzatan behar dutela; eta, azkenik, PSE-EEtik, Alberto Alonso oñatiarrak eman zituen azalpenak. Gogora ekarri behar da 2016ko Udal Legearen kontra egin zutela sozialistek. Alonsoren ustez, ebazpenak euren postura berretsi besterik ez du egin.

Azaroaren 4rako "euskararen normalizazioaren aurkako oldarraldia salatzeko" manifestazioa deitua du Euskalgintzaren Kontseiluak. Bilbon elkartzeko dei egin dute.

**"LEGE HONEK BERME BAT EMATEN ZIGUN, BAINA GUK BERDIN JARRAITUKO DUGU"**
IZARO ELORZA, OÑATIKO ALKATEA

**"OSO LARRIA DA, ASPALDIKO ESTRATEGIA BATEN ONDORIOA"**
ITXARO ARTOLA, AED-KO KIDEA

**"UEMAKO UDALETAN ERRESPETATZEN DIRA GEHIEN HIZKUNTZA ESKUBIDEAK"**
IRAITZ LAZKANO, UEMAKO PRESIDENTEA

**"ZALANTZA ETA BELDURRA SORTZEN DITU AZKEN EPAI HONEK"**
ESTEPAN PLAZAOLA, EUSKARA TEKNIKARIA



Eskola ibiltaria Debagoienean egingo dela iragartzeko agerraldia, Aramaioko Azkoaga auzoan. IKASLE ABERTZALEAK

# Ikasle Abertzaleen eskola ibiltaria, bailaran barrena

Uztailaren 20tik 22ra, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Aramaio zeharkatuko ditu eskola ibiltariak; egitarau zabala antolatu dute, honako helburu honekin: "Udako aisialdian ere formakuntza eta hausnarketa politikorako espazioak sortzeko dira eskola hauek"

**Jokin Bereziartua** DEBAGOIENA

Ikasle Abertzaleen Euskal Herri mailako eskola ibiltariak Debagoiena zeharkatuko du aurten, uztailaren 20tik 22ra. Eskoriatzan, Aretxabaletan eta Aramaion antolatu dituzte ekintzak; eskola ibiltariaren helburua zein den honela azaldu dute: "Uda sasoiko aisialdian ere formakuntza eta hausnarketa politikorako eta militantzia politikoaren kulturan sakontzeko espazioak sortzea du helburu eskola ibiltariak".

Debagoienean taberna hauetan eskuratu ahalko dira bonuak, 20 eurotan: Osorik (Arrasate), Usoa (Bergara), Aker (Oñati), Ezkutu (Aretxabaleta) eta Añai (Aramaio). Bonu horrekin egun guztietarako otorduak eta lo egiteko tokiak ordainduko dira.

## Ikasiz gozatzeko egitaraua

Uztailaren 20an Eskoriatzan abiatuko dute ekimena. Euskal Herri osotik etorritako militanteei 17:30ean egingo diete harrera, eta, ondoren, 18:30ean, tailerrak izango dituzte: komunikazioa, agitazioa eta propaganda, grafitia, autodefentsa eta soinua izango dira, besteak beste, landuko dituzten arloak. 21:00etan hasiko da afaria eta ondoren, 22:30ean, Ekidaren *Miseriaren adarrak* bertso ekimena izango dute; Xenpelarren bertsoetatik hartu zuten izenburua, 1867an, trenbidea eraiki osteko pobreziari jarritako bertsoetatik.

Egubakoitzean, uztailak 21, Aretxabaletara joango da eskola ibiltaria. Egun osoko plana izango dute: gosaria (08:30); ibilaldia (09:00); bazkaria (14:00); *Prozesu sozialista eta ikasle langileon zeregina* izenburu duen hitzaldia (16:30); Edu Zardoyaren kontzertu akustikoa (19:00); afaria (21:00); eta gaubela, *Begirada bat aurreko ziklo politikoari* izenburupean (22:30). Eskola ibiltariaren azken geltokia Aramaion izango da, hilaren 22an. Honako hau izango da egitaraua: gosaria (09:00); *Ikasle antolakuntza eta etorkizuneko erronkak* izeneko hitzaldia (10:00); ibilaldia (12:00); bazkaria (14:00); esku-pilota ikuskizuna (18:00); Baskbilitx taldearen kontzertua (21:00); ekitaldi politikoa (22:30); eta, amaitzeko, Youth United, Kontralde eta DJ Mondongo.






Herritarrak Arrasateko Correosen bulegoan atzo eguerdian. I.A.A.

# Marka hautsi du posta bidezko botoen eskaerak

Atzo amaitu zen posta bidezko botoa eskatzeko epea, eta, INEk emandako datuen arabera, uztailaren 11n botoa eman dezaketen 585.879tik 49.587 gipuzkoarrek posta bidezko boto eskaera egina zuten dagoeneko; M28an baino %319 gehiago

**Idoia Aranbarri Arzuaga** DEBAGOIENA

Uztailaren 23an egingo dira Espainiako Gorteetarako hauteskundeak, eta 49.528 debagoiendar daude deituta botoa ematera, Espainiako Estatistika Erakundeak (INE) emandako datuen arabera; maiatzeko hauteskundeetan baino 67 lagun gutxiago: Arrasaten 16.932, Bergaran 11.286, Oñatin 8.777, Aretxabaletan 5.531, Eskoriatzan 3.230, Antzuolan 1.601, Aramaion 1.150, Elgetan 856 eta Leintz Gatzagan 165.

M28ko hauteskundeetako leku berak bihurtuko dira hautesleku, eta bakoitzak dagokion gunean eman beharko du botoa. 21 hautesleku jarriko dituzte, eta 79 mahai: Arrasaten sei hautesleku eta 29 mahaitan banatua, Bergaran bost eta hamazazpi mahai, Oñatin lau eta hamabost mahai, Aretxabaletan bat zortzi mahairekin, Eskoriatzan ere bat lau mahairekin, Aramaion eta Antzuolan hautesleku bana bina mahairekin eta Elgetan eta Leintz Gatzagan hautesleku bana mahai banarekin.

**Markak hausten**

Hauteskundeak izango diren eguna tarteko, hauteskunde mahaietan egotea tokatu zaienen helegite kopuruak gorakada izan du, eta gauza bera gertatu da posta bidezko botoa eskatu dutenen kopuruarekin, maiatzarekin alderatuta. INEk emandako datuen arabera, 585.879 gipuzkoarrek eman dezakete botoa, eta, posta bidezko botoa eskatzeko epea atzo amaitu bazen ere, uztailaren 11rako 49.582 gipuzkoarrek zuten posta bidezko botoa eskatuta; %319 gehiago udal eta foru hauteskundeekin alderatuta. Gorakada handiagoa izan da Hego Euskal Herriko gainerako probintzietan, eta, hilaren 11ko datuen arabera, Nafarroan %346 egin du gora, Araban %382 eta Bizkaian %401.

**Jarraibideak**

Behin posta bidezko boto eskaera egiteko epea itxita, uztailaren 16ra bitartean posta ziurtatu bidez zehaztutako helbidean jasoko dute eskatzaileek dokumentazioa, Correosen bidez. Postariak bi entrega saiakera egingo ditu, eta, erantzunik ezean, gertuen dagoen Correosen bulegoan hartu beharko da.

Dokumentazioa jasota, uztailaren 20ra arte entregatu daiteke botoa Correosen edozein bulegotan; egun hori barne. Postariak entregatutako dokumentazioan daude zehaztuta jarraibideak. Botoak dagokion gutun-azalean sartu behar dira eta bulegoan aurkeztu behar ditu eskatzaileak, errolda-ziurtagiriarekin batera. Bulegora joan ezin duenak baimena eman diezaioke beste bati; baimen sinatua aurkeztu beharko da titularraren izenean, titularraren eta pertsona baimenduaren identifikazio-agirien fotokopiekin.

**Bihar, bulegoak zabalik**

Eskaeren zaparradaren aurrean, neurriak hartu ditu Correosek, pertsonala indartzea, esaterako –EAEn 1.234 errefortzu kontratu egin dituzte, horietatik 359 Gipuzkoan–. Bestalde, gomendatu die hauteskunde-informazioa eta botoak etxean dituztenei ahalik eta azkarren uzteko euren botoak Correosen edozein bulegotan. Dei hori egin du izapideak arindu eta "nahi gabeko itxaronaldiak" saihesteko, egun hauetako pilaketak direla eta. Era berean, jakinarazi du egoera ikusita, eta izapideak errazteko, ordutegiak malgutu egun dituela aste hauetan eta bihar, zapatua, Arrasateko, Aretxabaletako, Bergarako eta Oñatiko bulegoak zabalik egongo direla 09:00etatik 14:00etara.

**CORREOSEK IBARREAN DITUEN BOST BULEGOETATIK LAU, ZABALIK BIHAR GOIZEAN**

## Hauteskunde-kanpainako ekitaldiak Debagoienean

Hilaren 21an amaituko da kanpaina eta datorren astean ekitaldiak egingo dituzte alderdiek Arrasaten eta Oñatin

**I.A.A.** DEBAGOEINA

Uztailaren 21ean amaituko da hauteskunde-kanpaina eta dagoeneko zenbait ekitaldi egin dituzte eta beste zenbait iragarri dituzte Debagoienean alderdi politikoek datozen egunetarako.

**Hirugarren hautagaitzaren bila**

Uztailaren 7an hasi zen kanpaina, eta egun hartan bertan EH Bilduk ekitaldia egin zuen Bergaran. Maialen Urzelai oñatiarra da alderdiaren Gipuzkoako hautagaia Kongresurako. Alboan izan zituen zenbait alderdikide; tartean, Bergarako alkate Gorka Artola eta Maddalen Iriarte, EH Bilduren Gipuzkoako bozeramailea. Gipuzkoako hirugarren hautagaitza eskuratu nahi dute Kongresuan; kasu horretan, Urzelai bera.

**EAJ, Arrasaten eta Oñatin**

Gipuzkoako EAJk ez du ekitaldirik egin egun hauetan Debagoienean, baina alderdi jeltzaleak GOIENAri jakinarazi dio martitzenean, hilak 18, 11:00etan Arrasateko Biteri Plazan egingo dutela ekitaldia. Aitor Esteban eta Maribel Vaquero Kongresurako alderdiaren Bizkaiko eta Gipuzkoako zerrendaburuek hartuko dute parte. Ondoren, Oñatin izango dira.

**Arrosa banaketa 21ean**

Hilaren 7an, Kongresurako PSE-EEren Gipuzkoako zerrendaburua den Rafaela Romero izan zen alderdikideekin batera Arrasaten, eta hilaren 21 goizean Arrasateko Arizmendiarrieta plazan egingo duten ohiko arrosa banaketan hartuko du parte zerrendako bigarren Maria Luisa Garciak alderdiko kideekin batera.

**Astelehenean Arrasaten**

Debagoiena Batuz taldeak Sumarren kartelak itsatsi zituen Arrasaten 7an. Astelehenean, 18:00etan, Seber Altuben izango dira, besteak beste, Kongresurako Gipuzkoako zerrendaburu Pilar Garrido eta hirugarrena den Juan Luis Merino eskoriatzarra.




Urzelai eta Artola Bergaran. GOIENA



Rafaela Romero Arrasaten. GOIENA



Debagoiena Batuz; beltzez, Merino. D.B.

# "Esku onetan geratzen da errepideen ardura"

**AINTZANE OIARBIDE** BIDE AZPIEGITURETAKO DIPUTATU OHIA

Bide Azpiegituretako diputatu ohia pozik doa egindako lanarekin; bi agintaldiren ostean, Arrasateko alkate ohi Maria Ubarretxenak hartuko dio lekukoa

**Mikel Zumalde** DEBAGOIENA

Hasi berri den legegintzaldian ez da Gipuzkoako Bide Azpiegituretako diputatua izango Aintzane Oiarbide Iruretagoiena (Orereta, 1964). Kargu hori izan du 2015etik 2023ra, eta orain, Maria Ubarretxenak hartuko du haren lekukoa. Egindakoaz eta egiteke dagoenaz hitz egin du; lurraldeko bide azpiegiturak esku onean uzten dituela dio.

**Zortzi urte eman dituzu Foru Aldundian, Bide Azpiegituretako diputatu. Nola aurkitu zenuen eta nola utzi duzu?**

Sartu nintzenean Bilduren kudeaketaren ondorioekin egin nuen topo; Larrialdizko obrak egiteke, errepideen finantzaketa konpondu gabe, eta lurralde orekarako errepideak egin gabe. Adibidez, Antzuola eta Bergara arteko Deskargako autobidearen obrak utzita eta apurtuta zeuden, eta AP-1eko Eskoriatza parean mendia erori zen eta ez zegoen ongi bideratuta obra. Guk bukatu genuen.



Aintzane Oiarbide, Kanpanzarren, aurtengo neguan. GOIENA

**Debagoiendar baten eskutik hartu zenuen kargua eta debagoiendar bati pasa diozu.**

Ez nuen kargua Larraitz Ugarteren eskutik jaso, ez baitzen azaldu ere egin Aldundian ni sartu nintzenean. Orain berriz Maria Ubarretxenari testigua normaltasun osoz pasa diot. Berarekin egon naiz departamentuaren berri ematen eta oso esku onetan utzi dut. Kudeaketan eskarmentua eta horrelako ardura bat eramateko adorea du.

**Agintaldi honetan hasitakoen artetik ze geratzen da bereziki egiteko?**

Arlabango lurzorua konpontzea, obra lizitatuta dago eta laster hasiko dira. Horrez gain, Bergaratik Gorlako errepidearen konponketa (adjudikazioa eginda dago eta obra hastear dago), aurki hasiko den Elgeta eta Kanpanzar arteko bide zabalketa, edota Arrasate eta Elorrio arteko autobidearen proiektua jaso eta erabakiak hartzea. Behar asko daude.

**Egindakoetatik, zerekin zaude gusturen?**

Deskargarekin, Mutrikuko errepide eta oinezkoen paseoarekin eta martxan jarri ditugun mantenurako lanen programekin.

**Une zailak ere izan dira; bereziki, garraiolariekin izan dituzun tirabirak, bidesarien harira...**

Gogorra izan da bai, oso gogorra. Batez ere familiarentzat eta niretzat. Bagenekien Espainiako kamioilarien patronala epaitegietan borrokan arituko zela bidesaririk ez jartzeko. Ez zuten nahi Espainia osoan jartzea eta gure pausoa arriskutsua zen haientzat. Dena den, Europako Batzordeak behartu egingo du Espainiako gobernua bidesaria autobide guztietan jartzera eta guk jada gainditu ditugu oztopo guztiak eta ezarrita dago. Baina okerrena nire aurkako kereila kriminalak izan dira. Ez dauka zentzurik kereila pertsonalak jartzeak.

## Ekintzaileak eta inbertitzaileak Garaia Investors ekitaldian

Bederatzi proiektu aurkeztu dituzte Garaia Parke Teknologikoan, "bertako ekintzaileen sarea sortzeko"

**Mikel Zumalde** ARRASATE

Debagoieneko ekintzaile eta inbertitzaileak bildu zituen astelehenean Garaia Investors ekitaldiak Arrasateko Garaia Parke Teknologikoan. Ekimenaren helburua izan da bertako ekintzaile eta inbertitzaileen sare bat sortzea, "Debagoiena ekintzailetzarako gune erakargarri izaten jarraitzeko", adierazi du Idurre Albizuk, Garaiako komunikazio eta negozio garapeneko arduradunak.

Aurten bigarrenez egin den edizio horretan, hainbat garapen fasetan, sektoretan eta teknologiatan diharduten bederatzi proiektu aurkeztu dituzte *pitch* formatuan.

Ekitaldiari amaiera emateko, aurkezpen onena egin duenari saria eman diote. Kuvu enpresako Eduardo Fierrok jaso du saria Galbaian enpresako Amaia



Sari banaketa ekitaldia. PT GARAIA

Sarasolaren eskutik: urtebeteko aholkularitza, jabetza industrialaren arloan eta urtebeteko lekua Garaian. Enpresek eta ekintzaileek inbertitzeko kontuan hartu beharreko elementuei buruzko prestakuntza irekia eta doakoa jaso dute.

DEBAGOIENEKO
GREMIOAK

AROZTEGIAK
AZKARATE AROZTEGIA
BERGARA
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

LOREZAINTZA
MAKAI KOOP. ELKARTEA
ARETXABALETA
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

ITURGINTZA
EGIA ITURGINTZA
ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

URKO MANTENIMIENTO SL
ARETXABALETA
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.



ZABALIK

IGOR ARIZMENDIARRIETA

# Europatik datoz notiziak

Asko dira aspaldian Europa aldetik hezkuntzaren gainean etortzen zaizkigun albisteak. Gure inguruan eskolen digitalizazio planak barra-barra entzuten ari garen bitartean, harrituta utzi gaituen –edo ez hain harrituta– erabaki bat hartu dute Suedian. Hango eskuin-erdiguneko Gobernuak aldarrikatu du ikasleen errendimenduaren beherakada pantailengatik izan dela. Ostera ere, ikasgelak testu-liburuz hornitzera bueltatuko dira, diru kopuru handiak txertatuz. Pantailak alboratu eta garai bateko liburuetara bueltatzeko hautua egin dute. Emaitza kaxkarren arrazoia, pantailak omen. Eta, agian, arrazoi dute. Atzean geratu dira gure garaiko liburuak kolorez azpimarratzea, idazlanak paperean txukun eta aurretik pentsatutako ordenan egitea, eskemak liburua jarraituta egitea eta abar. Ezin uka gailu elektronikoak distraziorako tresna egokiak direla. Eta ez eskoletan bakarrik: gure lantokietan ere eguneroko lanari ihes egiteko erabiltzen dira. Ez da erraza oreka.

**EZIN UKA GAILU ELEKTRONIKOAK DISTRAZIORAKO TRESNA EGOKIAK DIRELA**

Ildo beretik, gaur, eta Europa aldetik hori ere, Herbehereetako ikastetxeetara eskuko telefonoak, tabletak eta erloju inteligenteak eramateko debekua ezarriko dute 2024tik aurrera. Arrazoia, berbera: distraitu eta ikasleen etekina murrizten dute. Irlandako herri batean ere, erabaki historikoa: 12 urtez azpiko umeei eskuko telefonoaren erabilera debekatu diete, gurasoekin adostasunean. Egun, Erkidegoko ikastetxeetan eskola bakoitzak aukeratzen du gailu elektronikoen erabilera. Ikastetxe batetik bestera ezberdintasun handiak daude.

Gurean, behintzat, eta, momentuz, ez da horrelakorik entzuten. Baina ez nintzateke harrituko Espainiako Parlamenturako hauteskundeetan urdinek eta berdeek irabazi eta Suediako eskuin Gobernuaren bide bera jarraituko balute. Hori bai, Parlamentuko eserlekuetan beraien eskuko telefonoekin distraituta dauden bitartean.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE




HANDIK ETA HEMENDIK

## Erabaki handi, eragin... txiki?

MIKEL P. ANSA

'BERRIA'-N ARGITARATUA

HTTPS://LABUR.EUS/Y3IWM

Klima aldaketaren kontrako legediari stop esan nahi zioten Europako eskuinak eta eskuin muturrak.

Aski dela.

Ez egiteko hainbeste lege natura babesteko.

Emmanuel Macron Frantziako presidenteak ere berriki esana du ingurumena babesteko legediak geldialdi bat behar lukeela.

Hala ere, natura leheneratzeko legea onartu egin du Europako Parlamentuak.

Azkeneko hilabeteetan borroka gogorrean aritu dira alderdiak eta lobbyak.

Legearen alde, batez ere ezkertiarrak, ekologistak eta liberalen batzuk.

Baita *ekonomia berde* delako horren alde posizionatu diren multinazional asko ere –Ikea, Nestle, Iberdrola, H&M, Coca-Cola...–, harrigarria badirudi ere.

Kontra, Europako eskuin osoa, epelenetik muturrenekora.

Eta horiekin batera, abeltzain-nekazari, arrantzale eta basozale handi eta handixkoen lobbyak.

Legea ehortzi behar zutela ematen zuen, oztopatu eta trabatu dute ahal izan duten guztia; baina aurrera egin du.

Kontua da, bidean, mehartu egin dela lege hori, eta orain estatuetako gobernuen esku geldituko dela legea ezartzeko planak egiteko eta plan horiek doitzeko aukera.

Bi urte baino gehiago beharko dituzte zerbait zehatza onartzeko.

Emaitza?

Ekologismoak bataila bat irabazi du: ingurumen legeak beharrezkoak direla adierazi du.

Baina estatu bakoitzak erabakiko du zein erritmotan eta noraino leheneratu natura.

Eta hori egin zezaketen legerik gabe ere.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**
Monika Belastegi.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.
**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**
Igone Osinaga.

**Saileko arduradunak**
Xabier Urzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
**Maketazioa**
Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Amaia Martinez de Arenaza.
**Publizitatea**
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*publi@goiena.eus*
**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp: 688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 18.500 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**
Zeroa Multimedia

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK

Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

# GUTUNAK

## Eskerrik asko, Oñati, 'Migrazioa guztion eskubidea' kanpaina posible egiteagatik!

**LEIRE ETXEBERRIA**
HOTZ OÑATIREN IZENEAN
OÑATI

Hotz Oñatik *Migrazioa guztion eskubidea* sentsibilizazio kanpaina egin zuen maiatzean. Kanpainari hasiera emateko, *Kantu eta kolorez migrazioaren alde* ekintza artistiko kulturala ospatu genuen apirilaren 29an, festa giroan, Oñatiko plazan.
Eta maiatzean astero emanaldi edo hitzaldi bat izan genuen kultur etxean.

Kanpaina posible egin duzuen guztioi mila-mila esker!
-Artistak: Roberto Zabarte, Antton Txintxurreta, Iñigo Ugarte eta Javi Erostarbe.
-Oñatiko ikastetxeak.
-Mirari Sagarzazu eta DBHko lehen mailako ikasleak.
-Pintura tailerreko ume eta gaztetxoak eta tailerreko irakasle Mayra.
-Musikariak: Aiert Alberdi eta Koki.
-Olatu solidarioan parte hartu zenuten guztiak.
-Muntaia: Pablo Miguel Esteban eta Jose Antonio Martinez Beretxinaga.

-Emanaldi eta hitzaldietan ponente izan zaretenoi eta ekintzetara bertaratu zareten herritarroi! Eskerrik asko!

## Zentral eolikoa Debagoieneko biztanleen bizitzetan

**JUDITH ARRIOLABENGOA UNZUETA**
ARAMAIXO BIZIRIK PLATAFORMAREN IZENEAN
ARAMAIO

Asentsiomendi, Durakogain, Ganborralde, Lata ingurua… debagoiendar askok ezagutzen eta maitatzen ditugun parajeak dira. Batzuek pandemia garaian bisitatu zituzten bazter haiek, akaso, lehen aldiz, mendiak inoiz baino gehiago arnasgune izan zirenean.

Aramaioarrok ezinegonetik bizi dugu Statkraft multinazionalak mendilerro horretan kokatu nahi duen zentral eolikoaren proiektua. Ezinegona ez ezik, kezka eta haserrea ere eragiten digu herritarren adostasunik gabe, tokian tokiko hausnarketa mahaiak bideratu gabe, Euskal Herriko eredu energetiko, elikadura sistema… funtsean, bizitzarako ezinbestekoa dena eta ez dena sakonki, sozialki eta politikoki hausnartzeke dugunean, mendietan tankera horretako makroproiektuen inposizioak.

Klima larrialdiaren paradigmaren baitan, antza denez, erabakiak azkar eta urgentziaz hartu behar dira, horrek legea bera gainditzea edo enpresen interesen arabera berau aldatzea badakar ere. *Trantsizio energetikoa* deritzon auzia tranpaz beteta dago. *Larraialdiaren* testuinguruan ez dago eztabaidarako, hausnarketarako eta pentsamendurako tarterik, munduaren amaierak eraginkortasunez eta azkartasunez erantzutea eskatzen du, nonbait. Bada, gizarteak erresistentzia ariketa bat egin beharko luke bizitza sostengatzeko beharrezkoa dena adosteko eskakizunean: ez da trantsizio edo aldaketa zilegizkorik izango lurraren pribatizazio eta suntsiketan oinarritzen jarraitzen duen eredua bultzatzen den bitartean, kapitalismo basati honek berdez mozorrotu nahi badu ere.

200 metroko zortzi haize-errota dira 2027tik aurrera aipatutako mendilerroan martxan jarri nahi dituztenak. Horiekin batera, hamalau kilometroko luzerako goi-tentsioko lineak zeharkatuko du Aramaioko hego-ekialdea, Besaidetik pasa eta Abadiñoraino. Hori horrela gauzatzen bada, bailara osoak atzera bueltarik izango ez duen galera pairatuko duela deritzogu. Zenbatezinak dira mendietan eolikoak jartzeak gizakion eta gainontzeko izakien bizitzetan eragingo dituzten kalteak. Guk zarata, eguzki izpiek hegalekin talka egitean eragindako itzal intermitenteak, paisaiaren orografiaren itxuraldatzea… pairatuko ditugu zuzenean, eta baso eta mendietan bizi diren saguzar, hegazti eta bestelako animali askok bizitza edota bizitokia galduko dute.

Statkraften proiektuak Aramaio eta Eskoriatza soilik kolpatzen dituela iruditu dezakeen arren, Debagoien osoari eragiten dion auzia da.

## Gure ibaia

**JOSU GARITAONANDIA**
'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA
ARRASATE

Aurten hamabi urte beteko dira Bergaran lehenengo ahateak eta ondoren arrainak hilik azaldu zirela. Errudunik ez dute aurkitu, baina agerian geratu zen administrazioen arteko ganora faltak eragin zuela hondamendi hura. Harrezkero ere azaldu dira animaliak hilik ibai bazterretan, baina, era berean, abisuak ere egon dira, denboraz heldu izanaren ondorioz kalteak saihestea lortu dutenak.

Zaindu dezagun gure ibaia.

Ez izan beldurrik eta deitu 112 zenbakira zerbait arraroa sumatzen baduzue ibaian.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus



# Batzordeak osatu ostean, Gobernuak hasi du bidea

Atzo, eguena, egindako osoko bilkuran zehaztu zituzten 2023-2027ko agintaldirako Udaleko batzorde informatzaile orokorrak, baita zinegotzi liberatuen soldatak ere –EH Bilduko bost zinegotzi eta EAJko bat–; halaber, EAJko hiru zinegotzik kargua utzi dute

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE

Ezohiko deialdian batu zen atzo udalbatza, besteak beste, 2023-2027ko agintaldirako Udaleko batzorde informatzaile orokorrak osatzeko, osoko bilkuren maiztasuna zehazteko eta zinegotzi liberatuen soldatak onartzeko.

GOIENA aldizkariak joan den egubakoitzean aurreratu zuenez, hamahiru batzorde egongo dira agintaldi honetan: Auzoak eta Obra, Zerbitzu eta Mantenua (Kepa Urteaga); Hirigintza, Trantsizio Ekologikoa eta Mugikortasuna (Garazi Etxeberria); Kultura (Andoni Arratibel); Kirola (Asier Murguzur); Ogasuna (Joseba Ezpeleta); Pertsonak eta Udal Langileak (Kepa Urteaga); Euskara (Joseba Ezpeleta); Ongizatea (Jasone Giraldo); Feminismoa eta LGTBI+ (Eva Abuin); Tokiko Ekonomia eta Enplegua (Jaime Bengoa); Hezkuntza (Jasone Giraldo); Belaunaldiartekotasuna (Gladys Fernandez); eta Bizikidetza (Jasone Giraldo).

Batzorde bakoitza, era berean, bederatzi kidez osatuta egongo da: EH Bilduko lau, EAJko hiru, PSE-EEko bat eta Elkarrekin Arrasateko bat.

Bestalde, udal taldeak finkatzeaz gain, talde bakoitzeko bozeramaileak ere zehaztu zituzten atzoko saioan. Hala, Kepa Urteaga izango da EH Bildu taldeko bozeramailea; EAJ-PNV taldeko bozeramailea, berriz, Ander Garay; PSE-EE taldekoa, Aritz Murua; eta Elkarrekin Arrasate taldekoa, Eva Abuin.



Udalbatza eratu zenekoa, ekainaren 17an. E.A.

### Sei zinegotzi liberatu

Udalbatza osatzen duten 21 zinegotzien dietak eta liberatuen soldatak ere onartu ditu udalbatzak. EH Bilduko lau zinegotzik liberazio osoa izango dute eta batek, berriz, %60koa. Modu horretan, honako hauek izango dira liberazio osoa izango dutenak: Maider Morras alkateak 62.448,83 euroko ordainsari gordina izango du urtean eta Kepa Urteaga lehen alkateordeak, Garazi Etxeberria bigarren alkateordeak eta Jasone Giraldo hirugarren alkateordeak, 43.650,87 euroko ordainsari gordina –Tokiko Gobernu Batzordeko kide dira laurak–. Halaber, Auzoetako zinegotzi eta Tokiko Gobernu Batzordeko kide Mikel San Migelek %60ko jardunari dagokion 26.190,52 euroko ordainsari gordina jasoko du urtean. Bestalde, EAJko bozeramaile Ander Garayk ere liberazio osoa izango du, urtean 43.650,87 euroko ordainsari gordinarekin.

Arduraldi esklusiboa edo partziala ez duten zinegotziek, aldiz, honako ordainketa hauek jasoko dituzte parte-hartzeagatik: Batzorde Informatzailera eta Bozeramaileen Batzordera joateagatik, 90 euro –bilera bakoitzeko–; eta osoko bilkura eta Tokiko Gobernu Batzar bakoitzeko, 140 euro.

### Hiru zinegotzi aldaketa

Ekainaren 17an karguaren zina egin eta hilabete eskasera karguari uko egin diote EAJko hiru zinegotzik: Jon Apraizek, Asier Muxikak eta azken zortzi urteetan alkate izan den Maria Ubarretxenak –Aldundiko Bide Azpiegituretako diputatua da orain–. Modu horretan, jeltzaleen zerrendan bederatzigarren, hamargarren eta hamaikagarren zeudenek ordezkatuko dituzte Udalean: Ibon Arrupek, Amaia Zeziagak eta Xabier Arrizabalagak, hain zuzen.

### Hileko lehen martitzenean

Modu berean, osoko bilkuren aldizkakotasuna ere zehaztuta geratu da, eta hilabeteko lehen martitzenetan egingo dute, 18:00etan hasita. Gobernua eratu eta batzordeetako zinegotziak izendatu ondoren, herriko talde eta eragileekin bilerak hasiko dituztela nabarmendu dute Udal Gobernutik.

### Hainbat erronka aurretik

Abiatu berri duten agintaldirako hainbat erronka dituzte, Udal Gobernuak esan duenez. Hirigintza arloan, esaterako, balio eraldatzaileen mesedetan lan egingo dutela adierazi dute. "Auzoetako irisgarritasuna hobetzeko azpiegitura berriak egin eta etxebizitza-zerbitzu publikorako bulegoa jarriko dugu martxan, Etxebizitza Legeak ezarritakoa garatuz". Mugikortasunari dagokionez, TAOk beharrezko dituen hobekuntzak egingo dituztela diote, eta "autobus sare duinak" martxan jarri. Era berean, autobus geltokiaren inguruko lanketa egiteko konpromisoa ere hartu du Gobernuak, baita trantsizio ekologikorako laguntza bulegoa sortzekoa ere.

Arlo fiskalean ere aldaketak iragarri ditu Gobernu berriak. "Progresibitatea izango da zerga politika markatuko duen norabidea, ikuspuntu birbanatzailea eta progresiboa landuz; ahalmen ekonomiko gehien duenak ahalegin ekonomiko handiagoa egin behar du gutxien duenaren mesedetan", azaldu dute.

Ongizateari erreparatuz, "zaintzaileak zaintzeko" proiektua garatuko du Udal Gobernuak. "Ordaindutako zein ordaindu gabeko zaintzaileak babesteko programa garatuz, zaintza eta etxeko langileentzako eta kontratatzaileentzako aholkularitza eta bitartekaritza zerbitzua sortuko dugu. Gainera, zaintza lanak egiten dituzten enpresen klausulak berrikusi eta beste eredu batzuk sortzeko aukera aztertuko dugu".

Gazte politikak berrikusi eta nagusien kontseilua sortzeko konpromisoa ere hartu dute.

**EAJ-KO MARIA UBARRETXENA, JON APRAIZ ETA ASIER MUXIKA ZINEGOTZIEK KARGUA UTZI DUTE**

## Osasuna eta inklusioa kirol egokituaren bidez lantzea helburu

Joan den egubakoitzean, hainbat udalen arteko bilera bat egin zuten, osasunaren eta prebentzioaren garrantziaz hausnartzeko eta arlo horretan hainbat proiektu sustatzeko. Arrasateko alkate Maider Morrasek aktiboki parte hartu zuen eta udalerrian gauzatu nahi dituzten ekimenak partekatu zituen. Besteak beste, Hegalak kirol-zentroa bisitatu zuten, eta alkateak zera azaldu zuen: "Zentro hau guztiz bat dator guk sustatzen dugun Kirol Herria proiektuaren filosofiarekin, eta helburua da kirola pertsona guztiei hurbiltzea eta gaixotasunen prebentzioan lan egitea". Izan ere, udalerriko kirol eta osasun arloan diharduten eragileekin elkarlanean egingo duten ekimena da Kirol Herria. "Komunitatearen parte-hartze aktiboa sustatu nahi dugu kirol-jardueretan, eta bizimodu osasungarriak sustatu".

## Indukzio-plaka adimentsu bat aurkeztuko dute

Acede elkarteak eta Adinberri Fundazioak proiektu bat garatu dute, adineko pertsonek eguneroko sukaldeko lanean oztoporik ez izatea helburu duena. Hala "modu seguruan kozinatzeko" indukzio-plaka bat aurkeztuko dute, adineko pertsonentzat ez ezik, ikusmen murriztua izan dezaketen pertsonentzat baliagarria izan daitekeelakoan.

Arrasateko Nagusien Kontseiluak, proiektu hori aintzat hartuta, herritarren aurrean aurkeztuko du. Uztailaren 19an izango da, eguaztena, 10:00etan, Danobat elkartean. Ondoren, Retina Gipuzkoa Begisare elkarteko Itsaso Nuinek *Ikusmen murriztuko pertsonak* hitzaldia egingo du.

Saio irekia izango da, baina ohartarazi dute aurrez izena eman beharko dela, *ankontseilu@gmail.com* helbidera mezu bat bidalita.

## Bertako eta sasoiko produktuen azoka bihar Seber Altuben

Hileko hirugarren zapatua izanik, azoka egingo dute bihar. Hala, 09:00etatik 14:00etara, ogia, gazta, eztia, gozogintza eta sasoiko barazkiak eta frutak eskainiko dituzte bertako ekoizleek. Oporrak hartu aurreko azken azoka izango da, eta hurrengoa irailaren 16an egingo dute. Orduan, sasoiko produktuen tailerra ere izango da umeentzat.



Iturbide egoitzak obrak, lehen solairuan. Aste Santuan hasi zituzten eta azarorako amaitzea aurreikusten dute. E.A.B.

# Eredu berrira egokitzeko lanetan ari dira Iturbiden

Egoitza "ingurune terapeutiko, seguru, irisgarri, funtzional eta etxekoa" bilakatzeko lanak egiten ari da Gipuzkoako Foru Aldundia; printzipioz, lehen solairua berritu egingo dute: banakako hemezortzi gela egingo dituzte, eta binakakoak kendu

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE

Gela bikoitz guztiak banakakoak izatera pasako dira eta gela bikoitz berri bat prestatuko dute. Hala, Iturbide egoitzako lehen solairuak banakako hemezortzi gela izango ditu, komun banarekin, logela bikoitz bat komunarekin, sukalde-jangela, bi egongela, bi komun gehiago, biltegi bat eta kontrol-postu bat; hala, solairu osoa "egoitza-modulu independente" bihurtuko da.

Gipuzkoako Foru Aldundia lurraldeko egoitza-sarean egiten ari den eraldaketaren parte da proiektua, eta, Aldundiaren esanetan, helburua da egoitza "ingurune terapeutiko, seguru, irisgarri, funtzional eta etxeko" bilakatzea, "erabiltzaileentzat, zentroko langileentzat, senide, lagun eta bisitentzat".

Olatz Etxabe Iturbideko zuzendariaren esanetan, egoiliarren bizi-kalitatea hobetzea ekarriko du eraberritzeak. "Bakarkako gelak izango dira, guztiz egokitutakoak, eta espazio fisikoa hobetuko da". Halaber, funtsezkoa izango da pertsonengan oinarritutako arreta eta zaintza eredua aplikatzeko. "Urteak daramatzagu eredu horrekin lanean, gu egoiliarren beharretara egokituz, eta ez alderantziz. Horretarako, dena den, baliabideak behar dira, gaur-gaurkoz ez ditugunak. Beraz, eraberritzea beharrezkoa da", dio.

Era horretan, egoiliarrek euren espazio propioa irabaziko dute, egunerokorako ez ezik, senideak, lagunak eta abar bisitan joaten direnerako, esaterako.

### Irizpideak zehaztu beharraz

Obra bukatzean, lehen solairuan hogei egoiliar egongo dira; bigarrenean, 25; hirugarrenean, 32; eta laugarrenean, hamazazpi. Zuzendariak azaldu duenez, egoiliar askok gurako dute banakako gela horietara joan; beraz, irizpide batzuk ezarri beharko dituzte, Aldundiarekin batera. "Irizpide nagusietako bat izan daiteke narriadura kognitiborik ez dutenentzako izatea; izan ere, haiek aukera gehiago izango dute bakarkako gelez gozatzeko. Dementziaren bat dutenek jendea behar dute inguruan, beste behar batzuk dituzte; ez dauka zentzurik guztientzat irizpide bera erabiltzeak".

Eraberritze horrekin, ebaluazio bat egitea da asmoa, ereduak nola funtzionatzen duen ikusteko eta eraikin osora hedatu daitekeen aztertzeko.

### Lanak, azarorako amaituta

Construcciones Urdinberri SL-Viuda de Sanz enpresa ari da lanak egiten eta proiektuak 889.855,91 euroko aurrekontua du. Aste Santu ostean hasi zituzten lanak, eta, ondo bidean, azaroan amaituko dituzte. Obrak bukatu bitartean hainbat egoiliar beste egoitza batzuetan daudela azaldu du Etxabek, eta haiek "deseatzen" daudela Iturbide egoitzara itzultzeko.

### Aldundiak, 34 milioi euro

Iturbidez gain, Gipuzkoako hemeretzi egoitzatan ari dira egokitze-lanak egiten, tartean, Oñatikoan, eredu berrira egokitzeko helburuarekin. "Pixkanaka egin beharreko lana da, baina Gipuzkoa eraldaketa bete-betean dago. Datozen urteetan aurreikusten dugu 30 egoitzatara iristea, eta 2022-2023an 34 milioi euroko inbertsioa egingo dugu helburu horretarako", diote Aldunditik.

Arreta pertsonalizatuagoa eskaintzea da helburua, berrikuntzan oinarrituta, komunitatearekiko harremanak estutuz eta parte-hartzea sustatuz. "Espazio fisikoaz gain, zaintzaren kalitatea, langileen prestakuntza, zentroetan ikuspegi berritzailea txertatzea, zainketen parte-hartzea eta lantaldeak eta zereginak antolatzearekin zerikusia duen guztia hartzen dugu aintzat".

NIRE USTEZ



JOHANNA SANCHEZ

## Zuretzat, niretzat, nire lagunentzat

Telebistako ia kate guztietan hitz bakar batez hitz egiten da: *sanchismoa-z*. Eta uste dut azalpen bat behar dugula. Sozialista gisa, Pedro Sanchezen Gobernuarekin izan ditugun abantailak azaldu nahi ditut: pentsiodunek haien pentsioaren eguneratze bat jaso dute, bizitzaren kostuaren igoeraren antzekoa; gazteek alokairuen prezioaren igoeraren kontrola izan dezakete, baita kultura-bonua ere, eta, nola ez, ikasteko aukera ematen dien beka-politika bat; aitatasun-baja hobetu egin dute, amaren maila berean jarriz, eta bikotekideak hilean 100 euroko diru-sarrera izango du hiru urtean seme-alaba bakoitzeko; langileek eta, batez ere, gazteek haien perspektibak hobetu dituzte, bai kontratuaren iraupenari dagokionez –kasu gehienetan, aldi baterakoa izatetik mugagabea izatera igaro da–, bai gutxieneko soldatari dagokionez –1.080 euro arte igo da–; Sanchezen Gobernuak onartutako lan-erreformak langilea babesten du, bai soldatan, bai kaleratzeagatiko bereizketan; pandemian, sozialistok jakin dugu borrokatzen eta elkarbizitzen, eta hain gaizki ez dugu egin. Horregatik, ni oso harro nago *sanchismoa-z* eta sozialista izateaz.




VITALDENT
ZURE AHOA DA GARRANTZITSUENA
ARRASATE
Otalora lizentziaduna kalea 1
943 06 03 22
UDA GUZTIAN ZABALIK
INTERESIK GABEKO FINANTZAKETA
(ITN %0,00 %UTB 2,56*)
4 URTERA ARTE

# Sasoibide: urtetik urtera hazten ari den ekimena

Bost urte igaro eta gero, Inaziotar Bidearen hirugarren etapa eginda agurtu dute kurtsoa Sasoibideko kideek. Berrikuntzekin hasi zuten urtea, eta datorren urtera begira ere zenbait proiektu berri martxan jartzeko nahiarekin jarraitzen dute

**Miren Arana Pagaldai** ARRASATE

Urtea "gogotsu eta indartsu" hasi dutela dio Margari Gorrotxategik, Sasoibideko kide eta antolatzaileetako batek: "Ikasturtea urrian hasten dugun arren, irailetik hasten da jendea irteerekin noiz hasiko garen galdezka". Aurten, kurtso hasieratik jarri ditu martxan proiektu berriak Sasoibidek; besteak beste, Ipar Martxa egiten hasi dira taldekide batzuk, makilekin praktikatzen den ibilketa nordiko kirol ezaguna. Bestetik, tradizioak ere jarraitu dituzte, eta ikasturtea Inaziotar Bidearen hirugarren etaparekin agurtu dute, Arantzazutik abiatu eta Araiaraino doan bidea eginez.

Duela bost urte jarri zen Sasoibide martxan, eta urtetik urtera hazten joan den ekimena izan da; aurten, 55 urtetik gorako 1.138 lagun batu ditu proiektuak, eta horietatik guztietatik %93 emakumezkoak izan dira: "Ez dira zenbaki asmatuak; nahiz eta konpromisorik gabeko irteerak izan zenbatu egiten ditugu etortzen diren guztiak, ondoren Udalean aurkezteko".

### Emakumeei garrantzia

Ibilaldiez gain, beste zenbait irteera ere antolatu ohi dituzte: "Ez gara ibiltzera mugatzen; emakumeekin lotutako ekintzetara ere joaten saiatzen gara, eta baita kultur ekintzetara ere; ideia berrietara irekiak gaude". Aurten, besteak beste, Lilatoian, ibilketa nordiko tankerako minbiziaren aurkako martxa batean, Emakumeak Zientzian-en eta Guggenheim museoan izan dira elkarteko kideak.

Poliki-poliki "komunikazio sare" bat lortzen ari dira, antolatzailearen hitzetan. "Normalean, inguruko jendearekin irteten gara, baina Sasoibidek ate berriak zabaltzen dizkigu eta talde zabala sortzen ari gara; oso aberasgarria da hori". Gauza berezi eta berriak" egiten dituztela ere nabarmendu du, eta, hala, talde moduan "dinamika oso polita" sortu dutela.

### Ekintza berritzaileak

"Kezkatuta" zeudela adieraziz, taldeko nagusienei zuzenduta eta taldea zabalagoa egiteko asmoarekin, datorren urtera begira proiektu berri bat jarri dute martxan Sasoibideko kideek: "80 urtetik gorako lau pertsona daude taldean, eta, batez ere, haiei zuzenduta eta baita beste kolektibo batzuk bereganatzeko asmotan ere, hurrengo kurtsora begira berrikuntza batekin hasiko gara: ostegunetako irteeretan bi erritmo markatuko ditugu; ibilaldia hasi eta bukatu toki berean egingo den arren, erritmo bat bestea baino motelago edo suabeago egiteko asmoa dugu".

**"EGITEN DUGUN LANAK HERRIARENTZAT GARRANTZIA DUELA AITORTU DIGUTE"**

### Udalari laguntza

Antolakuntza aldetik hobekuntzak izan dituzte, Gorrotxagiren hitzetan, baina Udalaren babesa baino gehiago nahi dutela azpimarratu du: "Antolakuntzan laguntza izatea gustatuko litzaiguke, gidaritza bat ematea eta Herri Mugimendu bezala sustatzen laguntzea".

AKS sarien irabazleetako bat izan da Sasoibide, eta aitortza hori eskertzekoa dela adierazi du antolatzaileak: "Oso pozgarria izan da guretzako, egiten dugun lanak herriarentzako garrantzia duela aitortu baitigute sariarekin".

### Konpromisorik gabea

"Uztailean antolakuntzarekin hasten gara, irailerako urte osoa itxuratuta egoteko". Hilero, herrian zehar kartelak jartzen dira hilabeteak izango dituen irteerekin, eta telefonotik ere bidaltzen da informazioa; egitaraua, beraz, "guztion eskura" dagoela aitortu du antolatzaileak, eta gonbita egin die herritarrei: "Gizartean aniztasuna garrantzitsua da, eta, gehienok emakumeak izan arren, gizonezkoentzat ere ateak zabalik ditugu".



Sasoibidekoak, Inaziotar Bidearen hirugarren etapan. SASOIBIDE



BESAIDE MENDIZALE ELKARTEA

## Zugarramurditik Etxalarrera

Joan den asteburuan, Besaide Mendi Elkarteko beteranoek Zugarramurditik Etxalarrerainoko ibilbidea egin zuten, eta, 756 metro dituen Atxuria tontorretik pasatuz, berrogei bat pertsonak irteeraz gozatzeko aukera izan zuten. Hala, inguruko paisaia ederrak eta Etxalar herria ere ezagutu zituzten.

GORA ETA BEHERA

## Gernika zumardia pasealekua, zakarrez beteta

Gernika zumardia pasealekuan, Musakolara doan bidegorrian, askotan zaborra pilatzen dela dio herritar batek. Ez da lehenengo aldia Arrasateko kaleetan zakar-poltsak, plastikoak, botilak eta fruta-azalak agertzen direla; beste kasu bat baino ez da hori.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?**
*berriak@goiena.eus*
edo 688 69 00 07.



## Asteburuan Santa Marinako jaietan murgilduko dira

Egubakoitzean hasita, hiru eguneko jaiak ospatuko dituzte Santa Marina auzoan: gaur, hilak 14, 18:30ean hasiko dira jaiak eta hilaren 16an gaueko hamaiketan amaitu. Urtero bezala, banderen igoerarekin eta txokolate-janarekin ekingo diote festari; baina, asteburu osoan, guztien gozamenerako diren beste hainbat ekintza prestatu dituzte. Besteak beste, musika, askotariko jokoak, bazkariak eta puzgarriak izango dituzte. Jai Batzordeak eskerrak eman dizkie egitaraua egiten lagundu duten guztiei. "Espero dugu guztion gustukoa izatea", adierazi dute.

Bestetik, pandemiaz geroztik egin ez den jaia berreskuratu da Zerrajeran; boluntario faltagatik, 2019an ospatu ziren festak azkenekoz. Aurten, baina, berriz ere ospatuko dira: gaur hasi eta domekan bukatuko dira.

# Txikitako ametsa, errealitate beteaz

**MAITE CARRERAS** ONE WEB ENPRESAKO GERENTEA

British National Science Museum-en inauguratu berri den Engineers galerian parte hartzeko aukeratuetako bat da One Web-eko sateliteetako ingeniaria

**Miren Arana Pagaldai** ARRASATE

2009an Mondragon Unibertsitatean hasi zituen Maite Carrerasek Ingeniaritza Elektroniko Industrialeko ikasketak; hamalau urte geroago, British National Science Museum-en inauguratu berri den Engineers galerian izateko aukeratu dute; museoak zientziaren alor guztia jasotzen du bere baitan; besteak beste, matematika, medikuntza eta telekomunikazioak.



Maite Carreras, Engineers galeriaren inaugurazio egunean. HUGO MENU

**Hasieratik zenekien etorkizunean zertan jardun nahi zenuen?**

Egia esan, zorte handia izan nuen umetan, eta txikia nintzela gurasoekin NASA bisitatzera joan nintzen. Orduan sartu zitzaidan ametsa buruan, eta, astronauta izateko gogoa neukan arren, lurreko bizitza ere asko gustatzen zitzaidala konturatu nintzen. Hala ere, argi neukan aeroespazialean lan egin nahi nuela, baina 2009an hasi nituen ikasketak, krisi bete-betean, eta, aitaren lagun baten gomendioz, ingeniaritza aeronautikoa baztertu eta elektroniko industriala hasi nuen.

**Nola hasi zinen *One Web*-erako lanean?**

MUk *diploma bikoitza* deituriko aukera ematen zuen, eta horri esker Tolosara (Okzitania) joateko aukera izan nuen; mundu mailan oso famatua da daukan industria aeroespazialagatik. 2015ean Airbus-en hasi nintzen lanean, behin energia eta potentzia elektronikoan masterra amaituta. Sartu eta urte berean, Airbusek kontratua lortu zuen One Web enpresa britainiarrarekin; lehenengo aldiz satelite bat diseinatu eta 900 fabrikatzeko proiektua sortu zen.

Airbusek hiru filial ditu, abioiena, helikopteroena eta sateliteena; nik, berez, abioien diseinuan egiten nuen lan, baina imajinazioa nahiko mugatua zen. One Webekin kontratua lortu zutenean bertan hasi nintzen lanean, baina elektrizitatean asko murgiltzen ari nintzela konturatu nintzen. Azkenean, 2021ean One Webetik deitu zidaten, eta Tolosatik Londresera joan nintzen, bertako egoitzan lan egiteko.

Gaur egun ere haiekin jarraitzen dut lanean, baina berriz ere Tolosatik; noizbehinka, Londresera joan behar izaten dut, hala ere.

**Nola sortu zen ideia?**

Sateliteak industrializatu nahi ziren, proiektua guztiz berria zen, egunerokotasunean erabiltzen ditugun teknologiak espaziora eraman nahi ziren. Gaur egun, One Webek 650 satelite baino gehiago ditu orbitan, eta, horri esker, edozein tokitan, desertu erdian, Udalatx puntan edo hegazkin batean Internet izateko aukera daukagu.

Proiektuarekin lortu dena bera zen One Weben helburua; hau da, une oro konektatuta egoteko aukera izatea. Ideia, berez, laguntzeko asmoarekin sortu zen; munduaren heren bat konektatu gabe bizi da, eta, nolabait, munduko eskola guztiek Interneterako eta aplikazio guztietarako sarbidea izatea nahi zuten. Gero, hobetzeko eta ideia indartzeko gauza gehiago batu ziren: erreskate-ontziei laguntzeko balioko lukeela, hegazkinetan konexioa izateko...

**Horrenbeste lan egin ostean, British National Science Museum-eko Engineers galerian parte hartu duen aukeratuetako bat izan zara. Noiz jakin zenuen berria?**

Duela urte bat eman zidaten berria, gutxi gorabehera. One Webetik bost izan ginen aukeratuak hasieran, baina, azkenean, ni bakarrik gelditu naiz. Zientzietako alor guztietako pertsonak nahi zituzten, nolabait, erakusteko ingeniariak ere pertsonak garela, eta ez makinak. Hasieran oso arraroa egin zitzaidan, baina *shock*-a pasatu ostean oso pozik hartu nuen berria; ez nuen espero.

**Zer da zuretzat galeriaren parte izatea?**

Enpresatik aukeratu bakarra izan nintzen, emakumea eta atzerritarra; beraz, desberdina. Uste dut hori oso garrantzitsua izan dela estereotipoak hausteko. Ingeniaritza munduan nahiko bakarrik sentitu izan naiz; atzerritarra izanda, eremu, hizkuntza eta kultura berrietara egokitu behar izan dut, eta ingurura begiratuta gizon nagusiak baino ez dira ikusten. Ingeniaritzan ere berdintasuna behar da, eta geroz eta erreferente desberdin eta gehiago izan askatasun handiagoa izango dugu.

**"ENPRESATIK AUKERATU BAKARRA IZAN NAIZ, EMAKUMEA ETA ATZERRITARRA"**

**Ekainaren 23an izan zen galeriaren inaugurazioa. Nola gogoratzen duzu eguna?**

Oso polita izan zen, emozioz betea. Egun berezia da berez ekainaren 23a; amaren urtebetetzea da, eta baita San Juanen hasiera herrian. Gurasoak Arrasatetik etorri ziren, ahizpa Stockholmetik eta mutil-laguna Tolosatik; guztiok elkartu ginen Londresen, eta, nahiz eta inaugurazio egunean museora pertsona bakarra gonbidatzeko aukera izan, egun batzuk lehenago familiarentzat bakarrik ireki zuten eta guztiok batera joan ginen; ama hunkituta eta ahizpa nitaz harro ikustea oso polita izan zen.

Gainera, jende berri eta oso interesgarria ezagutzeko aukera ere izan nuen; bertan zientzialari asko batu ginen, eta hizketan hasi eta ideia pila bat izan genituen guztiok batera.

**Eta orain, ba al duzu etorkizunera begira proiektu berririk edo berberarekin jarraituko duzu?**

Azken 10 urteetan lanean enfokatuta egon naizela ikusi dut, eta orain bere fruitua izaten ari da lana. Baina gertukoak ere alde batera utzi ditudala konturatu naiz; oso ondo dago egin dudana, baina elkarri laguntzen diogun inguru batean lan egitea gustatzen zait. Baditut etorkizunera begira zenbait ideia: proiektu propioa sortzea, mundua hobetzeko aplikazioak egitea... Baina ausardia eta denbora behar da horretarako.

**"AZKEN 10 URTEAK LANEAN ENFOKATUTA EGON NAIZ, ETA BERE FRUITUAK IZATEN ARI DA ORAIN"**




arbolapeta
arrasate
beinke

# "Aizkorrira igotzen sufritu nuen gehien"

**DAVID GOMEZ** MENDI LASTERKARIA

Arrasateko mendi lasterkaria hirugarren izan da lehenengoz parte hartu duen Ehun Miliak ultradistantziako lasterketan. Irailean Ikazkin Trail egiteko asmoa dauka

**Xabier Urzelai** ARRASATE

David Gomez Davila (Arrasate, 1987) Ehun Miliak lasterketako podiumera igo zen zapatu gauean, 167 kilometroko lasterketa egiteko 26 ordu erabili eta gero. Ordu gutxi batzuk izan zituen errekuperatzeko, astelehenean arratsaldeko txandan sartu zeneta lantegira. Bertan, segurtasun-zapatek erakutsi zioten, zortzi orduz, egin zuen balentriak ordaina zuela. Eguaztenerako, baina, ia errekuperatuta erantzun zituen GOIENAko galderak.

**Zer moduz zaude?**

Ondo; giharretako minik ez dut, baina bai sumatzen dut neke handia. Eta oinetan zauri batzuekin amaitu nuen lasterketa; astelehenean zauri horiek lan apur bat eman zidaten lanean, baina ondo nago, bai.

**Ekaitz gogorrak baino gehiago, tenperatura beroak izan zenituzten asteburu osoan...**

Bai; egubakoitz gauean hego haizea izan genuen eta ez zuen askorik freskatu. Eta zapatu goizean eguzkia irten eta berehala hasi zen berotzen, eta egun osoan oso tenperatura altuak izan genituen. Akaso, hura izan zen gogorrena. Gogoan dut 16:00 aldera San Adriandik Aizkorrira igotzen nenbilela, eta han bai, han sufritu egin nuen.



David Gomez, aste barruan Arrasaten. JOKIN BEREZIARTUA

Bero egiten zuen. Gero, Aizkorritik Urbiara jaitsiera ere gogorra izan zen.

**Zelan gainditzen dira momentu horiek?**

Bada, ez dakit. Txarto joanda ere norbere buruari esaten poliki-poliki aurrera jarraitu behar dela. Uste nuen tarte hartan atzetik zetorren laugarren lasterkariak aurrea hartuko zidala, baina ordurako denak gindoazen leher eginda, eta, behin Urbiara iritsita, handik helmugarainoko [Beasain] tartea hobeto egin nuen.

**Noiz konturatu zinen podiumeko borrokan zenbiltzala?**

Gauez lasai ibili nintzen, erritmoa zaintzen, banekielako hurrengo eguna luzea izango zela. Gogoan dut Tolosako anoa-postura sartu nintzenean [80. kilometroa] bertako boluntarioek esan zidatela bigarrena nintzela, eta oso harrituta geratu nintzen, uste nuelako hamargarren postu inguruan ibiliko nintzela. Anoa-postu hartan lasai egon nintzen, arroz apur bat jan eta indarrak errekuperatzen. Han aurreratu ninduen bigarren egin zuenak [Igor Manzisidor], eta helmugaraino bakarrik joan nintzen.

**Bereziki prestatu zara Ehun Miliak ondo egiteko?**

Bai; Aikeko Beñat Agirreurreta prestatzailearekin daramatzat azken bi urteak, eta aurten erronka horri begira ibili gara lanean. Eskerrak eman nahi dizkiot hari, eta baita etxekoei ere, noski.

**Noiztik mendi lasterketetan?**

22 urterekin egingo nuen lehenengo mendi lasterketa. Lehenago, asfaltoan ibiltzen nintzen korrika, eta lankide batek animatu ninduen mendian hastera. Gogoan dut Apukoko igoera izan zela egin nuen lehenengo mendi lasterketa. Ondoren, urte batzuetan bietara ibili nintzen, asfaltoan eta mendian. Baina azken bi urteotan mendian bakarrik ibili naiz.

**Zergatik mendia?**

Ez dakit esaten, mendian aurkitzen dudan lasaitasuna gustatzen zait.

**Atseden hartzea tokatzen da orain, ala egurrean jarraitzeko asmoa duzu?**

Ez, orain atseden hartuko dut, halakoetatik ondo errekuperatzea garrantzitsua da eta. Baina irail hasieran Aretxabaletako Ikazkin Trail lasterketa egin nahi dut; etxean daukagunez, aprobetxatu egingo dut, eta, ondoren, Gorbeia Suzien ere egin nahi dut. Esango nuke horrekin amaituko dudala denboraldia.

**"ASTELEHENEAN LANTEGIKO ZAPATEK LANA EMAN ZIDATEN, OINETAN ZAURIAK NITUEN ETA"**



Arrasateko lasterkaria, ibilbideko anoa-postuetako batean. EHUN MILIAK

## Ibarrean, podiuma egiten lehena

Ehun Miliak probak hamabi edizio bete ditu aurten, eta lehenengo aldia da Debagoieneko korrikalari bat podiumera igotzen dena. Arrasatekoak 26.06.22ko markarekin geratu zuen erlojua, Jesus Bailo irabazleak baino ordubete eta laurden gehiago eginda.

# Hamaika talde lehian, bihar hasita, Zaldibarko 24 ordukoan

Lehenengo fasea egunez jokatuko dute, 08:30ean hasita; finalerdiak, berriz, 22:45ean hasiko dituzte

**X.U.** ARRASATE

Bihar, zapatua, goizean Ezozia Ala Hil eta Txesterfield taldeen arteko norgehiagokak (08:30) abiaraziko du Zaldibarko 24 orduko txapelketa. Horiek izango dira goiztiarrenak, eta jarraian etorriko dira gainontzeko taldeen partiduak –txapelketan hamaika talde egongo dira, guztira–, bost jardunaldi jokatzeraino. Hala, bost jardunaldi horietatik, goizean hiru jardunaldi jokatuko dituzte, eta, 14:00etatik 16:30era atseden hartzeko etena egin ostean, arratsaldean jarraituko du partiduen maratoiak, 22:00ak arte.

**Fase finala 22:45ean hasita**

Hamaika talde horietatik hiru kanpoan geratuko dira gauez jokatuko duten fase finalerako. Hala, final-zortzirenak 22:45ean hasiko dituzte, eta fase horretan kanporaketa partiduak izango dira. Eta antolatzaileen aurreikuspena da finala 03:00etan jokatzea.



Iazko txapelketa, Zaldibarren. GOIENA




Bat Bat Bi taldeko Josu Basterra, Julen Altuna, Julen Madinabeitia eta Antton Carretero, *azken deia* egin guran. MAIDER ZUBILLAGA

# Itxaropenerako zirrikitua dagoelakoan hots eginaz

Urtebete baino gutxiagoko ibilbidean disko bat argitaratu du Bat Bat bi taldeak: 'Azken deia'. Abesti labur eta gordinak egiten espezialistak dira. Mondra&Roll-en distira aprobetxatuta, "B mailako" kontzertua eman zuten Jaizalen, Hankaz Gorarekin

**Hasier Larrea** ARRASATE

Telefono-kabinan larrialdi deia egiten saiatu, eta ez dute tonurik jaso bueltan. "Pikutara doa gizartea, baina oraindik badago etorkizuna". Telefonoa eskegi. "Dakigun apurra egin beharko dugu orduan: guk musika deitzen dugun hori".

Apirilean kaleratu zuen Bat Bat Bi taldeak zortzi kantu eta 18 minutuko iraupeneko diskoa. Punk-rock estiloan gotortuta, zuzentasun politikotik urrun dauden hitzez jositako lana da *Azken deia*. "Izen bereko abestiak laburtzen du gure mezua, oraindik gauzak aldatzeko esperantza txiki bat daukagula", aipatu dute Julen Madinabeitia gitarra-joleak eta Josu Basterra gitarra-jole eta abeslariak.

*Plástico*, *Puta* eta *Kill your idols* kantuetan islatzen dute nola ikusten duten gizartea: "Minutu batean 24 aldiz errepikatzen dugu *plástico* hitza, gure egunerokotasunean daukan pisua adierazi nahian. Askotan esan digute *Puta* abestia ez dela onargarria betaurreko moreak jantziz gero; zatarra geratzen delako aukeratu dugu horrela esatea, baina kantuaren mezuak sakontasuna dauka. Eta *Kill your idols*-ek *Mondra&Roll* jaialdiaren filosofia, tamaina handitan saldutako punka, kritikatzen du: dirutza ordaindu zahar batzuek esaten dutena ikusteko, eta guk Jaizale tabernan dohainik gauza bera egin genuen".

**Konplikatu barik**

Nabari zaie euren kontraesanetatik abiatzen direla ironia zorrotza erabiltzerakoan. Izan ere, joan den zapatuko kontzertu inprobisatu hura Monterrongo jaialdiaren erakarpen indarra baliatuta antolatu zuten: "Kalea kanpoko eta bertako jendez bete zen goizetik, eta zerbait eskaini nahi genien, jakinda geure burua ezagutarazteko aukera apropoa zela". Hura izan zen Bat Bat Biren seigarren kontzertua; estreinaldia, ostera, Danbaka lehiaketan egin zuten, urrian, publikoaren botoei esker. Handik aurrera, bailarako herrietan jarraitu dute jotzen: "Guri ez digu inork deitzen; guk deitzen dugu taberna eta gaztetxeetara".

**HITZ POLEMIKOEKIN MEZU SAKONAK ZABALTZEA DA ABESTIAK EGITEAN BILATZEN DUTENA**

Diskoa nola grabatu zuten jakiteak ere ematen du taldearen izaeraren berri: "Bilboko Pookah estudioari egun bakarrean atera genion zukua, klaketa barik eta zalantza dezenterekin. Horren prestaketa urriarekin joanda ere, emaitza txukuna irten zaigu. Guztia azkar eta zikin egitea gogoko dugu; zuzeneko taldea gara". Irailetik aurrera kontzertu batzuk lotuko dituztela hitz eman dute, baita bigarren disko bat onduko dutela ere. Itxaropena galtzen ez badute, noski.



Maitane Sarralde, *Desªnuda* dantza emanaldian. M.S.

## Korapiloak askatzeko saiakera artistikoa, Udazabalen hurrena

Maitane Sarralde zirku eta borroka arteetan adituak 'Desªnuda' ikuskizuna aurkeztuko du martitzenean

**H.L.** ARRASATE

Udazabal egitasmoak bete du aurtengo ibilbidearen erdia, baina oraindik eduki kultural asko dauzka erakusteko. Asteburuko Arrasate Blues jaialdiari (Ikus 34. orria) segida emango dio *Desªnuda* dantza emanaldiak datorren martitzenean, hilak 18, 20:00etan. Seber Altube plazan egitura flotatzaile batetik zintzilik egingo du antzezpena Maitane Sarralde dantzari garaikide bilbotarrak. Modu horretan, gorputz irentsiaren eta gorpuzkera ugarien inguruan ikertzen du, haren gorputza korapilo bat bihurtuz eta soka-mutur solte bat topatu nahian.

**Eguenean, Korrontzi dantzan**

Bestalde, hilaren 20an, 19:30ean, Monterron parkean, Korrontzi folk taldearen kantuen erritmora mugituko dira hainbat dantza talde; tartean, Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostaitz. Eta Ttakun-eko txalapartariek eta Arrasate Trikitixa Eskolak ere hartuko dute parte. 10 eurotan, Mundukide elkartearen Mozambikeko proiektua babesteko ekitaldia izango da; sarrerak *mundukide.org*-en daude salgai.



IMANOL SORIANO

## Bigarrena ere, gogoangarria

Joan den asteburuko Mondra&Roll jaialdia arrakastatsua izan zen, hasi eta buka. Mundu mailako eta tokiko musika-taldeek, publikoak eta antolatzaileek primeran pasa zuten, bakoitzak bere rolean. Bigarren aldiak, gainera, hiru egun iraun du, Manu Chaoren domekako kontzertua kontuan izanda, eta askotariko jendea erakartzeko gaitasuna izan du.

# Zuhaitz hostozabalen gaineko formakuntza

Basoa Fundazioko eta Arabako Basogintza Elkarteko kideek gidatuko dituzte saioak: eguaztenean arlo teorikoa landuko dute eta egunean, arlo praktikoa. 18:30ean frontoi ondoan elkartuko dira eta handik San Adrian ermitaren ingurura joango dira

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO

Basoa Fundazioak antolatuta, zuhaitz hostozabal basoen inguruko hitzaldia eta irteera praktikoa egingo dute datorren astean Aramaion. Gaur egungo egoera aztertu eta dauden aukerak aurkeztuko dituzte Basoa Fundazioko Aitor Onaindiak eta Arabako Basogintza Elkarteko Ibon Munitxak.

Eguaztenean izango da lehenengo hitzordua. 18:30ean, kultura etxean, hostozabal basoen zergatiak eta oinarriak azalduko dituzte. "Modu teorikoan azalduko dugu zelan kudeatu daitekeen hostozabala; inausketak nola egin, adibidez", dio Munitxak. Izan ere, Arabako Basogintza Elkarteko kidearen ustez, inausteko orduan aldea dago hostozabalean eta koniferen artean. "Ohituta gaude pinuarekin lan egitera, baina hostozabalak beste era bateko inausketa dauka", dio. Munitxak azalduko du zein den hostozabal basoen egoera, joerak zeintzuk diren eta nolako dirulaguntzak dauden. Onaindiak, aldiz, arlo teknikoa azalduko du: zelan kudeatu eta inausi basoa.

### Baso-jabeendako

"Baso-jabeei zuzendutako formakuntza-saioa izango da, eta ez dago zertan aurrez izena eman", azaldu du Munitxak. Nabarmendu du Aramaion, beste leku batzuetan moduan, pinua eta beste konifero mota batzuk landatu izan direla eta poliki-poliki jendea hostozabalak landatzera animatu dela. Hain zuzen, pinu-jabeak elkartzea izan da elkartearen oinarria.

Arabako Basogintza Elkarteko bazkide asko daudela Aramaion dio: "Gure bazkideak aholkatzen ditugu, erabakiak hartzen lagundu, dirulaguntzen prozesuan lagundu…". Dirulaguntzen inguruan ere jardungo dutela azaldu du Munitxak.



Tellamendi eta inguruko basoak, Lurgorritik. A.E.G.

## BASOGINTZA ELKARTEAK AURREZ AURREKO ZERBITZUA ESKAINTZEN DU HILEAN BEHIN

### Eguenean irteera

Uztailaren 20an, arlo praktikoari helduko diote. Frontoi ondoan elkartuko dira, 18:30ean, San Adrian inguruko basoetara elkarrekin joateko. Basoan bertan egingo dute basoa kudeatzeko saio praktikoa.

### Udaletxean aurrez aurrekoa

Arabako Basogintza Elkarteak herritarrendako aurrez aurreko zerbitzua eskaintzen du Aramaioko udaletxean. Eguenetan izaten dira Aramaion, hilean behin. Aurrez hartu behar da hitzordua, 945-89 20 34 edo 622 40 84 75 zenbakietan. 2023an, ondoko egunetan izango dira Aramaion: irailaren 14an, urriaren 19an, azaroaren 16an eta abenduaren 14an. Irailean 09:15etik 14:00etara izango dira eta gainerako egunetan, 09:15etik 15:00etara.

## Ustiaketa iraunkorra lortzeko bidea

Bestelako baso kudeaketa eredu baten alde lanean dihardute azkenaldian zenbaitek; tartean, baita Tantai baso kooperatibak ere. Urtarrilaren 12an eratu zuten kooperatiba Aramaion, D2030 sarearen barruan; hain zuzen, hamar bat bazkide aramaioar ditu kooperatibak.

Tantaik baso kudeaketa eredua aldatzea du helburu; alegia, basogintzaren kudeaketa iraunkorra bultzatzea. Basoak egokitzapen ahalmena duten sistema konplexu bezala kudeatuz, ekosistema zerbitzu osoagoak bermatzea bilatzen dute. Alde horretatik, euren bazkideendako hainbat formakuntza-saio egin dituzte Tantaikoek.

# Jardunaldi agroekofeministan jasotako helburuak, argitara

Udaberrian 36 emakume elkartu ziren Aramaion krisi ekosozialaz jarduteko; han jasotakoak bildu dituzte

**A.E.G.** ARAMAIO

Aramaioko talde feministak deituta, "lurra eta bizitza suntsitzen dituen sistemari alternatiba bat emateko asmoz" agroekofeminismo jardunaldiak egin zituzten udaberrian: martxoaren 4an eta apirilaren 14an. 36 emakume elkartu ziren Aramaion; besteak beste, adierazpen testu bat osatzea zuten helburu. Bada, argitaratu dute "lurra ez ezik bizitza ere suntsitzen duten proiektu txikitzaileen aurrean" duten posizioa.



Martxoaren 4ko jardunaldia. GOIENA

### Desazkundea

Laburpen testuan, desazkunde ekofeminista eta dekolonialaz dihardute. Landa eremua hiriaren zerbitzura jarri dela diote, eta diote "zoriontsu izateko gutxiago kontsumitu eta gutxiago ekoiztu" daitekeela. Konpondu, berrerabili eta partekatzea da sustatzen duten eredua, eta bertan kontsumitu eta ekoitzi nahi dutela gehitu dute adierazpen testuan. "Logika kapitalista, arrazista eta heteropatriarkaletik erauzi" beharra aldarrikatu dute, "guztiok duintasunez bizi ahal izateko".

## Debekatuta dago sua egitea Arabako landa eremuetan

Arabako Lurralde Historikoko zenbait tokitan debekatu egin dute sua egitea. Horien artean daude Aramaioko Mariseka eta Andramari guneak. 219/2023 Foru Aginduaren arabera, ezingo da surik egin: edozein motatako landa eremuetan; mendi publiko zein pribatuetan; naturagune babestuetan; probintziako edo tokiko aisialdirako parkeetan –barbakoa egonkor edo mugikorretan–; Andramarin eta Marisekan horretarako prestatuta dauden tokietan ere debekatuta egongo da sua egitea; eta baita errepideetako atseden-guneetan ere.

Sua egiteko debekua urte osorako izango da. Arau-hausteak Mendien Foru Arauaren 69. artikuluan xedatutakoaren arabera zigortuko dituzte, baita mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legean xedatutakoaren arabera ere.

## Abuztuan ordutegi murrizketa izango du anbulatorioak

Osakidetzak ordutegi murrizketak egingo ditu anbulatorioetan. Aramaiokoak betiko ordutegia izango du uztailean: 08:00etatik 15:00etara. Abuztuan, aldiz, 1etik 25era, astelehenetan, eguaztenetan eta egubakoitzetan 11:30etik 15:00era egongo da zabalik eta martitzen eta eguenetan, aldiz, 08:00etatik 12:00etara eskainiko du zerbitzua.



Anbulatorioa. GOIENA





Fermin Etxebarria eta familiartekoak sanferminetan. GARAZI ERIZ

# Zapi gorria lepoan, ametsei bide ematen

Gerriko gorria eta zapi gorria soinean dituela ibili da egunotan Fermin Etxebarria –95 urte–. San Fermin egunekoa jaiotzez, sanfermin jaiak bizitzeko ametsa bete du aramaioarrak; familiarekin eta lagunekin izan da Iruñean jaiez gozatzen

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO

Bizitzari zukua ateratzen dion horietakoa da Fermin Etxebarria. Uztailaren 7an 95 urte bete zituen, San Fermin egunez. Eta, bizitzan behin ez bada ere, San Fermin jaiez gozatzeko ametsa zuen, Iruñera joan eta San Fermin jaiak bertatik bertara bizitzea. Bada, behin bakarrik ez, birritan izan da Iruñean asteon.

Pozik dago, eta esan du gehien gustatu zaiona zezen-plazako giroa izan dela. Giro polita zegoela dio; hala ere, estualdia pasa zuela horrenbeste jende bigantxen aurrean plazan ikusita. Kaleko giroa ere gustatu zitzaion, eta bazkalostean familia artean izan zuten giroa... "Asko disfrutatu" zuela dio Etxebarriak.

### Zapia eta gerrikoa

Zapatuan, uztailaren 8an, joan ziren Iruñera Fermin Etxebarria eta familiako beste hamar kide. "Aspaldi esana zuen haren ametsa sanferminetara joatea zela; baina, orain dela hilabete batzuk, *Herri txiki, Infernu handi* telebista saioan publikoki esan zuen, eta familian pentsatu genuen aurten bai, egin behar genuela", azaldu du Etxebarriaren familiartekoa Garazi Erizek –Etxebarriaren ilobaren alaba da–.

Zapatuan 04:00retan elkartu ziren Aramaion eta Iruñera abiatu ziren. 06:00etan plazan zeuden, lekua hartuta. Entzierroaren amaiera ikusi zuten, eta baita ondoren egoten diren bigantxak ere. "Bi ordu lehenagotik egon arren, izugarrizko giroa dago plazan: musika bandak, txarangak...", dio Erizek.

Zezen-plazatik irten ondoren, Iruñean hain ezaguna den *el almuercico* egin zuten ondoko taberna batean. "Pintxoa, kafea... hartu genuen, 09:30 inguruan; egia esan, zorte handia izan genuen. Zezen-plaza ondoko taberna batean topatu genuen lekua", dio.

### Entzierroaren ibilbidea

Behin tripa ondo beteta, Iruñeko kaletan ibili ziren, eta egin beharrekoa den entzierroaren ibilbidea ere ikusi zuten: Estafeta kalea, Mercaderes, udaletxeko plaza eta Santo Domingoko aldapa. "Santua ikustera ere joan ginen", gehitu du Erizek.

Iruñeko giroa ikusteko aukera izan zuten; kaleetan barrena ibili ziren eta jaiez gozatu zuten. Goiza han pasatu ostean, bazkaltzera Araiara joan ziren: "Gurekin etorri zen herriko lagun bat, akordeoia jotzen duena, eta bazkalostean *Zorionak* abestia kantatu genion".

### Pozik eta eskertuta

Familiartekoek nabarmendu dute Etxebarriak gozatu egin zuela. "Eskertuta zegoen haren ametsa bete zuelako", dio Erizek. Eriz bera ere eskertuta dago osabaren ametsari esker hark Iruñeko jaiak ezagutu dituelako: "Ez zait jendetza gustatzen, baina oso ondo pasatu nuen zapatuan".

Etxebarriarendako zapatuko jaia lehenengoa izan zen, baina ez azkena. Izan ere, eguaztenean, uztailaren 12an, berriro ere joan zen Iruñera. Lagunekin elkartu zen Aramaion; Iruñean zezenak ikusten egon ziren ukuiluan, eta, bazkaldu ondoren, zezenketa ikustera joan ziren Iruñeko zezen-plazara.

95 urte beteta ditu, baina sasoi betean dagoela erakutsi du, beste behin, Etxebarriak; eta 2024an ere ondo egonez gero eta osasunak lagunduz gero San Fermin jaiez gozatzeko asmoa erakutsi du aramaioarrak.

### Familiaren babesa

Arraga auzoan bizi da Etxebarria; bederatzi anai-arrebatik zaharrena da –egun, lau geratzen dira bizirik–. Iloben eta gertukoen babesa izan du beti Etxebarriak. Horren adibide da 2018ko uztailean iloben partetik jaso zuen oparia: Aramaio eta inguruak abioneta batetik ikusteko aukera. Anaia gazteenarekin, Fernandorekin, igo zen abionetara esperientzia polit eta berezi hori bizitzeko.

Erizek dio osaba osasuntsu dagoela, eta eurak ere pozik daudela haren ametsak bete dituela ikusita. Hala ere, barrez dio: "Ez dezala esan Annapurna edo Everest igo nahi dituela!".

Jarrai dezala urteak betetzen eta amesten, ametsak betetzeko daude eta.

**EGUAZTENEAN LAGUNEKIN EGON ZEN IRUÑEAN: BAZKALDU ETA ZEZENKETA IKUSTERA JOAN ZEN**

# Santa Marina jaiak ospatuko dituzte Arexolan eta Arriolan

Auzoko bertso-afaria izango dute gaur Iker Zubeldiarekin, Peru Abarrategirekin eta Xabi Igoarekin

**A.E.G.** ARAMAIO

Santa Marina jaiak ospatuko dituzte gaur hasi eta domekara arte Arriolako eta Arexolako auzotarrek. Gaur, barikua, etxafuego eta kanpai errepikarekin hasiko dituzte jaiak, 20:00etan.

Ondoren, auzo bertso-afaria izango dute Iker Zubeldia, Peru Abarrategi eta Xabi Igoa bertsolariekin.

Zapatua mezarekin hasiko dute, 12:00etan. 13:00etan, bizikleta lasterketa izango dute Ibarratik Arexolara. 17:00etan, kanpai jotze erakustaldia egingo dute. 17:15ean mus eta briska txapelketak jokatuko dituzte plazan; izena eman beharko da 17:00etatik 17:15era bitartean. 18:00etan kalejira egingo dute Arexolatik Arriolara. Eta 21:00etan erromeria eta parrillada plazan.

Domekan, 12:00etan, meza nagusia esango dute Aramaioko abesbatzarekin, eta, ondoren, kantu saioa egingo dute. 18:00etan umeendako jolasak izango dira.

# Ullibarriarana lehen postuan

Salzedoko Ibaia tiro-eremuan Hobi Unibertsaleko Arabako Txapelketa jokatu zuten zapatuan. Lehia 50 platerera izan zen, eta Kurtzeta Gain elkartekoen emaitzak izan ziren: Enrike Ullibarriarana lehenengo eta Juan Luis Nafarrate bigarren, beteranoen kategorian; laugarren mailakoen kategorian Iker Jauregi bigarren sailkatu zen eta Luis Mari Jauregi, hirugarren.



J.L. NAFARRATE

# Zuzendaritza berritua, proiektuekin jarraitzeko

Datorren denboraldiaren berri eman die UDAk bazkideei: Arizmendi kirol elkartearekin batera emakumezkoen lau talde sortuko ditu, EKKO proiektuari jarraipena emango dio eta 'Joko OK' ekimena lantzen hasita dago Realarekin batera

**Mirari Altube** ARETXABALETA
Kirola esparru guztietara zabaltzeko helburua betetzen jarraitu gura du Aretxabaleta kirol elkarteak, baita aurrez aurre duen 2023-2024ko denboraldian ere. Honela adierazi zuen Agurtzane Elkoro presidenteak joan den egubakoitzean egindako batzar orokorrean: "671 neska-mutikok jardun dute UDArekin azken denboraldian; asko da gero! Pozik gaude datuekin, eta hori indartzen jarraituko dugu". Bazkidetzak ez du igoerarik izango, baina oinarrizko futbolean diharduten jokalariei kuota igoko diete.



Zuzendaritza batzordeko hainbat kide batzar orokorrean. MIRARI ALTUBE

**Zuzendaritza batzorde berritua**
Zuzendaritza batzordea berritu egin dute, eta hamabost laguneko taldea osatu. Plan estrategikoan zehaztutakoari jarraipena emango diote haiek, Elkororen hitzetan: "Puntuen artean daude: kirola –zenbat eta kirol gehiago, osasun hobea–; komunitatea; herrigintza; lehiakortasuna; euskara; eta emakumea". Horiek bideratzeko ardurak banatu dituzte lantaldekoen artean.

**Emakumeen kirola**
Emakumeen kirolerako grina sustatzen jarraitu gura dute. "16 urterekin askok utzi egiten diote kirola egiteari, eta hori desastre hutsa da. Diziplina guztietan gertatzen da, gainera", adierazi du Elkorok. Hala, Arizmendi kirol elkartearekin batera lau futbol talde eratuko dituzte: seniorrak –Aloña Mendi ere parte dela–, infantilak, alebinak eta futbol eskola.

Beste berritasun bat da Aratz elkarteko lagunek lekua izango dutela Ibarra futbol zelaian: "Espazio bat utziko diegu, eta begirale bat jarri". Dena den, oraindik garatzeko daudela nondik norakoak onartu du. Era berean, nabarmendu du pertsona bakoitza bakarra dela: "Lehiakortasunari garrantzia emango diogu horren barruan".

**'Joko OK' eta EKKO proiektuak**
Azken denboraldian futbol zelaian izandako "jarrera arazoak" ere kezka handia eragin dio Elkorori. Kontu hori dela-eta, hain zuzen ere, Gazteen Euskal Ligan diharduen taldeak lehenengo partidua ezingo du etxean jokatu, zigortuta dagoelako. Arazo horri heldu nahi izan diote, eta dagoeneko hasita daudela lanean adierazi du: "Horretarako beste proiektu batean sartu gara: *Joko OK*. Eta Realarekin batera dihardugu. Arazoak diodanean, orokorrean ulertu behar da: zaleen jarrera, *bullying*-a..."

San Juan de Dios ospitalearekin, ikastetxeekin eta Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalekin elkarlanean abian jarritako EKKO –Eskola, Komunitatea, Kirola, Osasuna– proiektuari, bestalde, jarraipena emango diote: "Olinpiadak egingo dira eta *inklusioa/ilusioa* ekimena ere etorriko da berriro, gurasoendako hainbat hitzaldirekin".

## Zuzendaritza batzordea

- **Agurtzane Elkoro**.
- **Amaia Gastañaga I**dazkaria eta ekintzak eta proiektuak.
- **Iker Urkia** Herrigintza.
- **Ander Hernandez** Erakundeekin harremanak: Udala, Reala…
- **Nerea Olmedo** Diruzaina.
- **Jose Ramon Gordoa** *Merchandising*-a.
- **Mario Unanue** Taberna.
- **Ekaitz Aramendi** Futbol eskola.
- **Jose Luis Uribarren** eta **Iñaki Gonzalez** Pilota.
- **Joseba Arana** Seniorrak.
- **Gorka Arrese** Oinarrizko futbola.
- **Jon Zubillaga** Babesletzak.
- **Oier Zumarraga** Komunikazioa.
- **Julen Ezeiza**.


GOIENA

## "Jarrera arazoak kezka eragiten dit"

**AGURTZANE ELKORO**
ZUZENDARITZAKO KIDEA

Zortzi urte egin ditu presidente karguan.
**Zuzendaritzan jarraitzen duzu.**
Bai; Julen Ezeizak eta biok jarraitu egingo dugu aldi batean, berriei transmititzeko orain arte egindako lana.
**Azken denboraldiarekin gustura?**
Helburu gehienak bete ditugu. Instalazio onak ditugu, kirolari mordoa, erakundeekin harreman ezin hobeak, eta emaitzekin pozik nago; gure baliabideak kontuan hartuta onak izan dira. Baina guztia ez da izan polita.
**Zein arantza geratu zaizu?**
Futbol-zelaiko jarrera arazoak kezkatzen nau; barruak astintzen dizkit. Eta hasi gara horren bueltako lanketa egiten Realarekin batera.

## Trapu Zaharra, barre eragile

*¡Dale, Ramón!* ikuskizunak herritarren barreak eragin zituen eguazten iluntzean Durana kalean. Trapu Zaharraren bisitak ez du hutsik egiten uda partean, eta aurten ere bete egin zen ingurua. Santi Ugalde aktore ezagunaren gorabeherak gertutik jarraitu zituzten ikusleek, eta haren laguntzaile lanetan ere jardun zuen batek edo bestek.


M.A.

## Dirulaguntzak eskatzeko deialdia jarri du abian Udalak

Hainbat arlotako proiektuentzat laguntzak iragarri ditu Udalak: kirola eta kultura sustatzeko, euskararen erabilera bultzatzeko, garapen bidean dauden herrialdeetan lankidetzarako ekimen solidarioak gauzatzeko, enplegua sortzeko eta etxebizitzak alokatzeko. Udalaren webgunearen bidez egin behar dira eskaerak: *www.aretxabaleta.eus*.

## Bonuak erabiltzeko azken eguna uztailaren 21a da

Herritarrek 30 euro ordaindu eta Udalak 20 euro jarrita 50 euroko balioa duten bonuak atera zituen Aretxartek ekainean. Horiek erabiltzeko azken eguna uztailaren 21a izango dela gogorarazi gura izan du. Merkatarien elkarteko 40 establezimendu inguruk hartu dute parte ekimenean, eta horietan erabili beharko dituzte herritarrek.

# Jaietan murgilduta daude atzotik Portasolen

Txupina gaur iluntzean botako dute, festei hasiera ofizialki emateko; hori Ibarra kiroldegi aurrean kokatutako txosnagunean izango da, eta beste hainbat ekitaldi ere hantxe egingo dituzte: besteak beste, kontzertuak eta bazkaria

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Festa giroari ekin diote Portasol auzoan, eta gaur iluntzetik bete-betean sartuko dira jaietan, txupina bota ondoren.

18 urteko auzotar mordoxka bat sartu dira Jai Batzordera aurten, horiei beste "buelta bat eman eta indartu" nahian. Dena dela, trantsizio horretan aurreko antolakuntza taldeko kideren bat edo beste izan dute lagun. Horregatik, hainbat adinetako jendea elkartu izana "aberasgarria" izan da egitaraua zehazterakoan, antolatzaileen esanetan. "Auzoak merezi dituen jaiak antolatzen saiatu gara; azken urteetan indarra galtzen joan direla uste dugu eta horri buelta ematen saiatu gara", adierazi du Danel Gomezek. Gainera, inguruko herrietako jendea erakartzea helburu dutela aipatu du, auzoko kaleak "jendez lepo" ikusteko.

**Txosna, karparekin, Markolen**

Aurtengo jaien berritasunetako bat da txosnagunea; karpa handia izango du eta Ibarra kiroldegi pareko belardian egongo da. Askotariko kultura eskaintzen zein bestelako hainbat ekitaldiren topalekua izango da, kontzertuena eta azokarena, baina auzoko beste gune batzuetara ere iritsiko da jai giroa.

Egitarauari dagokionez, arrakasta izan ohi duten ekintzei eutsi egin diete. Biharko auzo-bazkarian, esaterako, 150 lagun elkartuko direlakoan daude. "Iaz, 130 bat izan ziren, eta hori gainditzea espero dugu", dio Josu Rodriguez antolatzaileak. Aretxabaletako sukaldariek, besteak beste, Joselu Gonzalezek, Jesus Mari Errastik, Iñaki Pratek eta Iñaki Uribetxebarriak gertatutako paella jango dute.

Norgehiagokak ere izango dira: patata-tortilla eta paella lehiaketak, mus txapelketa eta umeen lasterketak.

**Hainbat estilotako kontzertuak**

Garrantzi handia eman izan diete kontzertuei Portasolen, eta aurten ere halaxe da; askotariko estiloak entzungo dira txosnaguneko oholtzan. Gaur, egubakoitza, rock eta punk doinuak izango dira, eta horretarako gonbidatu dituzte gaztetxoek osatutako hiru talde: Laino Beltzak, Youth United eta Oihu!

Zapatuan, ostera, trapa eta rapa izango dira protagonista honako musikari hauen eskutik: Even OHC, Baken, Ekso eta Pxli 721, lehenengo; Denso, Mutiko eta Tatta, gero; eta bukatzeko, Etxepe. Eta zapatu arratsaldean, Bixentak taldea izango da dantzan eta kantuan egin gura duenarendako. Bestetik, pirotekniarekin jolas egiten duen Lekittoko Deabruak taldea itzuli egingo da, iaz izandako arrakastaren ondotik.

## Egitaraua

**Egubakoitza**
- **17:00** Gaiteroak, buruhandiak eta erraldoiak.
- **19:00** Patata tortilla txapelketa.
- **19:30** Txupinazoa.
- **21:30** Kontzertuak.
- **23:15** Lekittoko Debruak.
- **01:30** Mikel Night DJa.

**Zapatua**
- **11:00** Lasterketak Bizkaia kalean.
- **12:00** Puzgarriak.
- **15:00** Auzo-bazkaria eta bingo musikatua.
- **17:00** Mus txapelketa.
- **17:30** Bixentak taldea.
- **22:30** Kontzertuak.

**Domeka**
- **10:30** Bigarren eskuko liburu eta jostailuen azoka eta ur jolasak.
- **13:00** Paella lehiaketa.
- **19:00** Nagusiendako dantzaldia.
- **20:00** Omenaldiak.



Txosnagunea Markoleko belardian. MIRARI ALTUBE

**PUNK-ROCK DOINUAK ENTZUNGO DIRA GAUR TXOSNAGUNEAN; BIHAR, ZAPATUA, RAPA ETA TRAPA**

## Zortzi talde lehian kuadrillen arteko futbol txapelketan bihar

Berreskuratu egin du UDAk, lau urteren ondoren; egun osoan izango dira partiduak, eta finala, 19:00etan

**M.A.** ARETXABALETA

Eskoriatza, Aramaio eta Aretxabaletako zortzi taldek jardungo dute nor baino nor gehiago bihar, zapatua, Ibarra futbol zelaian, Debagoieneko kuadrillen arteko IX. zazpiko futbol txapelketan. Izena emandakoen taldeen artean honako hauek daude: Poteo, Power Rangers, Ezkutu Dance Club, Dionis FC, New Team, Atxurra Aramaixo, Lana eta Escorpions.

Egun osoko txapelketa izango da; 09:30ean ekingo diote eta talde guztiek jokatuko dute elkarren aurka. Finalaurrekoak 17:45ean izango dira eta finala 19:00etan hasiko da.

**Sariak irabazleei eta gehiagori**

Lehenengo hiru sailkatuek sari ekonomikoa izango dute: irabazleek, jasotako diruaren %60; txapeldunordeek, %30; eta hirugarrenek, %10. Horiez gain, norbanakoak ere sarituko dituzte herriko merkatariek emandako opariekin: atezain onena; gol gehien sartu dituen jokalaria; txapelketako jokalari onena; eta gehien animatzen duen taldea.

## GORA ETA BEHERA



### Txakurrari ilea moztu eta bidegorrian utzi

Herritar batek salatu du Deba ibai ertzeko pasealekuan eta inguruko berdegunean txakurren ileak daudela botata: "Baten batek ilea moztu izan dio eta gero bertan utzi".

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

## 'Kimera' ikuskizuna eskainiko dute eguaztenean plazan

La Banda Teatro Circo konpainiak *Kimera* lana aurkeztuko du Herriko Plazan uztailaren 19an, 19:00etan. Zirkuko jolasek, gorputz-adierazpenak eta antzerkiak bat eginda ikuskizun dibertigarria eta hunkigarria eskainiko dute Izaskun Lasarte, Txetxu Collado eta Nano Napal aktoreek. Uztailerako antolatutako azken kale-antzerkia da.

## Añube eta Orei taldeak uztailaren 20an Mitarte plazan

Aretxabaletako Orei eta Arrasateko Añube taldeak gonbidatu ditu Urbaltz tabernak Mitarte plaza girotzeko datorren eguen iluntzerako. Rock doinuak zein kanta lasaiak eskainiko dituzte biek ala biek, eta kontzertua 19:30 bueltan hasiko da. Hurrengo egunean, hilaren 21ean, ostera, Zerendepya taldeak hartuko du haien lekukoa.






ZeDemontren parte hartuko duten artistak. ESKORIATZAKO UDALA, ARIZMENDI IKASTOLA

# Haize freskoa Santa Marinan

Gaur, ostirala, ZeDemontre topaketa egingo dute, bigarren aldiz; oraingoan, Santa Marina plazan. Arizmendi Ikastolako batukada taldearen kalejiraren ostean, hiru sortzaile eskoriatzar izango dira protagonista nagusiak: bi bakarlari eta margolari bat

**Hasier Larrea** ESKORIATZA

Iaz estreinatu zen ZeDemontre topaketa artistikoa, Eskoriatzako Kultura Sailak sustatuta, herriko sortzaileek egiten duten lana ikusarazteko helburuarekin. Pizgarri bezala sariak jarri zituzten, eta aurten ere irabazleek diru-sarrera bat eramango dute etxera. Baina garrantzitsuena arratsalde goxo eta berezia pasatzea izango da, eta, horretarako, hainbat aldaketa egin dituzte iazko planteamenduarekin alderatuta. Hasteko, emanaldiak toki bakarrean izango dira, Santa Marina plazan, eta ez Herriko Plazan eta Zaldibar antzokian. Bestalde, sari banaketa egunean bertan egingo dute, hiru partaideen proposamenak ikusi eta entzun ondoren.

Nor bere aldetik bi bakarlari gazte animatu dira gitarra akustikoa jo eta abestera: Maddi Gabilondo eta Irati Etxebarrieta. 19:00etan ekingo dio lehenak eta 19:45ean bigarrenak. Haien ostean, Larraitz Iparragirre margolariak Eskoriatzako txalapartariekin batera egingo du pinturaz eta musikaz uztartutako emanaldia.

Baina topaketa irekiko dutenak Arizmendi Ikastolako batukada taldekoak izango dira. 18:30ean hasiko dira Akeita inguruan kalejiran, Santa Marinarako norabidea hartuta.

Iazko irabazlea Andoni Bengoa bakarlaria izan zen, eta, bitxikeria modura, aurtengo partaideetako batekin istorio polita partekatzen du. "Nire emanaldia hasi aurreko soinu-proban huts egin zidan gitarrak, eta Irati Etxebarrietari eskatu nion harena uzteko; gauzak zer diren: aurten hura animatuko da kantuak jotzera", azaldu du Bengoak.

**EMAKUMEAK IZANGO DIRA GAUR, 18:30EAN, HASIKO DEN EKITALDIKO PROTAGONISTAK**

### Herriko garagardo freskoa

Taberna faltan, Eskoriatzako Gerrigardo artisau markaren ekoizleek txosna txiki bat jarriko dute Santa Marinan, Errex garagardoa zerbitzatzeko. Aritz Oianguren da garagardogileetako bat, eta hauxe esan du: "Guretzat oso aukera polita da ZeDemontren salmenta-puntua jartzea. Orain arte, Ferixian saltzen genuen; eta orain, tabernetan hasi gara, konpetentzia handia dugula jakin arren. Hazten gabiltza; iaztik, Garagardogile Nomaden parte gara".

## Zer dela eta parte hartuko duzue eta zein izango da zuen eskaintza?



**IZASKUN ZUBIZARRETA**
ALMENEKO BATUKADA

"Eskoriatzako Udaletik deitu ziguten ea kalea girotzera animatuko ginen galdezka. Ferixian hala ibili ginen, eta gustatu egin zitzaien, antza. Batxilergoko lehen maila bukatu berri duten dozena bat ikasle inguruko taldea osatzen dugu, eta gehienok han izango gara. Musika eskolak ematen dizkiet, eta haiena izan zen taldea sortzeko ideia. Errekreoetan entseatzen genituen guk geuk sortutako erritmoak. Plastikozko bidoiak eta Burrunba batukada taldeak utzitako materiala dira gure musika tresnak".



**MADDI GABILONDO**
BAKARLARIA

"Antolatzaile batek animatu ninduen parte hartzera; izan ere, maiatzean hiru abestiko emanalditxoa egin nuen Aretxabaletan, ikas bidairako dirua lortzeko ekitaldian. Zapore onarekin geratu nintzen orduan, kontuan hartuta urte asko neramatzala abestu barik. Gitarra ere konfinamenduan hasi nintzen jotzen. Aurretik pianoa jotzen nuen, baina hobeto moldatzen naiz gitarrarekin; aitak jotzen jakiteak ere laguntzen dit. Zazpi bertsio joko ditut, denera; tartean, Izaroren pare bat eta Katamaloren bat".



**IRATI ETXEBARRIETA**
BAKARLARIA

"Argentinan egon naiz ikasten bost hilabetez, eta hona etortzerakoan belauneko lesioa izan nuen. Etxetik irten ezinak gitarra jotzearen zaletasuna berreskuratzera eraman nau. Ferixian Andoni Bengoak poltsa bat oparitu zidan iaz, ZeDemontren egin nion faboreagatik, eta okurritu zitzaidan aurten nik eman nezakeela izena. Euskarazko abestiak joko ditut gitarrarekin; batzuk nireak eta beste batzuk, *cover*-ak. Nire bizitzako alderdi ezberdinei buruz egiten ditut kantuak, eta Petti eta halako artistenak bertsionatu".



**LARRAITZ IPARRAGIRRE**
MARGOLARIA

"Iaz, plazako kontzertuan egon nintzen, eta gustatu egin zitzaidan formatua; lehiaketa baino gehiago, elkargune bat dela uste dut. Eskoriatzako txalaparta taldea izango dut aldamenean; poz-pozik daude, aspaldiko partez elkartu dira eta. Saio esperimentala izango da; haiek ttakuna jo bitartean, margolan abstraktu bat marraztuko dut mihise handi batean. Eñaut Zubizarretaren abestiak ere entzungo dira bozgorailutik. Hain zuzen, harekin egin nuen antzeko saio bat Urbaltzen maiatzean, katalanak etorri zirenean".

# Erretiratuek ekitaldi ugari dituzte aurretik

Olazar erretiratuen elkarteak 80 urtetik gorakoendako afaria egingo du uztailaren 20an, Donostiako su artifizialak ikusteko irteera abuztuaren 17an eta Kanaria Handira astebeteko bidaia urrian. Bestalde, batzordekide berriak behar dituztela aipatu dute

**Hasier Larrea** ESKORIATZA

580 bazkidek osatzen dute Olazar elkartea, "baina batzordean lau kide ibiltzen gara buru-belarri ekitaldiak antolatzen, onena hamar lagun inguruko taldea izango litzakeen arren", zehaztu du Jasone Orbegozok. Hala eta guztiz ere, hemendik eta udazkenera bitartean aisialdi ekintza dezente aterako dituzte aurrera.

Gertuen tokatzen dena Egokiena elkartean egingo duten 80 urtetik gorakoen doako afaria da; uztailaren 20an egingo dute, 19:00etan, eta bi egun lehenagora arte egongo da izena emateko aukera. Interesa duena jubilatu elkarteko bulegora bertaratu daiteke asteartean eta ostegunean, 11:00etatik 12:00etara.



Olazar elkartekoak, Greziara egindako bidaian. OLAZAR ERRETIRATUEN ELKARTEA

### Bidaia motzak eta luzeak

Hilaren 18an irekiko dute, bestalde, beste izen-emate bat; kasu horretan, Donostiako Aste Nagusiko suzko errubera ikusgarriez gozatzeko irteerarena. Abuztuaren 17rako egin dute hitzordua, autobusa 17:00etan irtengo da eta bazkide zein bazkide ez direnak joan daitezke, 15 eta 18 euroko prezioan, hurrenez hurren.

Kanaria Handira joateko plana ere martxan dute. Hotel batean urriaren 17tik 24rako zazpi gau pasatzeko eskaintza da, eta 860 eurogatik hegaldia, aseguruak eta egun osoko txangoak ere estalita daude. Orbegozok aipatu duenez, Olazarko 37 bazkidek eman dute izena, eta bazkide ez diren debagoiendarrek dute orain apuntatzeko aukera.

Iraileko egitaraua ere prestatzen hasiak dira, eta, aurreratu dutenez, LGTBIQ kolektiboko kideren bat gonbidatzeko asmoa dute solasaldia egiteko. Eta, ohi bezala, Udalak antolatzen duen nagusien omenaldia ere hilabete horretan egingo dute.

### Taberna zabaldu guran

Jakina denez, hilabeteak daramatzate erretiratuek taberna barik. Aste honetan batu dira jabegoa duen Udala eta Olazar elkartea, lizitazio berrirako pleguak adosteko. Orbegozok adierazi du sei hilabete inguruko prozesua izango dela, baina irailerako alokairuko kontratu motz baten bidez zabaltzeko asmoa dagoela, interesaturik agertuz gero: "Izan ere, taberna oso garrantzitsua da guretzat, eroso egoteko. Gaur egun, martitzenetan zabaltzen da, bingorako".

## Auzo-giroa sortzeko jaialdia zapatuan Partxis plazan

San Pedro eta Intxaurtxuetako bizilagun elkarteak udari ganorazko ongietorria egiteko eta auzotarrak elkartzeko festa antolatu du bihar iluntzerako. Partxis plazan egingo dituzte ekitaldiak. 20:00etan parrillada eginda emango diote hasiera egitarauari. Bi ordu geroago, 22:00etan, bingo lehiaketa jarriko dute martxan.

## Udalak eta Huhezik lankidetza-akordioa berritu dute

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eta Eskoriatzako Udalak lankidetza-hitzarmena sinatu dute, komunitatearekiko harremanak sendotzen jarraitzeko. Fakultateak Eskoriatzako campusean dituen eraikinen inguruko jabari publikoko eta herritarren erabilerako eremuen erabilera arautu dute horrela.

## Udal liburutegiak ordutegi berezia izango du udan

Jadanik martxan jarri dute ordutegi berria: uztailean, astelehenetik ostegunera, 10:30etik 13:00etara eta 16:15etik 20:00ra egongo da zabalik, eta ostiraletan, 10:00etatik 13:30era baino ez. Zapatuetan itxita egongo da. Uztailaren 31tik abuztuaren 27ra udal liburutegiko langileek oporrak hartuko dituzte, eta eraikina itxita egongo da.

# "Herri lasterketak antolatzea gero eta garestiago irteten da"

**JOSERRA AGIRREUREETA** DORLETA TXE-KO KIDEA

Domekako txirrindulari lasterketako kontuak aletu ditu

**H.L.** LEINTZ GATZAGA



Joserra Agirreurreta. E. AZURMENDI

Lehendakari txapelketako Dorletako Ama Saria jokatuko dute etzi Leintz Gatzagan, 09:30ean hasita. Hiru ordu inguru geroago helduko dira ziklistak herriko helmugara.

**Apiril aldean hasi zineten lasterketa antolatzen, afizionatu mailako probak kolokan zeudenean. Izan duzue zailtasunik?**

Motorren aseguruen polemikaren erdian hasi ginen, bai, eta arduratuta geunden, hainbat proba bertan behera geratu zirelako. Hasieran, eskatzen ziguten guri egitea aseguru-kontratuak. Azkenean, ohi baino 1.000 euro gehiago jarrita "konpondu" dugu kontua; izan ere, aurten motorrekin egon da arazoa, baina datorren urtean autoekin gauza bera gerta liteke. Badirudi enpresa profesionalak hasiko direla txirrindulari probak antolatzen. Herri txikiendako ez da albiste ona, diru gehiago jartzea ekarriko duelako, boluntarioaren figura galduta.

**Zenbat laguneko antolakuntza eskatzen du?**

Klubeko dozena erdi bat ibili gara lanean. Lasterketan 63 lagun baino gehiago egongo dira bidegurutzeetan bakarrik, eta herriguneetan hogei inguru.

**Zenbat txirrindulari espero dituzue?**

Hamabi taldetako 140-170 ziklista, ohi bezala. Tartean, Euskalduna sariketako txapelduna, Julen Arriolabengoa eskoriatzarra; berriki Murgiako lasterketa irabaztetik etorriko da. Aleka-aleka, badatoz ziklista onak. Ea Julenek ematen duen pausoa, halako lasterketak gora heltzeko aukerak emateko dira-eta, zaila izan arren. 2019an Dorletako Ama Sariko azkarrena izan zena, Oier Lazkano, oso ondo ari da profesionaletan; harreman estua daukagu harekin.

**Ibilbidea gogortzearen alde egin duzue aurten, 125 kilometrokoa.**

Bai; kilometrajean nahiko justu ibiltzen ginen, eta erabaki dugu Gatzagako mendatea bi aldiz igo beharrean hiru aldiz igotzea. Gurea mendiko proba da, serio hartzekoa. Pena handia ematen digu Arlabango errepidearen egoera tamalgarriak. Ziklistak hiru aldiz jaitsiko dira handik, eta pitzadurak dauden tokirik arriskutsuenetan kartel handiak jarriko ditugu ohartarazteko; pibote itxurako argi batzuk ere bai. Zatika ari dira konpontzen, eta orain geldi daude; aurrekontu faltagatik, antza.

**Sari banaketa berezia eta ezohikoa izango da, ezta?**

Urtero bezala, omenaldiak egingo ditugu, sari banaketan aipamenak eginaz. Iaz, Eskoriatzako moto-gidari laguntzaile bat oroitu genuen; eta aurten, Eugenio Otsoa eta Txomin Perurena omenduko ditugu. Eugenio Dorletako Amako kidea ere bazen, laguntzaile sutsua. Eta Txomin sarri etortzen zen antolatzen genituen ekitaldietara. Bestalde, aurten erabaki dugu aurrerantzean koparik ez banatzea, lakariak baizik. Egurrezko ontziak dira, kaxoi baten antzekoak, eta gatza pisatzeko erabiltzen zituzten. Artisau batek egin dizkigu. Ziklista eta talde irabazleari eta mendiko saridunari emango diegu lakari bana, dena gatzez beteta. Paris-Roubaix klasikoan adokina banatzen dute sari gisa, galtzada-harria; ba, guk, hemendik aurrera, lakaria.

**"HEMENDIK AURRERA, KOPEN ORDEZ, GATZEZ BETETAKO LAKARIAK BANATUKO DIZKIEGU IRABAZLEEI"**

# Etorkizunean herri-lurrak nola kudeatu zehaztera

Herri-lur ez-urbanizagarrien diagnostikoa egiten ari da Udala, Errez kooperatibako adituen eskutik, lursail bakoitzaren ezaugarri zehatzak jaso eta etorkizunean ze erabilera eman zehazteko; herriko lursailen %3 da Udalarena, baina lanketa berezia egin nahi dute

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA

Bergarako herri-lur ez-urbanizagarrien diagnostikoa egiteko lanetan ari da Udala. Martitzenerako, hilak 11, bilera irekia deitu zuten udaletxean eta 22 bat lagun bertaratu ziren. Helburua da Udalarenak diren lurren gaineko diagnostikoa egitea, aurrerago ekintza plan zehatza garatzeko.

Bilera irekiaren aurretik, ekainaren 27an, gaian inplikatuta dauden eragileekin ere elkartu ziren diagnosia egiteaz arduratuko den Errez kooperatibakoak; besteak beste, Deba Garaiako Landa Garapena, Pol-Poleko Mendia Bizirik elkartea, Hirumendi, Kukubaso eta Gipuzkoako Basozainen Elkartea –azken horiek dira lurjabeekin harremanetan daudenak–. Aurrerago, herriko auzo alkateekin ere egoteko asmoa dute; betiere, herri-lur ez-urbanizagarrien gaineko diagnostiko ahalik eta zehatzena izateko. Udalak espero du dokumentu hori urrirako amaituta izatea, dirulaguntza bati ere lotuta dago-eta proiektua.


Martitzenean udaletxean egindako bilera irekia. B.U.

**260 bat hektarea bakarrik**

Bergarako lursailen %3 bakarrik da Udalarena, 260 hektarea inguru. Bada, lursail horietara joango dira Errez kooperatibakoak, eremu horien ezaugarri nagusiak zehaztu eta bertan egin ahalko diren esku-hartzeak proposatzeko. Kukubaso elkartea da gaia gertutik jarraitzen ari den eragileetako bat, 2021eko maiatza ezkero hainbat ekintza egin dituena pixkanaka bertako basoa berreskuratzen joateko. "Hurrengo ikasturtera begira Udalean sortuko den Baso Mahaian itxaropena dugu jarrita, gure helburuak betetzen joateko bitarteko eraginkorra izango dela sinistuta gaudelako", adierazi du Kukubasoko presidente Ainhoa Agirrebeñak. Udaleko mahai berri hori irailean hasiko litzateke martxan, hain zuzen ere, Errez kooperatibakoek herri-lur ez-urbanizagarrien gaineko diagnostikoa amaitzear izango dutenean.

**UDALEAN BASO MAHAI BAT SORTUKO DUTE, ETA ESPERO DUTE IRAILEAN HASTEA MARTXAN**

## Herri-lurretan hasita daude lanean

Diagnostikoa egin aurretik ere, Udalak eta Kukubasok deitu dituzte zuhaitz landaketak Udalarenak diren lurretan. Adibide garbiena da Gorla inguruko Erreziñategi eremu zurituan otsailaren 25ean egin zen landaketa. 60 lagunen artean 1.090 zuhaitz landatu zituzten; Kukubasok inoiz deitu duen zuhaitz landaketa handiena izan zen hura.


Erreziñategin, Gorla inguruan, zuhaitz landaketa egin zuten otsailaren 25ean. E.A.

GOGOAN

# Xabier Labaien soinu teknikaria eta musikaria hil da asteon

Beti egon da Goiena laguntzeko prest; azken kolaborazioa, Danbakako kontzertuen osteko soinu-nahasketak egiten

**Goiena** BERGARA

Martitzenean, uztailak 11, Bergarako etxeko ohean hilda aurkitu zuten Xabier Labaien musikari eta soinu teknikari bergararra. Gaztetan, Seska taldean –besteak beste, Fran Iturbe eta Aitor Aranburureki n– edota Mikel Herzog musikariarekin aritutakoa; gerora, Eibarko Lisker taldean, plaza-talde bilakatu zenean. Teklatua jotzen zuen Lisker taldean.


Labaien, artxiboko irudi baten. GOIENA

**Beti Goienari laguntzeko gertu**

Soinu teknikaria ere bazen. Mikel Urdangarinen soinu teknikari; *Dana Lanbrotute ikustot* ikuskizunean; Taun Taun Txotxongilo taldearekin... Besteak beste, Gaztelupeko Hotsak Soraluzeko musika zigiluarendako edota *Ahotsak.eus* proiekturako lanean jardun zuen. Danbaka Musika Lehiaketako soinu teknikari ere bazen. Lehiaketaren bost edizioetan jardun zuen, baita 2022an abiatutako eta 2023ko urtarrilean amaitu zen Danbakaren bosgarren edizioan ere. "Danbaka musika lehiaketako kontzertu guztien soinu-nahasketa egin zuen Labaienek telebistan eman aurretik. Kontzertuko grabazioak pistaz pista jasotzen zituen eta ondoren editatu. Lau egunean lau talderen ordu erdiko materiala entregatzera etortzen zen Goienara Danbaka osteko eguaztenetan. Zelako fina! Ze maitasun musika-lanean!", adierazi du Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari Iban Arantzabalek asteon, *Etxebarri* blogean. Horrez gain, beste hainbat lan ere egin zituen Goienarendako. Lurrak goxo har zaitzala, Xabi! Eskerrik asko!


NIRE USTEZ

**JOANES PLAZAOLA**

# Itxaropen gabe igo

Badatoz –berriz ere– hauteskundeak eta badatozkigu esperantza saltzaileak beraien lurrin eta epikaz arazo guztien amaiera botoan dagoela esanez. Esperantza saltzaile izan behar saltzeko beste ezer gelditzen ez zaizunean, faxismoaren goranzko joeraren frenoa ere papertxo horren bueltan omen dago... Faxismoari, baina, ezin zaio bozka bidez aurre egin, faxismoa Vox eta Desokupatik harago doalako; eraso matxista, homofobo zein arrazisten gorakada eta hauek justifikatzen dituen diskurtso erreakzionarioak geroz eta onarpen handiagoa izatea horren adibide argiak dira, eta instituzio burgesen bidez dena alda daitekeen fartsa saldu nahi digutenak joera horren arduradun dira. Faxismoak berriz gain har ez dezan bozkatzeko esango digute, duela lau eta duela zortzi urte gisa. Eta faxismoa geroago eta gertuago dugu, geroago eta indartsuago alde guztietan. Sozialdemokraziarengan itxaropena izateko eskatzen digute, utz diezaiegula gure salbatzaile izaten, baina luzeegi dirau fartsak, argi dago faxismoari aurre egingo badiogu alternatiba erreal baten bidez izango dela, alternatiba sozialistaren eraikuntzaren bidez.



Arrasateko Errromintxelak jazz taldeak apirilaren 22an jo zuen Gorlako kantinan; bihar, berriz, punk doinuak izango dira nagusi. U.B.

# Zuzeneko musika ere bada kantinako menuan

Gorlan punk eta oi! doinuak izango dira nagusi bihar (17:00), bost talderen eskutik: El Volquete, Buru Gabe, Colapso, Laino Beltzak eta Hankaz Gora. Menu berezia prestatu dute bihar bertan bazkaltzeko; aldez aurretik deitu beharra dago izena emateko: 943 58 50 28

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA

Naturaz inguratutako Bergarako eremu berezienetako bat da Gorla, hainbat herritarrek urte osoan erabiltzen dutena. Hori bai, eguraldi onarekin batera izaten dira ohikoagoak Gorlarako irteerak, eta irteera horietan ohiko geldialditxoa izan ohi da kantina; bereziki, maiatzetik urrira bitartean.

**Pandemiak mesede kantinari**

Bada, Bergarako Udalaren deialdi publikoan izena eman eta Gorlako kantina kudeatzeko ardura hartu zuen Unai Barrena arrasatearrak; honako hau laugarren uda ari da izaten Barrenarentzat kantinako arduradun. Pandemia heldu baino pare bat hilabete lehenago hasi zen lanean, eta gogoan du negozio ikuspegitik hilabete haiek oso emankorrak izan zirela: "Pandemia hasieran, etxetik irteteko aukera genuenean, jende asko etortzen zen, baina, gero, murrizten joan zen pixkanaka. Iazko uda oso eskasa izan zen, eta horregatik erabaki nuen jendea erakartzeko ekitaldiak antolatzen hastea". Kontzertuak izan dira nagusiki, baina antolatu izan ditu, besteak beste, yoga eta biodantza saioak.

**Bost talde zuzenean bihar**

Biharko, uztailak 15, jaialdi berezia antolatu du Barrenak kantinan. Bost taldek joko dute, 17:00etan hasita: El Volquete, Buru Gabe, Colapso, Laino Beltzak eta Hankaz Gora. Han, bazkaritarako, menu bat hartzeko aukera egongo da, 22 eurotan; horretarako, baina, aldez aurretik deitu beharra dago, 943-58 50 28 telefono-zenbakira. "Oraingoz, bikote bat eta musikariak daude izena emanda, eta horrek esan nahi du gutxienez 20 lagun elkartuko garela. Badut ohitura tarteka kontzertuak antolatzeko ahalik eta jende gehien erakartzeko, baina zapatu honetara begira zerbait berezia egin nahi nuen, eta horregatik lotu nituen hiru talde. Kontzertua lotu eta gutxira, Hankaz Gora eta Laino Beltzak taldeak ere batu ziren, eta horrela geratu da bost taldeko jaialdia. Uste dut egun-pasa baterako plan ederra dela; gero, beti egongo da inguruko jaietara joateko aukera; Antzuolara, adibidez".

Musika estiloari dagokionez, punk-oi! eta punk-rock eta jarrera oldarkorra izango dira nagusi biharko jaialdian, baina aurretik ere beste hainbat estilotako taldeak eroan ditu Barrenak kantinako terrazara.

**Kantina, eguraldiaren menpe**

Orain arte antolatutako kontzertuen artean Danbaka musika lehiaketan parte hartu zuen Erromintxelak taldeak emandakoa azpimarratu du Barrenak: "Gorlako kantinan eguraldiaren menpe bizi gara, hein handi baten, eta Erromintxelaken kontzerturako ez zegoen eguraldirik onena hasieran. Eskerrak altxatu zuela eta kontzertua egin zela. Arrasateko taldeak giro ederra jarri zuen; pozik amaitu genuen". Txanponaren beste aldean, berriz, Orhi eta Islabat taldeak –bi horiek ere pasatu ziren Danbakatik– daude: "Pena izan zen, baina kontzertua atzeratu egin behar izan genuen eguraldiagatik; ea urrian-edo egiten dugun". Beste adibide bat: ekainaren 30erako Dei taldearen kontzertua lotu zuen Barrenak, eta, azken orduan eguraldiak okerrera egin ostean, kantina barruan jo zuten Aitzol Urkiza eta Iñigo Bravo mutrikuarrek; kontzertu ezin intimoagoa eskaini zuten.

**Sukaldea zabalik une oro**

Uztailean, abuztuan eta iraileko lehen astean martitzenetik domekara egongo da zabalik Gorlako kantina, 11:00etatik 20:00etara. Gainerako hilabeteetan asteburuetan bakarrik egongo da zabalik, eta baita jaiegun berezietan ere; abenduaren 26tik 31ra 11:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Kantina zabalik dagoen bitartean eskatu daiteke jatekoa, sukaldea martxan egoten da-eta kantina zabalik badago. Eta, eskaintzari dagokionez, badago non aukeratu: etxeko entsalada, plater konbinatuak, ogitartekoak, errazioak eta pintxoak dituzte, eta baita postre batzuk ere. Tragoa hartzeko, berriz, ardoen eta garagardoen karta txiki bat ere badute.

**UZTAILEAN, ABUZTUAN ETA IRAILEKO LEHEN ASTEAN 11:00ETATIK 20:00ETARA EGONGO DA ZABALIK KANTINA**

## Bandaren kontzertu bikoitza aste bukaeran ikasturtea borobiltzeko

Antzuolako jaietan joko dute bihar eta udal pilotalekuan etzi; kontzertuen aurretik kalejira egingo dute, 11:30ean

**J.B.L.** BERGARA

Antzuolako jaietan eta Santa Marina egunaren bueltan, bi kontzertu emango ditu bandak asteburuan. Bi egunetan 11:30ean hasiko dute kalejira eta kontzertua 12:30ean izango da; Antzuolakoa, Zurrategi plazako kioskoan eta Bergarakoa, udal pilotalekuan. Bietarako egitaraua bera prestatu du bandako zuzendari Enrike Txurrukak: Miguel Gonzalez Bastidaren *Marin* pasodoblea; Jose Franco Ribateren *Aires vascos* euskal doinuen lehen bilduma; Jan de Haan-en *Victory* kontzertuko obra distiratsua; John Powell-en *How to train your dragon* soinu bandaren suitea; The Police taldearen doinuekin Jay Dawson-ek moldatutako *The Police in concert* pop-rock bilduma; eta Tapia eta Leturiaren *Hik lan eta nik jai* abestia, Enrike Txurrukak moldatua. Kalejira Gabriel Allier-en *Saint Die* martxarekin egingo dute, aspaldiko ohiturari eutsiz.



Bergarako bandaren kontzertua, iazko Antzuolako jaietan. GOIENA


Panzip taldeko jokalariak Ipintzan; finala gaur da, 17:30ean.


Liga irabazteko lehiatuko den MFK taldea; finala, 18:30ean.


Koparen bila zelairatuko den HIS taldea; finala, 19:30ean.


QCS taldeko jokalariak Ipintzan; finala gaur jokatuko dute, 17:30ean.


Liga irabazteko finalista den Txinpartak taldea; finala, 18:30ean.


Kopako beste finalista, Sansigol taldea. ARGAZKIAK: ANDONI BRETAÑA

# Kuadrillarik onena izatea da sari handia pike sanoa oinarri duen txapelketan

Gaur jokatuko dira udako futbol txapelketako finalak Ipintza futbol zelaian; emakumezkoen finala (17:30), gizonezkoen ligakoa (18:30) eta gizonezkoen kopako finala (19:30). Aurten 21 talde izan dira, guztira, eta antolakuntza pozik dago ekimenaren aurtengo edizioarekin

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA
Herrian errotuta dagoen ekimena da ekaina eta uztaila artean Ipintzan jokatzen den udako futbol txapelketa, bereziki herriko futbolzaleak baina baita kanpokoak ere erakartzen dituena. 2023ko edizioko final handiak gaur jokatuko dira, esandako moduan, Ipintza futbol zelaian: emakumezkoen finala Panzip eta QCS taldeek jokatuko dute (17:30); gizonezkoen ligako finalerako MFK eta Txinpartak taldeak sailkatu dira (18:30) eta gizonezkoen arteko kopako finala HIS eta Sansigol taldeen artean erabakiko da (19:30).

Ondoren, hainbat sari banatuko dituzte: hiru kategorietan txapeldunak eta txapeldunordeak eroango dute garaikurra, eta emakumezkoetan zein gizonezkoetan –liga eta kopa ez dira bereziituko kasu honetan– jokalari onenek, atezain onenek eta golegile finenek ere jasoko dute saria. Gainera, gaurko finaletara joaten diren ikusleen artean oparitxo batzuk banatzeko zozketa ere egingo dute.

## Emakumezkoen txapelketa

Txapelketaren antolakuntzan buru-belarri dihardaen Andoni Bretañak gogora ekarri du herriko kuadrillak direla aspaldiko txapelketa horren oinarria: "Futbolaz harago, herriko kuadrillen arteko pike sanoa eragiten du txapelketak. Badaude jokalariak Elgoibartik, Beasaindik, Ordiziatik, Zarauztik, Tolosatik edota Gasteiztik datozenak, baina, batez ere, Bergarako kuadrillak dira protagonista. Kuadrillak dira oinarria, baina kanpoko jokalariek ere txapelketa horretan parte hartzea ederra da; eurak ere udako txapelketaren parte dira, eskertuta gaude etortzen direlako".

Emakumezkoen zortziko futbol txapelketa antolatzea lortu dute aurten: "Azken bi urteetan saiatu gara antolatzen eta aurten lortu dugu, gure asmoa delako emakumezkoek eta beteranoek ere parte hartu ahal izatea; tamalez, ez dugu lortu beteranoena ateratzea, baina neskena lortu dugu, eta pozik gaude horregatik. Emakumezko bost talde izan dira aurten; ea hurrengo urtean talde gehiago animatzen diren".

## Ekimenarekin pozik orain arte

Gaurkoa ekimena borobiltzeko eguna izango da. Izan ere, Bretañak aurtengo edizioaren balorazio positiboa egin du: "Emakumezkoen txapelketa atera dugu, behingoz, eta ea mantentzeko gai garen. Gizonezkoetan hamasei talde izan dira aurten, iaz baino bi gutxiago, baina pozik gaude".

## Babesleak lortu dituzte

Bestalde, Bretañak eskerrak eman nahi izan dizkie Udalari eta Bergara Kirol Elkarteari, haien "ezinbesteko laguntzagatik". Aurten, gainera, babesleak ere izan dituzte lehen aldiz, eta haiei esker on berezia bidali nahi izan die Bretañak: "Aurten lortu ditugu babesleak lehen aldiz; eskertzekoa da halako ekimen bat ahal duten heinean babestea". Honako enpresa hauek izan dira aurtengo babesleak: Ordesa, Miner Ardoak, Matxiategi SL, Embalan, Alga lurrindegia, Nº1 zapatila denda, Kayak taberna eta Exga Erreformak.

**"EDERRA DA KANPOKO JOKALARIAK IZATEA, BAINA KUADRILLAK DIRA GURE OINARRIA"**

ANDONI BRETAÑA, ANTOLAKUNTZA



Ezkerretik eskuinera, Andy Martin, Iker Piris eta Abdell B. Bop. IKER PIRIS & HIS DUAL ELECTRAS

# Musikari paristar eta tolosarren fusioa gauean

Uztailean egiten den Berumuga musika zikloaren bigarren kontzertua hartuko du Espoloiak gaur gauean; Iker Piris tolosarra bere talde His Dual Electras-ekin arituko da eta haiekin batera izango da oholtzan Nirek Mokar piano-jole paristarra

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA

Uztailean egiten den Berumugaren bigarren kontzertua izango da gaur gauean 22:00etan, eta euskal herritarrak eta frantziarrak izango ditu protagonista. Iker Piris & His Dual Electras hirukoteak girotuko du Espoloia rhytm&blues eta boogie doinuekin. Taldekide ditu gitarra-jole, abeslari, konpositore eta hainbat taldetako liderra den tolosarrak Abdell B. Bop kontrabaxu jotzailea eta Andy Martin bateria, eta kaleratu duten *Electra* diskoa aurkeztuko dute Bergaran. Gainera, gonbidatu bereziarekin arituko dira oholtzan, hain zuzen ere, Nirek Mokar piano jotzaile paristarra izango baitute alboan. Piris eta Mokar Debagoienean emanaldia elkarrekin eskainitakoak dira; otsailean, Aretxabaletako Arkupe kultura etxean jo zuten.

**Lehen aldiz Berumugan**

Iker Pirisek lehen aldia izango du Bergarako Udalak eta Gaztelupeko Hotsak-ek antolatzen duten musika zikloan. Arrasate Irratiak Bergarako musika ziklo horri eskainitako podcastean Gaztelupeko Hotsakeko kide eta jaialdiaren antolatzaile den Ubane Uzinek kontatu du beste urte batzuetan gonbidatu dutela tolosarra, baina, beste hitzordu batzuk medio, ezezkoa jasotzen zutela: "Harekin egon ginen azkenekoan baietz esan zigun eta data jarri genuen. Gero, handik tarte batera esan zigun Nirek Mokarrekin etorriko zela". Gaur egun kolaborazioak egitea "oso modan" dagoela azaldu du Uzinek, baina Pirisek "aspaldi" deskubritu zuela lan egiteko modu hori.

Parisko piano jotzailearen ibilbidea goraipatu du Uzinek: "Oso aukera ona da pianista hori gertutik ikusteko. Sekulako ibilbidea du hogei urte inguruko gazteak. Ez dakit non amaituko duen, baina haren ibilbidea gorantz doa eta aukera ona da oraintxe ikusteko". Gainera, azpimarratu du Berumugan "askotan" gertatzen dela goia jotzeko bidean dauden musikariak etortzea.

Hilaren 21ean eta 28an, Galiziako Family Folks eta Kataluniako Sweet Marta & Johnny Bigstone taldeek joko dute Espoloian.




# Sei batzorde izango dira aurrerantzean Udalean

Ingurumena, Hirigintza, Euskara, Sormena, Ongizatea eta Ogasuna batzordeak hasiko dira martxan. EH Bilduk arduradunak zehaztuta ditu, eta EAJk ere parte hartuko du, ordezkariak izendatzeko dituen arren. Horrez gain, soldatek eztabaida piztu dute

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria** ANTZUOLA

Udaletako batzordeak eratzeko osoko bilkurak egiten dabiltza azken asteetan, ekainaren 17an herrietako udalbatzak osatu ondoren. Hilaren 6an egin zuten horretarako lehen osoko bilkura Antzuolan datozen lau urteetako udal ordezkariek, eta, aurreko agintaldiarekin alderatuz gero, badira berritasunak: lau batzorde izatetik sei izatera igaroko da Antzuolako Udala.

Lurraldea, Sormena, Ongizatea eta Ogasuna izan dira azken lau urteotan batzordeak, baina, orain, Euskara eta Ingurumena batu zaizkie aurrekoei, Olatz Lezeta Antzuolako alkateak nabarmendu baitzuen bereizita lantzeko bi gai direla. "Euskararen erabilera jaitsi egin da, eta garrantzia eman nahi diogu. Inportantea iruditzen zaigu bakarka lantzea". Orain arte, Sormen batzordean sartu izan da Euskara.

Horrez gain, Ingurumenak ere batzorde propioa izango du, Lurraldean landu baitituzte horrekin lotutako gaiak azken lau urteetan, Hirigintzarekin batera. "Baserritarren gaiak-eta bigarren plano batean gelditzen ziren, beste gai batzuek hartzen zuten lehentasuna; bakoitzari bere garrantzia eman behar zaio", nabarmendu zuen Lezetak, aitortuta batzorde guztiak martxan jarri ahala ikusiko dutela ea banaketa balizkoa den edo ez.



Uztailaren 6an egin zuten lehen osoko bilkura udalbatzako kideek. A.R.K.

**Arduradunak, zehaztuta**

Hilabetean behin egingo dira batzordeetako batzarrak, Ingurumenarena izan ezik, bi hilabetean behin elkartuko dira-eta gai horiek lantzeko, aldaketarik izan ezean. Hain justu, Juan Kruz Lizarralde EH Bilduko zinegotziak izango du horren ardura, eta gainontzeko batzordeetakoak ere banatu dituzte.

**INGURUMENA ETA EUSKARA DIRA BATZORDE BERRIAK, GAIAK BERARIAZ LANTZEKO ASMOZ**

**LEZETAK HIRU ORDUKO JARDUNA IZANGO DU, ETA OSOA IZANGO DA IGELTZENA, ALKATEORDEARENA**

Hirigintza eta Ogasun batzordeei dagokienez, Aritz Igeltzek izango du gidaritzaren jarduna; alkateordea ere hura da. Euskararena, berriz, Olatz Lezetaren ardurapean egongo da, eta Ongizatearena, Puri Arregirenean. Sormenean lau azpibatzorde osatuko dira: Kulturan, Amaia Azkarate; Hezkuntzan, Inma Beristain; Gazterian, Imanol Lizarralde; eta Kiroletan, Olatz Lezeta.

EAJko kideek ere batzordeetan parte hartzeko asmoa dutela adierazi zuen Josu Xabier Aranguren jeltzaleen bozeramaileak, baina oraindik ez dutela erabaki zein arituko den bakoitzean; sei batzorde izanik, aurreikuspenak aldatu beharko dituztela gaineratu zuen. Alabaina, sei batzorde osatzearen aldeko botoa eman zuten, EH Bilduko ordezkarienarekin batera.

**Soldatak eztabaidagai**

Sei batzorde sortzearen alde daude guztiak, baina soldatek eztabaida piztu zuten.

Lezetak hiru orduko jarduna izango du, urtean 21.500 euroko soldata gordinarekin. Igeltz, berriz, zortzi ordura arituko da, 54.134 euroko soldatarekin. "Biziki harritu gaitu soldata aurreko alkatetzarekin alderatuta 10.000 euro igotzea", azaldu zuen Arangurenek. Are gehiago, galdetu zuen ea zergatik dauden bi pertsona gidaritzan, eta Lezetak erantzun zuen herriarengatik hartutako erabakia dela. "Uste dugu inportantea dela ardurak bi pertsonaren artean banatzea; gauza gehiago egongo dira". Soldatei dagokienez, berriz, argudiatu zuen Antzuolako EH Bilduk aurreko agintaldiko irizpideak jarraitu dituela: "Beti aurretik datozen soldatak mantentzea".

## Errekaldeko lanak irailean hasiko dira

Errekalde auzoko urbanizazio eta irisgarritasun lanak ere hizpide izan zituzten. Aurreko udalbatzak martxoan eginiko osoko bilkuran onartu zuen proiektua, eta lehiaketara atera zen orduan, pleguak idatzi, onartu eta publikatuta. Eraikuntza-enpresek eskaintza egitea zen hurrengo urratsa, eta bik egin dute. Azkenean, Morga enpresari esleitu zaizkio lanak, egungo udalbatzako ordezkari guztien aldeko botoa jasota.

Kontratua sinatzeko dago, baina Aritz Igeltz Antzuolako alkateordeak jakinarazi du enpresako arduradunekin hitz egin dutela eta irailaren 15ean hastekoak direla lanekin; aurreikuspenen arabera, urtarrilaren amaieran bukatuko lirateke.

**Egin beharrekoak**

Era horretan, biribilgune moduko bat egingo dute errepide nagusiaren albo bietan, eta Lazaretoa eraitsiko dute, aparkalekuak jartzeko. Ordea, Basilio Ormazabal EAJko kideak kezka adierazi du ea zer egin behar den Lazareto atzean dagoen materialarekin. EH Bilduko ordezkariek erantzun dute gaia aztertuko dutela.

# Landatxopek Ana Maria Davila eta Eloy Sanchez omendu ditu

Jubilatuen bazkarian urtero egiten duten omenaldia da, parte hartzen duten andre eta gizon bana omenduz

**A.R.K.** ANTZUOLA

Joan den domekan, uztailaren 9an, egin zuten jubilatuen bazkaria Antzuolako herri eskolako barruko patioan, Landatxope elkarteak antolatuta. Dozenaka lagun batu ziren giro onean, eta, ohi den legez, bi herritar omendu zituzten, aurtengo jaietako zapi berdea jarrita, Joxe Anjel Arbulu elkarteko lehendakariaren eskutik.

Bazkarian parte hartzen duten emakumezko eta gizonezko bana izaten dira, normalean, omendutako biak, eta horrela izan da aurten ere. 89 eta 90 urte dituzten Ana Maria Davilak eta Eloy Sanchezek jaso zuten omenaldia, hurrenez hurren. Eta, ospatzeko, dantza lotua egin zuten elkarrekin, bertaratutako beste zenbait herritarren begiradapean.

Edozelan ere, ez ziren baztерrean gelditu gainontzeko jubilatuak, aise animatu baitziren plazara, trikiti eta panderoaren soinupera.



Ana Maria Davila eta Eloy Sanchez, Jose Anjel Arbulurekin. A.R.K.

ANTZUOLAKO JAIAK 2023



Antzuolako jaien hasiera. GOIENA

# Umoretsu hasi dituzte Antzuolako jaiak

Atzo lehertu zen festa Antzuolan, eta antzuolarrek hiru egun dituzte aurretik gozatzen jarraitzeko. Domekako hontzaren igoera baino lehen, gustu eta adin tarte askotarikoentzako proposamenak egongo dira. Gaur, Udalak antolatutako bazkaria

**Mikel Zumalde Etxabe** ANTZUOLA

Antzuolarrak jaietan murgilduta daude, eta hasi besterik ez da egin. Hala, jaietako bigarren egunean gazteak izango dira benetako protagonistak. Etxeko txikienek jolas parkea izango dute goizez zein arratsaldez; tartean, bazkaria izango da Kalebarrenen. Horrez gain, gaur izango dira kuadrillen artean arrakasta izaten duten kuadrillen arteko jokoak (18:00). Jaietako bigarren eguna borobiltzeko ardura Sukar –Liskerren ordez– taldearena izango da.

Seguru aski, biharko eguna izango da jaietako egunik jendetsuena, zapatua. 10:00 aldera, beti bezala, dianak esnatuko du herria, eta, ondoren, Bergarako Musika Bandaren kalejira egongo da. Kalejiraren ondoren, 12:30ean, Enrike Txurrukaren gidaritzapean kontzertua eskainiko du Bergarako Musika Bandak Zurrategin.

**Mairu berria**

Zapatu arratsaldean etorriko da jaietako hitzordu garrantzitsuenetako bat: alardea. Aurten, Zishan Tariq antzuolarra izango da Antzuolako Alardearen mairua. Juan Carlos Gomezen lekukoa hartuko du, bere burua propio horretarako aurkeztu ondoren. Hau esan zion orain dela hilabete GOIENAri: "Lagun batek esan zidan mairua falta zela, eta apuntatzeko. Eta animatu egin nintzen". Gauean, hiru hamarkada antzuolarrak gozarazten daraman Arabako Joselu Anaiak taldearen kontzertua izango da Herriko Plazan (22:45).

Azken egunean ere egongo da non gozatu, hilaren 16an. 12:30ean, Tierra De Mis Amores mariatxi taldeak ikuskizuna eskainiko du Herriko Plazan. Ondoren, jaiak borobiltzeko, Ez Dot Moztuko Bizarra taldeak antolatuta, herri bazkaria egingo da elizpean. Bazkalostea girotzeko ardura Garazi Barrenak eta Asier Salak izango dute. Gauean, hontzaren igoerarekin amaituko dira 2023ko Antzuolako jaiak.



Jai Batzordeko kideak txosnagunea muntatzen. AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ

## Txosnagunean, kontzertu gehiago

Azken urteetan baino kontzertu gehiago izango dira aurten txosnagunean. Atzo ireki zuten, arratsaldeko zazpietan, eta hiru egunez askotariko musika estiloez gozatzeko aukera egongo da. Atzo, Xugux taldeak eskaini zuen kontzertua, eta, ostean, Janire Garitanok eta Irati Lizarraldek jokoak eta zumba saioa eskaini zizkieten han batutakoei. Gaur, baina, talde gehiago izango dira txosnaguneko oholtza gainean: 21:30ean hasita, Rodeo, Trini Fox eta Letagin musika taldeak izango dira antzuolarrak gozarazten, eta, ondoren, Emaion erromeria-taldea igoko da oholtza gainera.

Seguraski, zapatua izango da egunik jendetsuena txosnagunean. Eta Jai Batzordea horren jakitun, egitarau mardula prestatu du jaien hirugarren egunerako. 22:00etan hasita, No Limits, Añube eta Eten taldeen kontzertuak egongo dira eta, ondoren, DJ Tintz-ek egingo du erakustaldia. Jaietako azkenengo eguna Skapaie elektrotxarangaren eskutik hasiko da, goizeko zazpietan, eta Elene eta Maddi izango dira jaiei amaiera emango dietenak, gauean, kontzertu akustikoa eginda.

**Bi berritasun nagusi**

Bi berritasun nagusi izango ditu aurten txosnaguneak. Azken urteetan ez bezala, Jai Batzordeak txosna bakarra izango du, baina aurreko urteetan izandakoa baino handiagoa izango da. Jai Batzordetik azaldu dute horrek antolakuntza hobea ekarriko duela. Horrez gain, azken urteetan txosnan lan egiteko eta bertan antolatzen diren ekimenetan laguntzeko prest egoten den jende kopurua jaitsi egin da. Beste berritasun nagusia ordaintzeko metodoa izango da. Ohikoena den diru metodoa alde batera utzi eta txartelak erabiliko dituzte txosnagunean, ordaintzeko elementu gisa. Txosnagune alboan izango da txartelak erosteko leihatila. Era berean, Jai Batzordeak aditzera eman du ez dela inolako erasorik onartuko Txosnagunean, ez eta inon.

ANTZUOLAKO JAIAK SAIO BEREZIA

GOIENA TELEBISTAN

UZTAILAREN 18AN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN

AITOR AGIRIANOK ETA OIHAN LOITIK AURKEZTUTAKO SAIOA

DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA

goiena Zu hemen zaude.



# Hiru emakume erresistente

Beste askoren moduan, historia ofizialak ez ditu aintzat hartu, baina, badaude lekukotza batzuk eta zailtasunak zailtasun, badago pista jarraitzerik. Ahalegin horretan ari dira Udal Artxiboan. Gaurko lehen protagonista Maria Angeles Telleria Arana da



EL CONCISO. N. 39.

LUNES 18 DE MARZO DE 1811.

CORTES.

*Memoria del Ministro de Hacienda.*

comision de Guerra: ,,que entienda solo de aquellos casos que no señala la ordenanza como delitos; de lo que se opone à los sentimientos de honor y delicadeza; y de la graduacion de los premios por acciones distinguidas.“ Aprueba lo demas del proyecto.

Empezó la discusion, y entre otros que hablaron, el Sr. Llamas dixo: que entendiese tambien este tribunal en la inmoralidad y vicio del juego en los exércitos.

*Patriotismo y heroicidad de una española.*

Ha llegado á Cadiz la Señora Doña Maria Angela de Telleria, de edad de 26 años, natural de Elgueta en Guipuzcoa.

Penetrada este digna española de los sentimientos de amor à la patria y odio al tirano, que simultaneamente manifestó toda la Nacion, estaba impaciente por tener ocasion de servir de algun modo, y à qualquier costa, à la mas justa de las causas, quando llegaron à Durango, donde ella residia, los prisioneros que nos hicieron (en Santander en Julio de 1809) y conducian á Francia. Hallàndose estos encerrados en un edificio donde debian pasar la noche, se presentò nuestra Española aparentando

1811ko martxoan *El conciso* aldizkarian argitaratutako artikulua. 'EL CONCISO'

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Asko dira Napoleonen armadaren aurkako Frantsesada (1808-1814) izeneko gerratean emakumeen parte-hartzearen berri ematen duten dokumentuak eta lekukotzak. Gutxi batzuk izan ezik, gehienak ahanzturan erori dira, eta horien artean da Maria Angeles Telleria Arana elgetarra. Izuziaga auzoko Eguren baserriko alaba gazteena, Telleria 1779an jaio zen, eta, garaiko kroniken arabera, Durangon bizi zen Napoleonen tropak herrian sartu zirenean.

### Ihesaldietan maisu

Frantsesek hainbat preso zituzten, eta, lekukotzen arabera, ihesaldi bat baino gehiago ahalbidetu zituen Telleriak. "Durangoko kartzelan sartu zen, emakumezkoen jantziak ezkutuan zituela, eta haiek erabiliz ofizial kargua zuten hiru presok ihes egitea lortu zuten. Beste batean, Durangoko zenbait etxebizitzatan jantziak eskatu ondoren, Telleria gizonez jantzi, kartzelan sartu eta beste zenbait presori alde egiten lagundu zien". Hori dago jasota Ormaiztegiko Zumalakarregi museoan. "Behin kanpoan, batzuei dirua banatu eta ihes egiteko biderik egokienak erakutsi zizkien, eta beste batzuk etxe seguruetara eraman zituen. Haren etxean gorde zuen ihesaldian hanka bat dislokatu zuen kapitain bat, eta han eduki zuen hilabeteetan, erabat sendatu zen arte", gaineratzen du Manolo Cainzosek idatzitako *Elgetarrak historian* liburuak.

"Frantsesen aurkako gerran gerlari ausarta eta adoretsua izan zen", azaltzen du Cainzosek. "Nik ere jarraitu diot pista, eta benetan liluragarria da emakume haren ausardia", adierazi du *Napoleón jamás subió Gazteluondo* liburuaren egile Jose Angel Barrutiabengoa arrasatearrak. Zoritxarrez, ez dago Telleriaren irudirik.

### Preso bi aldiz

Elgetarra atzemateko helburuarekin Bilboko gobernadore Avril jeneral frantsesak neurriak gogortu zituen eta preso egin zuten. Bilboko presondegian zegoela, bi urteko kartzela-zigorra ezarri zioten, eta torturatu egin zuten laguntzaileen izenak eman zitzan, baina ez zuen izenik eman. Ignacio Alonso *Cuevillas* gerlariak antolatutako ihesaldi batean egin zuen hanka Logroñora, baina berriro atxilotu zuten, frantsesek hiri hura ere mendean hartu zutenean. Gasteizen epaitu zuten eta heriotza-zigorra ezarri zioten. Thouvenot gobernadorearen aurrean esan omen zuen, euskaraz, ez zuela inolako kalterik egin anaiak askatzean, eta ahal zuen guztietan gauza bera egingo zuela.

Ordurako heroitzat hartuta zegoen, eta preso trukaketa baten bidez gelditu zen aske, 1811n; hamabost ofizial frantsesekin trukatu zuten. Cadiz aldera egin zuen orduan, eta, egindako lan heroikoa aintzatetsiz, hil arteko 4.000 errealeko pentsioa onartu zioten Cadizko Gorteek 1811ko martxoaren 30ean. Ezkondu eta sei seme-alaba izan zituen Telleriak. Huelvako Rosal de la Frontera izan zuen bizileku, eta han hil zen, 1864an. Hala, elgetarraren izena daraman kalea dute oraindik ere Rosal de la Frontera herrian.

**MARIA ANGELES TELLERIA IZENEKO KALE BAT DAGO ROSAL DE LA FRONTERA HERRIAN**

## Emakume erresistente gehiago

Telleria ez da bere idealen defentsan ausardiaz jokatu duen herriko emakume bakarra. Manolo Cainzosek, Txema Barrutiak eta Fernando Larrañagak Zoila Askasibar eta Isabel Beretxinaga ere nabarmendu dituzte. Berriki ikusi du argia Askasibarren ibilerak jasotzen dituen liburu batek. 1877an jaiotako elgetarrak 20 bat urterekin egin zuen Madrilera, eta 1923an haren izena daraman inprimategi bateko jabe moduan ageri da. Gas-eztanda batek suntsitu zuen inprimategia. Ez dago elgetarraren heriotzaren inguruko berririk. Salamancako dokumentazio-zentroan agertu den fitxa batek jasotzen du errepublikaren aldekoa zela eta agintari frankistek gertutik zaintzen zutela. Isabel Beretxinaga, berriz, Amuategi batailoiko gudaria izan zen 1936ko gerran. Elorrion zauritu zuen bonba batek. Egun gutxira hil zen, Bilboko ospitale batean.



Zoila Askasibar. A.M.



Isabel Beretxinaga. UDAL ARTXIBOA






Liburuak aztertzen. L.Z.L.

## Dokumentuak aztertzen jarraitzen dute

Udal Artxiboko boluntario taldeak aurkitutako informazioarekin osatu dira hiru emakume horien ibilerak. Dokumentuak aztertzen jarraitzen dute. Orain dela gutxi, baserri batean gordeta zeuden hainbat liburu heldu dira artxibora. Informazio berri ugari dago.

# Aisialdi parte-hartzailea, herriko udalekuen ardatz

Udalekuak hasi zirenetik hiru aste igaro dira eta dagoeneko ekintza mordoxka egin dituzte. Antolatzaileak egitaraua diseinatzen hasi aurretik, herriko gazteen ekarpenak jaso zituzten inkesta bidez, haiei moldatutako aisialdi programa eskaintzeko

**Oier Zumarraga** ELGETA

Udaren etorrerarekin batera, Elgetan udalekuei orain hiru aste ekin zieten. Guztira, lau aste iraungo dute, eta ehun bat umek eman dute izena. Aurtengo gaia *Itsasoa* da, eta zortzi hezitzailek dihardute udalekuen egunerokotasuna koordinatzen.

Momentura arte, ez du zorte handirik izan eguraldiarekin, baina horrek ez die eragotzi tankera askotariko ekintza eta txangoak egitea. Esaterako, apar festa atzeratu egin behar izan zuten eta ur putzuak egun bakar batean kokatu zituzten. Nerea Villa hezitzaileen koordinatzailearen hitzetan, udalekuak martxa onean doaz. Karramarroak arrantzatzera joan ziren eguna bereziki arrakastatsu bezala baloratu du koordinatzaileak: "Umeak oso pozik ibili ziren karramarro artean; uste genuena baino hobeto irten zen". Ohiko ur jolasei, herri kirolei eta apar festari, herriko eskolan egingo den gaubeila gehitu zaie.

**Gazteen ekarpenak**

Aurtengo berritasunetako bat Oinherriren aholkularitzarekin batera herri hezitzaileek diseinatutako prozesu parte-hartzailea izan da. Gazteei aisialdi pertsonalizatuagoa eskaintzera bideratutako egitasmoa da. Kepa de Vega Hezkuntza zinegotziak proiektu berri honen onurak nabarmendu ditu: "Funtsezkoa da gazteei ahotsa ematea; azken finean, haientzat dira udalekuak". Xedea jende berria erakartzea dela aitortu du, eta oso pozik azaldu da udalekuek orain arte emandakoarekin.

**PROZESU PARTE-HARTZAILEAREKIN, GAZTEEK EKARPENAK EGIN DITUZTE EGITARAUERAKO**



**Gaztetxoak arrainontzia apaintzen.** NEREA VILLA



**Udalekuetako mendi irteera.** NEREA VILLA



**Gazteak apar festaz gozatzen.** NEREA VILLA



'OPERACIÓN TRIUNFO'

## Unai Cantabrana, 'OT'-ko lehian

Eguaztenean Miribillan egindako casting saioan izan zen elgetarra, eta, bi kanporaketa gainditu ostean, lehian jarraitzen du. "Lehen kanporaketa oso zaila egin zitzaidan; oso-oso urduri nengoen. Bigarrena hobeto joan zen. 150 lagun helduko dira hurrengo kanporaketara. Hasiera batean, sailkatuta nago, baina irailean esango digute ziur", azaldu du elgetarrak.



ELGETAKO UDALA

## Olatz Perezena argazki onena

Elgetako Udalak antolatu duen 2023ko Ferixa Nagusiko jaien argazki lehiaketak badu irabazlea. Olatz Perezen argazkia izan da onena, epaimahaiak hala erabakita. Horrela, 100 euroko saria jaso eta datorren urteko jaien programako azala haren argazkia izango da. Guztira lau proposamen jasota, Udalak parte-hartzaileei esker ona adierazi die.

## Kantsatzeke taldeak Lekeitiora egingo du irteera domekan

Lekeitio aldera joko du Kantsatzeke mendi taldeak asteburu honetan. Barrualdean hasiko dute ibilaldia, lehorrean, baserri eta zelai artean; gero, Otoio aldeko artadira sartuko dira eta puntako bidean mendebaldeko itsasertza ikusteko aukera izango dute bertaratutakoek. Behin goian, Talaia aldera joko dute, eta handik, ekialdeko itsasertza bistan, beherako bideari jarraituko diote Santa Katalina itsasargiraino. Handik, kostan barrena, herrira iritsiko dira.

Taldea 08:00etan abiatuko da, herriko plazatik, eta prezioa 10 euro da. Adin txikikoek parte hartzeko baldintza bakarra da guraso edo nagusi baten ardurapean izatea. Antolatzaileek herritarrei dei egin diete anima daitezen. Izatez, martxotik abendura arte hilero antolatzen dute txango bat, baina abuztuan ez da inolako irteerarik egingo.



Usakon bainatzea debekatuta dagoela dioen kartela. IRINA ALVAREZ

# Emaitza txarren arrazoia jakin guran dabiltza

Ura analizatzeko hartutako azken laginek emaitza txarrak eman dituzte eta martitzenera arte debekatuta jarraituko du bainuak Usakon. Udalak Usakotik gora hartu ditu laginak, arazoaren iturria identifikatzeko eta balizko irtenbideak aztertzeko

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

Astelehenean, uztailak 10, hartu zituen azkenengoz laginak ur analisiak egiteko Osasun Sailak. Sail horrek gomendatutako tartetik gorako emaitzak eman dituzte lagin horiek –*E. coli* bakterio kontzentrazio altuak–, eta Usakon bainatzeko debekuak indarrean jarraitzen du. Osasun Sailak datorren astelehenean hartuko ditu lagin berriak, astelehenero moduan, eta emaitza horiek jakin arte, behintzat, 18ra arte, bainurako debekua mantendu egingo da.

### Errekan gorako neurketak

Duela hilabete hasi zen bainu denboraldi ofiziala Usakon, ekainaren 10ean, baina 13an bainua debekatu egin zuten, ur kalitatea neurtzeko analisien emaitzak txarrak zirelako, eta horrela jarraitzen du egoerak. Osasun adituekin kontrastatu du egoera Udalak, eta dio errekan gora dauden zenbait gunetan neurketak egiten hastea erabaki duela, "emaitzak okertzea eragingo lukeen gune zehatzik balego, identifikatu, horren eragileak zeintzuk liratekeen ikusi eta balizko irtenbideak aztertzeko". Uztailaren 6an egin zituen neurketa horiek. "Ez da gomendaturiko tartetik gorako emaitza duen gune jakin bat. Errekaren zati askotan errepikatzen den egoera da. Emaitzak esku artean, arazoaren iturriaren identifikaziorako bide berriak aztertu beharko dira. Irtenbideak bilatzen jarraituko du Udalak", azaldu du Saioa Arkonada Perezek, Udaleko Kirol batzordeburuak.

2021eko martxoa ezkero dago Usako Nayade erregistroan, eta horrek eskatzen du astero egitea uraren analisiak, laginak hartuta; emaitza horien arabera ematen edo debekatzen du bainurako baimena osasun publikoak. "COVID garaian, Usako moduko espazioak erabili ahal izateko baldintza zen Nayade erregistroan izena ematea eta horrek zekartzan neurriak hartzea. Horren alde egin zuen Udalak, uste izan baitzen Usako moduko espazioak lagungarri ziratekeela herritarrak bizitzen ari ziren egoera latza leuntzeko, betiere, osasun baldintza egokiak bermatuz. Eta halaxe izan zen", dio Arkonadak.

### Jende gutxiago

Debekua indarrean dagoenetik Usakon egoten diren sorosleek nabarmen igarri dute jende gutxiago joaten dela; are gutxiago, eguraldi eskasa egiten duenean. "Joaten direnek, baina, badakite ezin direla bainatu, eta asko ur ertzera arrimatu ere" ez direla egiten dio sorosleetako batek: "Etortzen diren gehienak goiko aldean gelditzen dira hasieratik eta ez dira behera jaitsi ere egiten. Goiko zelaian lagunekin egonda pasatzen dute arratsaldea. Dutxak erabilgarri daude, eta hor hartzen dute freskatua beharra dutenean". Hasierako astea gogorragoa izan zela aitortu du: "Hasierako egunetan lana izan genuen jendeari esaten ezin zela bainatu. Etortzen diren gehienak herritarrak dira, eta badakite ezin direla sartu".

**IGERILEKUAN IGARRI DA JENDE GEHIAGO JOATEN DELA ORAIN; HONDARTZARA ERE BADOAZ GAZTEAK**

Arratsalde osoan dago sorosle bat Usakon, 15:00etatik 21:00etara; 16:00etatik 20:00etarara, errefortzuko beste bat. Orain, baina, errefortzuko hori igerilekura joaten da jende gutxiko egunetan, han igarri dutelako erabiltzaileen igoera: "Asko igarri da, bai. Usakora joan ordez igerilekura joaten dira orain asko. Duela egun batzuk, esaterako, Elgoibarko udalekuetako talde bat etorri zen. Usakora joatea zen euren plana, baina debekuaren berri izatean igerilekura joan ziren. Usakon sorosle bat nahikoa den egunetan igerilekura joaten da bigarrena, errefortzu lanak han egitera".

### Igerilekura eta hondartzara

Gazteengan izan du eragina, batez ere, debekuak, eta gaztetxoenganaino er iritsi da. Esaterako, Usakora joan ordez normalean igerilekura joaten den gaztetxo talde batek sorosleen hitzak baieztatu ditu: "Azkenaldian ez gara betikoak bakarrik egoten, jende gehiago egoten da". Usakora joateko ohitura duten nerabeek, berriz, bestelako planak egiten dituzte orain. Bizikleta eta erraketak hartu eta auzoetako frontoietara joaten direla aitortu du batek. Kostako bidea ere hartzen dute batzuek. Gaztetxoagoak diren batzuek zuzenean egiten dute igerilekura joateko plana eta nagusiagoek, aldiz, hondartzarako bidea hartzen dute lehen baino sarriago: "Kuadrilla bat baino gehiago elkartzen gara, esaterako, Debako edo Zarauzko hondartzan. Autobusean joaten gara".

Bainatzeko debekua adierazten duten kartelak jarrita daude Usako inguruetan, eta datorren asteartera arte, printzipioz, ez dituzte kenduko. Sorosleek ere bainu debekuaren berri ematen jarraituko dute eta Udalak arazoaren iturria bilatzeko lanean, ezer egiterik balego, balizko neurriak hartzeko.

## Eltzia taberna zabalik egongo da berriz gaurtik, egubakoitza

"Ilusio handiarekin" zegoen gaurko egunaren zain German Mirassou, Eltzia tabernaren arduradun berria. Dena prestatzen ibili da egun hauetan eta herritarrei zerbitzua eskaintzeko prest dagoela esan du: "Ideia asko ditut buruan, eta horiek betetzeko gogoa eta ilusioa. Eltzian dauden taldeekin sinergiak aprobetxatu eta elkarrekin gauzak egitea da asmoetako bat. Jatekoari begira, izango ditugu ogitartekoak eta plato konbinatuak, baina bertako produktuekin, izan bildotsa edo izan gazta, adibidez, jatordu bereziak eskaintzea dut buruan".

Gaurtik aurrera, egubakoitza, egunero egongo da zabalik Eltzia taberna 08:30etik 22:30ak arte –23:30ak arte udan eta asteburuetan–, astelehen arratsaldeetan izan ezik. Irekieran pintxoak egongo direla aurreratu du, eta musika jarriko duen DJ bat ere bai. Duela hemezortzi urte etorri zen Oñatira Argentinatik Mirassou, eta ibilia da ostalaritzan.

## Garate eta Igartua egongo dira zabalik lehenengo txandan

**Udako egutegian sartuko dira bihar farmaziak, eta u**ztailaren erdialdetik irailaren erdialdera txandaka emango dute zerbitzua. Laurak batera zabalik egon ordez, binan-binan zabalduko dituzte: uztailaren 15etik abuztuaren 15era, biak barne, Garate eta Igartua egongo dira zabalik; abuztuaren 16tik irailaren 16ra, Anduaga eta Juldain.

## Txokolatezko balea-txalupa ikusteko izena eman behar da

1.800 kilo txokolaterekin egindako balea-txalupa bat dago ikusgai Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan. XVI. mendeko *San Juan* baleontziaren txalupen tamaina bera du: zortzi metro luzeran eta bi zabaleran. Bisita gidatuak egiten dituzte 12:00etan eta 13:00etan, eta izena eman behar da Txokolateixan edo Turismo Bulegoan.



2016an eraberritutako taberna zabaldu zuten inaugurazio eguneko argazkia. ARRANO

# 40. urteurrena ospatuko du bihar Arranok

Urteurrena ospatzeko egun nagusia izango da bihar, zapatua, baina otsailean hasi eta azarora arte iraungo dute 40. urteurreneko ekitaldiek. Argazki zaharrak biltzen ere ibili dira, eta jasotako bilduma osoa ikusgai dago tabernako telebistan

**Oihan Elortza Gorostiza** OÑATI

Egun osoko egitaraua antolatu du Arranok biharko, 40. urteurrena ospatzeko: La Pulgak 13:30ean egingo du emanaldia, taberna kanpoan; elektrotxaranga iluntzean, DJ saioa gauean eta bazkaria eguerdian. Argazki bilduma bat osatu dute, eta tabernako telebistan jarri dituzte ikusgai.

### Handitzea mahai gainean

1983ko uztailaren 28an, eguena, ireki zituen lehen aldiz ateak Oñatiko Arrano elkarteak eta tabernak. 125 kide ziren hasiera hartan; 150 inguru dira egun. "Presentzia politikoa izateko sortu zen, ezker abertzaletik, baina, era berean, beti egon da tokia hemen herri mugimenduarendako ere; baita egun ere. Herrian errotuta dagoen gunea da", dio Arranoko kide Jose Mari Zugastik.

Historian atzera eginda, 2002ko apirilean enbargatu egin zituen Arrano elkarteak Baltasar Garzon epaileak, Oñatikoa barne, elkarte horiek Batasunari lotuta zeudela argudiatuz; 2003an administratzaile judiziala jarri zuen kontuak kontrolatzeko, beste 75 Arranotan bezala. Hamar urtera, 2013an, hasi zen epaiketa, eta 2014an zigor-epaia eman zuen Auzitegi Nazionalak. 2015ean berretsi egin zuen zigor hori Gorenak, Oñatiko, Arrasateko eta San Pedroko Arranoak salbuetsita. "Ez zen sasoi ona izan hura. Oztopo asko izan genituen. Horrez gain, krisi garaia bizi zen gizartean eta egoera ez zen hasierako urteetakoa; beherakada gertatu zen. Egoerari buelta ematea pentsatu genuen". Taberna eraberritzea pentsatu zuten orduan. 2016. urtean izan zen. Orduko otsailean hasi zituzten lanak eta sei bat astez egon zen itxita. Ordutik tabernak zein elkarteak gorakada izan duela igarri dute kideek, eta, aurrera begira jarrita, mahai gainean dute lokala handitzeko ideia.

**TABERNAK ZEIN ELKARTEAK GORAKADA IZAN DUTELA IGARRI DUTE KIDEEK**

### Otsailetik azarora

Taberna eta elkartea sortu eta hiru urtera, 1986an, antolatu zuten, lehen aldiz, irteera Arranoaitzera. Eta, ordutik, urtero egiten dute. Aurten, hain zuzen ere, otsailean egin zuten irteerarekin eman zioten hasiera 40. urteurrena ospatzeko egitarauari. Kontzertuak, bertso saioak, mus txapelketak zein hitzaldiak eta aurkezpenak egin izan dituzte Arranon, eta era guztietako ekintzak antolatu dituzte 40. urteurrena ospatzeko ere. Biharkoa izango da egun nagusia, baina urteurreneko ekitaldiak azarora arte egingo dituzte. Urrian mendi irteera egingo dute eta azaroan, zikiro-jana.



NIRE USTEZ

**UXUE MONTERO**

## Eta orain gu goaz!

Bizitzaren erritmoa zela eta, aspaldi ez nuen ordutegi zehatza eskatzen zuen ezertan izena ematen. Baina Oñatiko liburutegiko idazketa tailerrak tentatu ninduen: aurrean nuen Joxemari Iturralde idazle ezagunak zuzendutako idazketa ikastaroa egiteko aukera; gainera, literaturaz ni bezain interesatua dagoen jendea ezagutuko nuen. Eta doan; dena esan behar da.

Bada, hara joan nintzen eta hiru kurtso egin eta gero tailerra bukatu zen –iraupena hori delako–. Nire espektatiba ondo baino hobeto bete zen: irakurtzeari buruz ikasi nuen, eta baita ere neure testuak idaztea ere. Eta oso lagun interesgarriekin konpartitu nuen.

Ez nuena inondik inora espero idazketa tailer horretatik gure sorkuntza propioa ateratzea: liburu bat, non taldekide bakoitzak bi ipuin eta bi haiku idatzi ditugun, eta hitzaurrea Joxemari Iturralderena da.

Izenburua *Eta orain gu goaz!* da eta herriko liburu-dendetan edota parte hartzen dugunon bidez lor daiteke. Irakurtzera animatuz gero, iritziak ongietorriak izango dira!

# Emakumion Etxiaren barne antolaketa erakutsi dute

Barne antolaketa aurkeztuta, hirugarren fase bat hasiko dute udazkenean: etxearen funtzionamendua

**O.E.G.** OÑATI

Emakumion Etxiak izan beharko lituzkeen espazioak zehaztu eta proposatu zituen erabakitze faseko lehen bilera haietan parte hartu zuen taldeak. Paperera eroan ditu ekarpen horiek guztiak Juntura kooperatibak, eta plano horien aurkezpena egin dute herritarren aurrean aste honetan, Eltzian.

Espazio moldagarria izatea ezinbesteko ikusi dute arkitektoek, beharren araberako erabilera emateko. Hortaz, ez dute espazio bakoitza bere horretan pentsatu; etxean bertan sekuentzia ezberdinak nola gurutzatuko diren bermatu dute.

Behin barne antolaketa aurkeztuta, hirugarren fase bat hasiko dute udazkenean, aurrekoan aurreratu zuten moduan: etxearen beraren funtzionamenduan eta erabileran zentratutako dira. Bitartean, Kale Zaharreko eraikinaren eraberritze lanak martxa onean doaz. Barrua guztiz hustu dute, eta teilatua ere kenduta du eraikinak. Kanpo egitura geratzen da, gaur-gaurkoz.

## Azken egunak azala aurkezteko eta izena emateko azokan

San Migel eta Errosarixo jaietarako Udalak egindako hainbat deialdi bukatzear daude. Esaterako, hilaren 16a da azken eguna 2023ko jaien egitarauko azal lehiaketara lanak aurkezteko. 18 urtetik gorakoek aurkez dezakete euren lana, eta irabazlea jendeak emandako boto kopuruak erabakiko du; 17tik 20ra egongo dira lanak ikusgai udal webgunean eta sare sozialetan. 500 euro da saria.

Herri Eguneko artisau azokan parte hartzeko izen ematea ere 16an itxiko da; eta egun bat geroago, egun horretan salmenta posturen bat jartzeko asmoa izanez gero. Azal lehiaketarako zein Herri Eguneko artisau azokarako izen emateak kultura etxean egin behar dira: *kultura.idazkaritza@onati.eus*. Posturen bat jartzeko, udal webgunean sartu behar da eta han dagoen formularioa bete.

# Badator Kantoikriten zortzigarren edizioa

Bihar gauean jokatuko da lasterketa, 22:00etan hasita, eta lehenengo aldiz emakumezkoen zein gizonezkoen sailkapena izango du. Ibilbidean aldaketa txiki bat egongo da, obra batzuen ondorioz; teknikoki eragina izango du aldaketa horrek

**Iñigo Barrena Kortabarria** OÑATI

Xarma berezia duen lasterketa da Kantoikrit, herrian errotuta dagoena, eta horren adibide da zapatu honetan (22:00) zortzigarren edizioa izango duela. Urtero bezala, ikusmina ere handia izango da herritarren artean; are gehiago, azken irabazlea etxekoa baita. Mikel Olaldek irabazi zuen iazko lasterketa, eta badirudi horrek oñatiarrengan parte hartzeko grina piztu duela. "Geroz eta herritar gehiagok esan digute bizikleta bat lortuz gero parte hartuko luketela. Aurten ere bost edo sei izango ditugu irteeran, eta herriko jendea bertan egoteak beste pizgarri bat ematen dio lasterketari", adierazi du Iñigo Idigorasek, Kantoikriteko antolakuntzako kideak. Astearen hasieran 30 bat lagun zeuden baieztatuta irteera puntuan egoteko, baina antolakuntzatik itxaropena dute sare sozialen bidez 40 parte-hartzailetara iristeko; hori horrela balitz, "gustura" egongo liratekeela aitortu du Idigorasek.



Txirrindulari bat San Anton kaleko harbidean sartzen. IMANOL SORIANO

### Berrikuntza nabarmen bat

Aurtengo berrikuntza nagusia bi sailkapen egongo direla izango da: alde batetik, emakumezkoena; eta, bestetik, gizonezkoena. Badira urte batzuk emakumezkoak kriterium horretara erakartzeko ahaleginean dabiltzala antolakuntzatik, eta aurten apustua sendotzea erabaki dute, sailkapen propioa eginda. "Aurten, emakumezkoek parte hartzeko ahalegin horretan, beste interes puntu bat aurkitzen saiatu gara eurentzat, eta horregatik erabaki dugu bi sailkapen egitea", adierazi du antolakuntzako kideak. Era berean, sariak ere berberak izango dira bi podiumak osatzen dituztenentzat.

### Ibilbidean aldaketa

Iazko lasterketan ohiko ibilbidera itzuli zen lasterketa, baina Emakumearen Etxea egiten ari dira eta lan horiek eragina izango dute ibilbidean. Txirrindulariak San Anton kaletik joango dira eta, zuzenean San Anton plazan aurrera jarraitu beharrean, eskuinera biratu beharko dute, eta Kale Zaharrean behera egin; ondoren, Ikatz taberna parean berriz ezkerrera egin eta ohiko bidera itzuliko dira.

Aldaketa txikia den arren, teknikoki arreta berezia jartzea eskatzen duena izango da, Iñigo Idigoras antolakuntzako kidearen ustetan: "Harbide batetik etorriko dira, non frenatzea ez den erraza, eta hor 90 graduko bira bat sartuko dugu, eta ondoren beste bi. Gainera, harbidean sartu eta irten ibiliko dira, eta, eguraldiak ere laguntzen ez badu, puntu oso zail bihurtuko da txirrindularientzat".

**LEHENENGO ALDIZ, BI SAILKAPEN IZANGO DITU LASTERKETAK: EMAKUMEZKOENA ETA GIZONEZKOENA**

### Boluntarioak, beharrezkoak

Zortzigarren aldia da lasterketa antolatzen dutena, eta, egunerokotasunean sei pertsona aritzen diren arren, egunean bertan 40 pertsona inguru behar izaten dituzte lasterketa aurrera eramateko. Zailtasunak zailtasun, momentuz, aurrera jarraitzen du Kantoikritek. "Urte batzuetan erraz aurkitu ditugu laguntzaileak, baina azken urtean kosta egin zitzaigun boluntarioak batzea, eta aurten ere, iritsiko garen arren, estu arituko gara", dio Idigorasek.

### 'Streaming' bidez zuzenean

Herritar ugari izango dira kalera aterako direnak lasterketa ikustera, baina etxetik ere zuzenean jarraitu ahalko da Kantoikrit, *streaming* bidez. Aurten, gainera, nobedade txiki bat sartzeko ahalegina egiten ari dira: tirolina estiloko kamera bat jarri nahi dute San Anton kalea gurutzatzen; saiatu egingo dira, bai, baina ez dute ezer baieztatzen. "Oraindik ez dugu lortu jartzea, baina uste dut lortuz gero irudi ikusgarriak lortzeko aukera izango genukeela", dio Idigorasek.



D'Capricho taldeko kideak kontzertu batean. OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA

# Doinu kubatarrak asteazkenean, Kalean egitarauaren barruan

Danieuris eta Daniellis Moya Avila ahizpek osatzen duten D'Capricho San Lorentzon izango da, 19:00etan

**I.B.K.** OÑATI

Udako kultur eskaintza jasotzen duen Kalean egitarauaren barruan, D'Capricho taldearen kontzertuarekin gozatzeko aukera egongo da eguaztenean, arratsaldeko zazpietan hasita, San Lorentzon. Hain zuzen ere, Danieuris eta Daniellis Moya Avila ahizpek osatzen dute bikotea, eta, eurek sortutako abestiak kantatzeaz gain, Kubako poeta handien testuak habanera, bolero, sona, txa-txa-txa eta fusioaren bidez eman ohi dituzte, eta euskaraz kantatzen ere entzungo ditugu, bi ahizpetako bat Euskal Herrian bizi baita duela urte batzuk.

### Hurrengo ekitaldiak

Egitaraua, ordea, ez da asteazkenean amaituko. Datorren asteazkenean, hilaren 26an, Txomin Artolaren *Belar hostoak* diskoa gaurkotuta entzun ahalko da Lazarraga Lorategian, arratsaldeko zazpietan hasita. Abuztuan atsedena izango du egitarauak eta irailaren 3an arratsaldeko zazpietan itzuliko da agur esateko, Hortzmuga taldearen *Agurea, urpekaria eta itsasoa* antzezlanarekin.

## Taldekako fitness ekintzetarako izen ematea zabalik dago

Ikasturte berrian kiroldegiak eskainiko dituen taldekako fitness ekintzetarako izen emate epea zabalik dago hilaren 31ra arte. Epe horretara arte, lehentasuna izango dute aurreko ikasturtean aritu direnek; abuztuaren 1etik irailaren 8ra arte, berriz, izen ematea irekia izango da erabiltzaile guztientzat. Izen emate guztiak kiroldegiaren webgunean –*www.zubikoakiroldegia.onati.eus*– edo kiroldegian bertan egin beharko dira. Prezioei dagokienez, kiroldegiko bazkideentzat merkeagoa izango da. Baja emateko, jarduera hasi aurreko hilaren 25ean egin beharko da; bestela, tasa osoa kobratuko zaio erabiltzaileari.

## OHARRAK

### Kontzertuak

Gaur iluntzean (22:00), Kuma No Motor eta Horzudun taldeen kontzertua egongo da Antixena gaztetxean; hilaren 23an, zapatuan, berriz, Amarratz erromeria taldeak eskainiko du kontzertua.

### Ganbara abesbatza

Italiako Gorizziako lehiaketan egongo da uztailaren 20tik 24ra, eta bidaiatu aurretik bi kontzertu emango dituzte: lehena, domekan. 18:30ean, Santa Ana antzokian.

### Erakusketa

Kultur etxean dagoen *Erresistentzia zapatista* argazki erakusketa ikusteko azken eguna gaur izango da.

**19. GOIENA UDAKO ARGAZKIEN LEHIAKETA**

*egin klik!*



Kuba | Argazkia: Olaia Otero Aiastui



Esne Bidea Rinlo gainean (Galizia) | Argazkia: Mikel Lasa Murguizu



Contis (Landak) | Argazkia: Juan Luis Zabala



Kurtzetxiki, goizean | Argazkia: Unai Elorza

*Argazki guztiak kanal berezi honetan: https://labur.eus/udakoargazkiak-2023*

# MARTXAN DA!

**Goienaren Udako Argazkien Lehiaketa abian da! Nondik nora ibiliko zara aurten? Hurbil geldituko zara ala urrutira joango zara?**

Argazkiak posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07) bidal ditzakezu; uztailaren 14tik irailaren 18ra arte –biak barne–.

## Sariak

**Zu ikusi nahi zaitugu; nondik nora ibili zara?**
Bidali zure argazkiak Goienara eta sari hauetako bat irabazteko aukera izango duzu:
**1. saria: Arrasateko eta Bergarako Halcon Bidaiei esker,** Kantabrian gau bat eta gosaria bi lagunendako.
**2. saria: Arrasateko Eroski** hipermerkatuari esker, eskuko telefono bat: Samsung Galaxy A14, 128 GB.
**3. saria: Gure Ametsa jatetxean** bi pertsonarentzako afaria edo bazkaria.
Gainera, **publikoaren saria** ere izango dugu, **Bergarako Ereindajan**-en eskutik: bertako eta kalitatezko produktuen saski ederra.

## Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: -Egilearen izen-abizenak. -Harremanetarako telefonoa. -Debagoieneko zein herritakoa den edo zeinetan bizi den egilea -Argazkia non ateratakoa den.
- Argazkiak eta datu GUZTIAK posta elektronikoz *(argazkiak@goiena.eus)* edo Whatsapp/ Telegram (688 69 00 07) bidez bidali daitezke.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 14tik irailaren 18ra arte (biak barne).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoienean jaio edo bizi den orok parte hartu ahal izango du.
- 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok (sare sozialak salbu).
- Argazkiak koloretan zein zuri-beltzean izan daitezke.
- Argazkiek originalak izan beharko dute.
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Hiru sari nagusiak Goiena Komunikazio Taldeko kideek osatutako epaimahaiak aukeratuko ditu. Argazkiaren kalitatea eta originaltasuna hartuko dituzte kontuan.
- Irailaren 22tik 27ra Publikoaren Saria aukeratzeko epea zabalduko da. Lehiaketan parte hartu duten argazki guztien artean aukeratuko da Publikoaren Saria, bozketa bidez.
- Irabazleak nortzuk diren irailaren 29an emango da aditzera, GOIENA aldizkarian eta *Goiena.eus*-en.
- Saria jasotzeko, irabazleei eskatuko zaie lehiaketaren babesleekin argazki bat ateratzeko.
- Argazkiak Goienaren hainbat euskarritan argitara daitezke: *Goiena.eus* atarian, GOIENA aldizkarian, *Puntua* aldizkarian, telebistan eta sare sozialetan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du, egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienaren artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adieraziko da.

*Oinarriak eta lege oharra osorik: https://labur.eus/oinarriak-2023*


ANTOLATZAILEA:
goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:
EROSKI ARRASATE
GURE AMETSA Restaurante · Jatetxea
BERGARA EREIN DA JAN
Halcon BIDAIAK ARRASATE BERGARA

# Ulma-Challengea bihar Bergaran eta Oñatin

**TXIRRINDULARITZA** Kadete eta gazte mailetako txirrindulariek hitzordu bikoitza izango dute bihar Debagoienean. Goizean (11:00) Bergarako San Martzialeko maldetan neurtuko dituzte indarrak eta arratsaldean (15:15) lineako lasterketa izango dute Oñatin

**Xabier Urzelai Atxa** ARRASATE

"Lasterketek ematen digute ikusgarritasuna". Gipuzkoako Federazioko emakumezkoen ziklismo teknikari Ainhoa Ostolazaren adierazpenak dira, Ulma-Challenge probaren aurkezpen ekitaldian esandakoak. Ostolazak ondo daki gaztetan erreferenteak izatea ze garrantzitsua den; haren garaiko ziklistei erreferente horiek falta izan zitzaizkien, eta bidea zabaltzea tokatu zitzaien eurei –Ostolazak domina eskuratu zuen Munduko Pista Txapelketan, 1989an–. "Orduan ez geneukan nori begiratu, eta, zorionez, hori aldatu egin da".




Txirrindulariak, udal ordezkariekin, babesleekin eta antolatzaileekin. M.B.

Bada, ikusgarritasun horren bila antolatu dute biharko, zapatua, modalitate ezberdinetako bi sektore izango dituen Ulma-Challengea: "Gipuzkoan aurten ez dugu halakorik antolatu, lehenengo aldia da, eta ziklista gazteek egun berean bi proba egiteko aukera izatea ikusgarria da. Gauza ederra da hori; izan ere, Tourra hemendik pasatzea gauza ona izan da, baina gazteak txirrindularitzara gerturatzeko herri mailako lasterketak behar ditugu".

**Bergaran eta Oñatin**

Erlojupeko proba (11:00) Bergarako San Martzialerako igoera izango da –Bergara Hiria saria–, eta ziklistek 1,3 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute, banan-banan irtenda. Arratsaldeko lineako probak, berriz, Oñatin izango ditu irteera eta helmuga. Lasterketa 15:15ean hasiko dute, Ulma Handling Systems lantegiaren parean, eta helmuga Unibertsitatearen hiribidean egongo da. Kadete mailako ziklistek 32 kilometroko ibilbidea egingo dute eta gazte mailakoek, 42 kilometrokoa. Proba hori puntuagarria izango da Emakumezkoen Euskaldun Txapelketarako, eta, guztira, 120 bat txirrindulari espero dituzte.

**Foru Aldunditik laguntza**

Bestalde, nahiz eta Ulma-Challengeak eta halako ekimenek esperantza sortzen duten, lurralde mailako txirrindularitzaren egoerak kaskarra izaten jarraitzen duela nabarmendu dute klubetako arduradunek eta baita Gipuzkoako Federazioko presidente Santi Osorok ere. Egia da Gipuzkoa mailan egiten diren txirrindularitza lasterketek bultzada jaso dutela azken asteetan: Foru Aldundiak diru poltsa bat jarri du Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioaren eskura, klubei lasterketak antolatzen laguntzeko. Bultzada ekonomikoak, gehienbat, motorzaleen aseguruak eta anbulantzien kostua finantzatzeko balioko du. Izan ere, lasterketetan bideak zaintzen dituzten motorzaleak ezinbestekoak dira, eta haiek duela sei hilabete hasi ziren aldarrikapenekin.

Hala, martxoan motorzaleek planto egin zuten, haien baldintzak hobetzeko aldarrikatzeko. Eta, horren harira, lasterketa batean parte hartzen duten *aktore* guztiak mahaiaren bueltan jartzeko eskaera egin zion Gipuzkoako Federazioak Foru Aldundiari, lasterketak bertan behera geratzen hasi zirelako. Eskaera horren aurrean baietza jaso arren, mahaia eratzea asko kostatu dela dio Federazioko presidente Santi Osorok. "Iritsi gara puntu batera esan dieguna horrela ezin dugula jarraitu. Tourrak duen zurrunbiloarekin presio pixka bat egin dugu, eta haien partetik lortu dugu konpromiso hori sinatzea", azaldu du.

Aloña Mendiko ordezkari Aitor Atorrasagastirekin ere izan da GOIENA. "Oraingoz, laguntza txikia da, baina lortu da akordio bat sinatzea, hurrengo denboraldia hasi baino lehen denok mahai gainean jarri eta behar den moduko zenbakiez hitz egiteko", nabarmendu du.

**ARRATSALDEKO LASTERKETAN KADETEEK 32 KILOMETRO EGINGO DITUZTE; GAZTEEK, 42**



San Martzialeko igoeran, esfortzu betean. GOIENA

## San Martzial igoera, goizean

San Martzialgo kronoigoerak sei urte beteko ditu bihar. Ziklistek 11:00etan hasiko dute proba, eta 30 segundoan behin irtengo dira kilometro pasatxo (1,3 km) duen igoerari aurre egitera. Igamo Packagingeko neskei etxean tokatzen zaie maillota defendatzea.

# Dorletako Ama sariak 178 ziklista batuko ditu domekan

**ZIKLISMOA** Domekan ziklistek 125 kilometro izango dituzte aurretik; hirutan igoko dituzte Gatzagako maldak

**X.U.** ARRASATE

Txirrindularitzaz betetako asteburua Dorletako Ama sariak borobilduko du domeka goizean. Lehendakari txapelketako laugarren proba puntuagarria izango da, eta ziklistak –178, guztira– bezperan Villatuertan lehiatuko dira. Hala, ikusteko dago nork kudeatuko duen nekea ondo, Leintz Gatzagara egin beharko dituzten hiru igoerak hanketan pilatuko zaizkie eta. Irteera-puntuan izango dira joan den astean Antzuolan nabarmendu ziren ziklistetako asko; tartean, lasterketa irabazi zuen Laboral Kutxako Nicolas Alustiza. Aimar Madina (Caja Rural Alea) eta Unai Cueva (Grupo Eulen) oñatiarrak ere lasterketan izango dira, baina izen-emate zerrendan ez dator, esaterako, Murgian irabazi zuen Julen Arriolabengoa eskoriatzarra.

Ibilbideari dagokionez, Leintz Gatzaga eta Arrasateko Epeleko biribilgunearen artean hiru joan-etorri egingo dituzte.



Taldea Leintz Gatzagan, duela bi urte; Laboraleko Lasak izan zen onena. I.S

# Eskoriatzako probak 55 pilotu batuko ditu bihar

**AUTOMOBILISMOA** Euskadiko rallysprint txapelketako azken proba puntuagarria jokatuko dute zapatuan. Eskomotorrekoak pozik daude izen-emate kopuruarekin, eta baita auzotarrek ondo hartu dutelako lasterketaren bigarren edizioa antolatzea

**Xabier Urzelai Atxa** ESKORIATZA
Zapatuan egingo dute, Aretxabaleta eta Eskoriatza artean, Eskoriatzako bigarren rallysprinta. Ibilbideak ez du aldaketarik, iaz proposatutako zirkuitu sigi-sagatsu eta teknikoan ibiliko dira bihar ere izena eman duten 55 pilotuak. Alegia, lehenengo bi txandak –12:00etan hasita– Aretxabaletan hasiko dituzte –Bainuetxe industrialdean–, eta, Eskoriatzara bitartean, Mendiolako lehenengo aldapatik hasi eta Lete, Eraña, Bolibar eta Agiñatik pasako dira, Atxorrotxeko zementuzko bidetik behera Eskoriatzara iritsi arte. Arratsaldeko beste bi txandak (15:40), berriz, Eskoriatzako plazan hasiko dituzte eta Aretxabaletan amaitu, ibilbidea alderantziz beteta.



Ford Focus autoa, iazko lasterketan. IMANOL SORIANO

## Eskomotorrekoak, pozik

Bihar irteera-puntuan debagoiendar asko izango dira. Eta tartean, noski, pilotu eskoriatzarrak: Gorka Idigoras, Gorka Urrutia, Joseba Frutos, Unai Jurado eta Mikel Oiarzabal. Autoak puntuan jartzeaz batera lasterketa antolatzeko buru-belarri ibili dira lanean, eta, iazkoarekin alderatuta, aurten errazago egin dituzte aurretiko lanak. "Pozik gaude lasterketak rallysprintak harrera ona izan duelako eta aurten ere parte-hartze polita izango duelako. Eta horrekin batera, lasaigarria izan da ikustea ibilbidean zehar dauden auzoetako bizilagunek ondo hartu dutela bigarren edizioa antolatu izana. Iaz beldur ziren lehenengo edizioak sortu zezakeenagatik, baina ondo joan zen dena, eta aurten eurak ibili dira galdezka lasterketa egin behar ote dugun edo ez", dio Gorka Urrutiak.

Zorionez, zapaturako tenperaturak ez dira izango iazkoak bezain beroak. "Iaz, autoek mekanikoki asko sufritu zuten beroaren eraginez", dio Urrutiak, eta pilotuek ibilbidea ere hobeto ezagutzen dute. Izan ere, iaz lehenengo txandan izandako istripuek eragina izan zuten proban: "Rallysprintek hori dute, bai goraka eta bai beheraka joan behar dela azkar, eta ibilbidea ondo ez ezagutzeak ere baditu arriskuak. Gorabeherak dituzten zatiak dira, tarte batzuetan estuak, eta zorua ere denean ez da asfaltoa. Ibilbide teknikoa da, eta polita".

# Euskadiko errekorra ondu du Andoni Calbanok 200 metrokoan

**ATLETISMOA** 1974an Luis Sarriak egin zuen 20,89ko marka hamabi ehunen ondu du bergararrak (20,77)

**X.U.** ARRASATE
Duela bi aste ezkero, Andoni Calbano da Euskal Herriko inoizko gizonik azkarrena 200 metroko distantzian. Bergarakoak 20,77an geratu zuen erlojua Anoetan egindako saioan, eta dagoeneko uztailaren 28an Torrent-en jokatuko dituzten Espainiako Txapelketara begira dago. GOIENA martxoan izan zen Calbanorekin Anoetan, entrenamendu saio bat bertatik bertara jarraitzen, eta bistan da denboraldi borobila egiten diharduela, aurrerapauso handiak ematen dabil eta.



Andoni Calbano. GOIENA

## 30 ehuneneko hobekuntza

Realeko 22 urteko atletak Anoetako estadio txikian egin zuen marka. Haren espezialitatean saiatu aurretik, 100 metrokoan ikusi zuen sentsazio onak zituela, marka egiteko eguna izan zitekeela. Eta halaxe izan zen. Lehenago, 21,07 zen Calbanoren denbora onena –30 ehunen okerragoa–, eta saio bakarrean 20,77 egin zuen. Hala, distantzia horretan euskal atleta azkarrena bilakatu da Calbano, Luis Sarria gaindituta.

## ATLETISMOA Iruñean lehiatuko da Ruiz de Azua zapatuan

Malen Ruiz de Azua izango da Lurralde Autonomikoen Espainiako Txapelketan EAE ordezkatuko duena. Txapelketa bihar, zapatua, egingo dute, Iruñean, eta, hitzordu horren ondoren, uztail amaieran Torrent-en egingo dituzten Espainiako Txapelketa absolutuak izango ditu helburu. 4.31ko markarekin aurkeztuko da arrasatearra.



Ruiz de Azua, iaz. GOIENA

'HEMEN DEBAGOIENA', UDA GIROAN

GOIENA TELEBISTAN
UZTAILEAN ZEHAR, 18:00/20:00 ETA 22:00
SASOIAREKIN BAT, ITXURA ETA EDUKI FRESKOAK

DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.





Arrasate Blues jaialdiko antolatzaileak eta musikariak, aurkezpenean. ENEKO AZURMENDI

## Arrasate Blues jaialdiko egitaraua

**UZTAILAK 14**
- **19:00** The Fake Cousins, Euskal Herria plazan (1990 tabernaren ondoan).
- **20:30** Bluedays, Otalora kalean (Taupa tabernaren ondoan).
- **22:30** Afrika Bibang, Arotz plazan (Irati tabernaren ondoan).
- **24:00** Erromintxelak taldearekin *jam session*-a, Aterpe tabernan.

**UZTAILAK 15**
- **11:30** *Blues dance* dantza saio gidatua, Portaloian.
- **13:00** M & A Swing Machine, Arbolapetan (Ezkinaren ondoan).
- **19:00** SlideBoy Vegas, Portaloian (Monte tabernaren ondoan).
- **20:30** The Soul For Real Band, Herriko Plazan.
- **22:30** Trudy Lynn Feat Steve Krase & Travellin' Brothers, Herriko Plazan.
- **24:00** The Fake Cousins taldearekin *jam session*-a, Aterpen.

**UZTAILAK 16**
- **13:00** Monica Duran, Arbolapetan.
- **19:00** The Spolem Girls, Jokin Zaitegi plazan (Buenuena tabernaren ondoan).

# Bosgarren Arrasate Blues jaialdia, musikari talentudunen topagune

Atzo abiatu zen Arrasateko Ibai-arte merkatari elkarteak, Udalaren laguntzarekin, antolatzen duen bosgarren Arrasate Blues jaialdia; domekara bitartean, euskal eta nazioarteko askotariko musikarien emanaldiak izango dira herriko hainbat txokotan

**Aitziber Aranburuzabala Juldain**
ARRASATE

Musika beltzaren zaleek eta musikariek oso estimuan duten jaialdia da Arrasatekoa; horren erakusle da musikari asko, euren kontzertua eskaintzeaz gainera, asteburu osorako maletarekin etorriko direla Arrasatera. Aurreko aldien bidetik osatu dute bosgarren jaialdiko kartela; ohi duten moduan, berrikuntzak gehituta. "Oso pozik gaude osatutako kartelarekin; jaialdian parte hartzeko musikarien eskaintza asko jasotzen ditugu, Euskal Herritik kanpo ere ezagutzen gaituzte eta. Aurtengo berrikuntzen artean, *jam session*-ak eta dantza saio gidatua daude; Aterpe taberna musikarien jolastoki bilakatuko da, gaur, egubakoitza, Erromintxelak taldeak gidatuta, eta gurean sarritan izan den Paul San Martin kide den The Fake Cousins taldeak gidatuko du biharkoa. Dantza saio gidatuaren ardura, berriz, Lazy Blues taldeak izango du, eta guztiontzako dago proposamena zabalik, dantza aditua izan edo ez; beraz, parte hartu gura duenak bihar, zapatua, Portaloian 11:30ean agertu besterik ez du", azaldu du Ibai-arteko kide Jon Apraizek.

### Urrezko intsignia

Hamahiru musika proposamen izango dira, guztira, zortzi agertokitan banatuta. Noa Egiguren donostiarrak gidatzen duen Noa&The Hell Drinkers taldeak zabaldu zuen atzo, eguena, egitaraua, eta emanaldiaren aurretik omenaldia jaso zuten antolatzaileen eskutik. "Herriko musikagintzaren alde lan handia egin duten emakume irakasleei aitortza egin diegu aurreko aldietan, eta aurten aproposa iruditu zaigu Noa&The Hell Drinkers taldea goraipatzea, Europako Blues talderik onenaren saria eskuratu berri du-eta Poloniako European Blues Challenge lehiaketan. Arrasaterekiko erakutsi duten maitasuna itzuli gura genien, eta pozarren jaso zuten Ibai-arteko Oskar Vitoria bitxigileak egindako urrezko pin-a", dio Apraizek.

**EUSKAL HERRIKO ETA NAZIOARTEKO MUSIKA BELTZAREN ERAKUSLEIHO ANITZA, ZORTZI AGERTOKITAN**

### Trudy Lynn, aurtengo "izarra"

Texasko eskarmentu handiko musikari Trudy Lynn da aurtengo kartel-burua. "Grammy sarietarako bi izendapenek eta Blues Music Award-erako hamabi izendapenek bermatzen dute Lynnen ibilbidea. Bluesaren dama Travellin' Brothers bilbotarrekin batera arituko da zapatuan, 22:30etan, Herriko Plazan, eta, ohi bezala, alboan izango du haren eskuin eskua den Texasko blues-eszenako harmonika-jole baloratuenetako bat den Steve Krase. Egunotan Portugalen dago Lynn eta aukera hori aprobetxatu dugu Arrasatera ekarri ahal izateko. Gainontzeko emanaldiak gutxietsi barik, baina Herriko Plazan bihar 22:30ean izango den hori oso gogoangarria izango dela esango nuke".

### Musika beltza, zentzu zabalean

Blues, soul, booggie eta bestelako musika estiloen nahasketaren erakusle da aurtengo egitaraua. "Eskaintza zabala egitea da hasieratik dugun asmoa eta aurten ere hala izango da. Nazioarteko musikariak izango dira gurean, baina ahaztu barik Euskal Herrian ere sekulako musikari profesionalak ditugula. Entzule askoren eskemak apurtuko dituen Bilboko M&A Swing Machine taldea aipatuko nuke, horien artean; hirukote formatuan, swing elektronikoa egiten dute, oso aproposa zapatuko eguerdirako. Izugarrizko *frontwoman*-a du talde horrek eta ikaragarrizko indarra du baita ere gaur Arotz plazan Irati tabernaren ondoan izango den Afrika Bibangek ere. Emakume musikariei tokia egitea derrigorrezko baldintza da, hastapenetatik, Arrasate Bluesen, eta baita euskarari ere, eta Bibang da aurten horren erakusle. Sekulako banda du alboan, eta ikusgarria izango da kontzertu hori ere".

Arrasateko kaleetan jotzeko talde ezagunak gonbidatzeaz gainera, Arrasateko jaialdiak badu formazio berriak edo bereziak bultzatzeko abilezia ere. "Hainbat adibideren artean, Valladolideko blues jaialdia antolatzen duen Bluedays taldea aipatuko nuke. Musikari amerikarrak Europara biran etortzen direnean sarritan izaten dira euren banda-laguntzaile orain dela hogei urte sortutako taldekoak. Gaur egun laukote formatuan jarduten duten arren, seikote formatuan jaio ziren, eta hastapenetako formatua berreskuratuko dute, Arrasate Bluesen Arrasate Musikaleko Big Bandeko Zigor Martinez eta Ruben Salvador taldera batuta".

### Zero kilometroko musikariak

Talde ezagunen edo handien plaza izateaz gainera, hasiberriei eta bertako musikariei tokia egitea ere bada Arrasate Blues jaialdiaren DNAn dagoen beste ezaugarri bat, Ibai-arteko kidearen esanetan: "Arrasateko eta Bergarako musikariak batzen dituen eta swing musika oinarri duen Erromintxelak taldeak

## Kontzertuen kokaguneak

ITURRIA: ARRASATE BLUES




orain dela bi urte egin zuen lehen kontzertu ofiziala; hain justu, gure jaialdian. Talde askotan jotzen duten musikari profesionalak eta musika irakasleak dira guztiak, eta ez da kasualitatea, bada, gaur Aterpen izango den *jam session*-eko gidariak eurak izatea". Eta zera gaineratu du Erromintxelak taldeko perkusio-jole Jokin Vitoriak: "Boskotea bagara ere, taldeko hiru kide izango gara gaur: Jon Garcia gitarra-jole eta abeslaria, Aitor Moreno kontrabaxu-jolea eta perkusioarekin ni, eta Gasteizko gure lagun Asier Iturbe tronboi-jole handia izango dugu gurekin. Blues errepertorio berezia prestatu dugu, askotariko musikariekin partekatuko duguna". Erromintxelak taldearekin bai, baina Donostiako The Spolem Girls taldearekin ere agertokian izango dela dio Vitoriak: "Taldearen oinarria lau emakume musikari dira, eta horien bueltan bost musikari gaude; besteak beste, Aitor Moreno eta ni".

Arrasaten jaiotakoa da, era berean, domeka eguerdian Arbolapetako oholtzaren gainean izango den Monica Duran (Ikus gaurko *Puntua* aldizkarian egindako elkarrizketa–. Haurra zela familiarekin Extremadurara bizitzera joan zen, Gasteizera gero, eta gaur egun Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioan ari da autodidakta moduan hasi zuen ibilbidea borobiltzen. Kubers izan zen haren gaztaroko taldea, eta, egun, gospel abesbatzetan eta taldeetan ari da.

## Jaialdiari buruzko podcasta

Bosgarren Arrasate Blues jaialdiari buruzko irratsaio berezia grabatu dute asteon, Goienaren egoitzan dagoen Arrasate Irratiko estudioan.

**Bi orduko solasaldia**

Ander Monederok eta Aitziber Aranburuzabalak gidatuta, atzo, eguena, abiatu eta domeka bitartean herriko hainbat txokotan izango diren kontzertuen gaineko azalpenez gainera, jaialdiaren barruko bitxikeria asko kontatu dituzte, Ibai-arte merkatari elkarteko kide Jon Apraiz eta agertokiaren gainean Erromintxelak eta Spolem Girls taldeekin izango den Jokin Vitoria musikari arrasatearra gonbidatuta.



Arrasate Bluesi buruzko podcastean parte hartu dutenak. JOKIN BEREZIARTUA

**Entzuteko bideak**

Arrasate Irratian estreinatu zuten solasaldia, atzo, eta *Goiena.eus/irratia* atarian eta IVOOX plataforman dago dagoeneko entzungai.

Podcasta entzuteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

Goienakideen txokoa

UZTAILEKO SARIAK



TD Telebista (32')
Parte hartzeko sariaren izena: telebista
EROSKI ARRASATE

Sarrerak
ARRIKRUTZ
Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz

Otarrea
www.harremandenda.org
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

PARTE HARTZEKO:
Posta elektronikoz: Whatsapp: GOIENAKIDE
"goiena app"-a / zozketa atalean.

Irabazi bi lagunendako otordua
UXARTE JATETXEARI ESKER
Begiratu *Puntua* aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: uztailak 18

943 25 05 05 goienakide@goiena.eus 'Goiena app'-a / zozketa atalean.

*GOIENAKIDE Jatetxea*
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailez gozatzeko...

BAZKIDETZA KUOTA: 45€
Deitu: 943 25 05 05 • *goienakide@goiena.eus*

DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA

goiena kide
**0km:** *batzen gaituen distantzia*

## IRAGARKI SAILKATUAK

### 1. ETXEBIZITZAK

#### 104.ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Bi edo hiru logelako etxebizitza hartuko genuke errentan. Telefonoa: 663 40 92 67

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza behar dut errentan. Arduratsuak gara, lan kontratuarekin eta erreferentzia onekin. 612 51 42 99

**Oñati.** Bi ume eta lan finkoa duen neska oñatiar batek hiru logelako etxea hartuko luke errentan, Oñatin. 669 45 10 40

#### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Etxeren baten egun osoz lan egiten duen emakume batendako logela daukat errentan emateko. 632 83 32 44

### 4. LANA

#### 402. ESKAERAK

**Arrasate eta inguruak.** Disponibilitate osoarekin nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko gertu nago. Soziosanitario titulazioa, gidabaimena eta autoa dauzkat. Telefonoa: 680 87 38 66

**Arrasate.** Arrasateko emakume euskalduna nagusiak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Telefonoa: 688 66 76 91

**Arrasate.** Asteburuetan edo gauetan garbiketan zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 632 83 32 44

**Arrasate.** Emakume arduratsua gertu astean behin etxeko garbiketak egiteko. Sei urteko esperientzia eta gomendio onak. 612 51 42 99

**Arrasate.** Hiru kideko familiak etxebizitza behar du errentan, gaur egungo etxea saltzera doazelako. Lan finkoarekin. Gaur egungo maizterraren eta laneko arduradunen erreferentzia onak aurki ditzakegu. Deitu 663 46 66 73 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Mutil gazte gertu arratsaldetan edo asteburuetan lan egiteko. Zerbitzari, garbitzaile, zaintzaile edota pintore laguntzaile. 722 51 53 75

**Arrasate.** Neska arduratsua gertu garbiketak egiteko gertu. Ordutegi malgua. 631 25 26 67

**Arrasate.** Neska arrasatearra, arduratsu eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei paseatzera lagundu edota konpainia egiteko gertu. Telefonoa: 695 73 87 95

**Arrasaten eta inguruan.** Astean zehar orduka eta asteburuan lan egingo nuke zaintzan eta garbiketan. 658 95 79 51

**Bergara edo inguruan.** 20 urteko neska arduratsua gertu umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Aurretiko esperientzia dut eta monitoretzako ziurtagiria daukat. Harremanetan jartzeko bidali WhatsApp mezu bat: 617 79 83 46

**Bergara edo inguruan.** Neska arduratsua gertu umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Haur hezkuntzako goi-mailako zikloa eta gradua daukat. Esperientzia ere badut. Nirekin harremanetan jartzeko zenbaki honetara deitu edo bidali WhatsApp bat. 634 42 85 11

**Bergara eta inguruan.** Pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan hasteko prest nago. Telefonoa: 677 00 90 26

**Bergara.** Animalien zaintza lanetarako prest egongo nintzateke, opor sasoian paseoan atera, jana eman eta abar. Telefonoa: 696 84 19 51

**Debagoiena.** Astean zehar arratsaldetan eta asteburuen egun osoz lan egiteko gertu nago. 656 79 28 37 (Eider)

**Debagoiena.** Astean zehar zaintza lanak egingo nituzke. Erabateko prestasuna. Nagusiei paseatzera laguntzeko ere bai. Egunez zein gauez. 604 87 83 09

**Debagoiena.** Asteburuetan, orduka, lan egingo nuke nagusiak zaintzen edota garbiketan. Soziosanitario titulazioa daukat. 632 34 22 25

**Debagoiena.** Egunean zehar nagusiak zaintzeko edota garbiketak egiteko gertu nago. Astegunetan. Soziosanitario titulazioa eta legezko agiriekin. 634 85 66 51

**Debagoiena.** Emakume arduratsua lanerako prest: etxean bertan bizi izaten, orduka edota asteburuetan. Soziosanitario titulazioarekin. 632 21 99 06

**Debagoiena.** Emakume langile eta arduratsua asteburuetan nagusiak zaintzeko edota etxeko langile moduan aritzeko gertu. Deitu: 624 81 93 71 (Maria)

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko langile moduan, garbiketan edota nagusiak zaintzen lan egiteko. 632 19 08 26

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Astean zehar orduka, asteburuetan edota gauetan. 602 80 15 38

**Debagoiena.** Emakumezkoa gertu astean zehar nagusiak zaindu eta etxe, atari eta abarrak garbitzeko. Interesa duzuenok, deitu telefono honetara. 600 29 05 24 (Ana)

**Debagoiena.** Eraikuntzan, nagusiak zaintzen edo bestelako lanetan aritzeko gertu nago. 673 92 29 90 (Andres)

**Debagoiena.** Etxeko langile moduan aritzeko gertu nago, orduka edo egunean zeharreko jardunez. 633 49 27 40

**Debagoiena.** Garbiketa lanetan edota pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Orduka zein asteburuetan. Telefonoa: 612 56 12 39

**Debagoiena.** Gizona lanerako gertu: sukalde laguntzaile, baserriko lanak edota nagusiak zaintzen. Autoa daukat. 642 25 21 91

**Debagoiena.** Gizonezkoa gertu astean zehar nagusiak zaindu, garbiketa lanak edota eraikuntzan laguntzaile gisa aritzeko. Ingelesa ongi menperatzen du. 642 57 76 25 (Vitor)

**Debagoiena.** Nagusiak orduka zaintzeko eta garbiketak egiteko gertu nago. Legezko agiriekin. 640 38 92 82

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzeko gertu nago, etxean bertan bizi izaten zein orduka. Telefonoa: 643 29 75 77

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edota garbiketan lan egingo nuke, arratsaldez zein gauez, orduka. Esperientzia handia dut lanean. 666 49 37 17

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen eta denetariko garbiketak egiten lan egingo nuke. Telefonoa: 632 63 77 38

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen, garbiketan eta abarrean lan egingo nuke. Baita orduka ere. Soziosanitario ziurtagiria eta legezko agiriekin. Telefonoa: 677 00 90 26

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu orduka nagusiak zaintzeko edota garbiketak egiteko. Telefonoa: 697 86 49 00

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaintzen, garbiketan, sukalde laguntzaile edota frutategian edo arropa dendan. Telefonoa: 643 09 07 47

**Debagoiena.** Neska gaztea lanerako gertu. Nagusiak eta umeak zaintzen eta etxeak garbitzen esperientziaduna. Orduka, jardun osoz zein asteburuetan. 672 78 04 30

**Debagoiena.** Orduka edo etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke, nagusiak edo umeak zaintzen. Baita zerbitzari, garbiketa, harrera, edo jostun laguntzaile lanetan ere. Telefonoa: 612 55 95 93

**Debagoiena.** Orduka lan egingo nuke garbiketan eta nagusiak zaintzen. 691 28 53 25

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanetarako prest. Orduka edo gauak egiteko ere bai. 666 07 42 98 (Claudia)

**Debagoiena.** Sukalde laguntzaile, garbitegietan, hoteleko langile moduan edota denetariko garbiketak egiten lan egingo nuke. Euskaraz pixka bat egiten dut. 688 71 08 09

**Debagoiena.** Zaintza eta garbiketa lanak egingo nituzke, baita etxean bertan bizi izaten ere. Berehala hasteko moduan. Esperientzia dut. Telefonoa: 666 49 37 17

**Debagoiena.** Zaintza eta garbiketa lanak egingo nituzke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. 613 77 18 56 edo 605 28 85 92

**Debagoiena.** Zaintza eta garbiketa lanetan aritzeko gertu nago, etxean bertan bizi izaten, edo bestela. 613 49 33 46

**Debagoiena.** Zapatu eta domekatan, eta abuztuan egunero, zaintza lanak egiteko gertu nago. Telefonoa: 642 49 94 09

**Oñati.** Neska euskaldun arduratsua ekainean eta uztailean umeak zaintzeko gertu. 647 44 42 85

**Oñati.** Neska euskaldun arduratsua uztailean umeak zaintzeko prest. Deitu 688 63 60 34 edo 695 78 41 14 telefono zenbakietara.,

### 7. ANIMALIAK

#### 703. EMAN

**Katakumeak.** Katakumeak ematen dira opari. 674 72 06 03

**Txakurkumeak.** Txakurkumeak ematen dira opari, neurri txikikoak. Mila arrazako emeak dira, txuri beltz eta marroi kolorekoak. 747 75 59 20

### IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK:**

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagoz argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulu bakarra: 25 euro (+BEZ).






## ZORION AGURRAK



OÑATI
**Hegoi Oronoz Mugarza**
Uztailaren 20an, 2 urte. Zorionak, potxolo! Bi urtetxo ja! Ondo-ondo pasa eguna! Patxo handi-handi bat etxeko danon partetik!



OÑATI
**Aihoa Dorado Hernandez**
19an, 11 urte. Zorionak, maitia! Asko disfrutatu zure egunean. Pila bat maite zaitugu. Muxu erraldoi bat familiakoen partetik.



ESKORIATZA
**Iradi Aramendi Altuna**
Hilaren 18an, 10 urte. Zorionak, Iradi! Primeran ospatu zure eguna lagunekin eta etxekoekin. Jarraitu zaren modukoa izaten. Asko maite zaitugu



ARAMAIO
**Izar Ezkurra Errasti**
Uztailaren 17an, 6 urte. Zorionak, politt hori! Egun zoragarri bat euki deizule! Patxo erraldoi bat familixa danaren partetik!



BERGARA
**Nahia Alberdi Quintana**
Uztailaren 16an, 12 urte. Zorionak!



ESKORIATZA
**Urtzi Kortazar Garaiyurrebaso**
16an, 40 urte. Zorionak, txapeldun! Hamarkadako aldaketa orain! Egun zoragarria pasa familia osoaren, eta bereziki, Intzaren izenean.



ESKORIATZA
**Malen Navas Clemente**
Uztailaren 16an, 7 urte. Zorionak, Malen! Segi horren alai eta super ondo pasa eguna, maitia! Maite zaitugu. Nahia, aita, ama eta Lai.



ARETXABALETA
**Oier Portalo**
15ean, 14 urte. Orain dela 14 urte jaio zinen eta gure bizitzak alaitu zenituen. Asko maite zaitugu. Besarkada handi bat familia guztiaren partetik.



ARETXABALETA
**Maddi Martinez Arbulo**
Zorionak, Maddi! 15ean, gure etxeko printzesak urtetxo bat. Zorinak, maitia. Patxo erraldoi bat etxekoen, eta bereziki, Gariren partetik.



OÑATI
**Malen Caro Arriaran**
14an, 10 urte. Zorionak, maitia. Ondo pasa eguna eta hobeto ospatu familiarekin eta lagunekin. Jada 10 urte; ze haundi egiten ari zaren! Muxu asko, familiaren partetik.



ARETXABALETA
**Ander Eraña Urieta**
Uztailaren 13an, 12 urte. Zorionak, Ander! Ondo-ondo pasau zure urtebetetze egunien! Patxo eta besarkada handi bat!



OÑATI
**Izar eta Ion Alzelai**
Zorionak eta urte askotako, bikote! Izarrek 10 urte, hilaren 11n eta Ionek 47 urte, 14an! Ondo zelebrau zuen egunak! Patxo handi bat amatxoren partetik.



BERGARA
**Liher Hidalgo Murillo**
Uztailaren 11n, urtebete. Zorionak, Liher, zure lehen urtebetetzean. Asko maite zaitugu. Muxu haundi bat, bereziki, Hugoren partetik.



OÑATI
**Urko Garitano**
Uztailaren 10ean, 10 urte. Zorionak, Urko! Ondo-ondo pasau zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat etxeko danon, eta bereziki, Hegoiren partetik. Asko maitte zaitxugu!



OÑATI
**Oxel Fernandez Jaso**
Uztailaren 5ean, 5 urte. Zorionak, Oxel! Ederki pasa eguna! Etxekoen partetik, patxo potolo bat!

ESKER ONA

## Roman Guridi Aguirre



2023ko uztailaren 9an hil zen, 97 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2023ko uztailaren 14an.

ESKER ONA

## Xabi Labaien Bergara



2023ko uztailaren 11n hil zen, 59 urte zituela.

*Haizeak bezala*
*eskuen artetik*
*ihes egin duzu*
*Ta momentu baten*
*galduta bakarrik*
*hustuta utzi gaituzu.*

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz -bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2023ko uztailaren 14an.

OROIGARRIA

## Xabi Labaien Bergara



2023ko uztailaren 11n hil zen, 59 urte zituela.

*Eskerrik asko Goienari laguntzeko gertu egoteagatik beti.*

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

Goiena Komunikazio Taldea.
Bergaran, 2023ko uztailaren 14an.

ESKER ONA

## Maria del Carmen Herrero Montero



2023ko uztailaren 10ean hil zen, 82 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2023ko uztailaren 14an.

ESKER ONA

## Valentin Ojanguren Ugarte



Arrasaten hil zen, 2023ko uztailaren 9an, 80 urte zituela.

*Zure ausardia, eskuzabaltasuna eta langile sena izan daitezela gure iparra.*
*Maite zaitugu, aitajauna.*
Lide eta Garazi
—
Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2023ko uztailaren 14an.

OROIGARRIA

## Valentin Ojanguren Ugarte



Sergio Azkarate lankidearen aitaginarreba

2023ko uztailaren 9an hil zen, 80 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

Goiena Komunikazio Taldea.
Arrasaten, 2023ko uztailaren 14an.

URTEURRENA

## Kontxi Landa Unanue



2022ko uztailaren 17an hil zen, 79 urte zituela.

*Gure ingurutik joan zara*
*baina gure bihotzetik ateratzea ezinezkoa izango da.*

Jose Iturbe eta senideak.
—
Urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 16an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2023ko uztailaren 14an.

URTEURRENA

## Jose Manuel Alberdi Muruamendiaraz



2022ko uztailaren 22an hil zen, 75 urte zituela.

*Beti gogoratuko zaitugu.*
—
Urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 16an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2023ko uztailaren 14an.

OROIGARRIA

## Mielanjel Ibabe Erostarbe



'Agerre'

2023ko uztailaren 12an hil zen.

*Elkarrekin bizitako momentuak*
*ez ditugu sekula ahaztuko.*
*Betirako gurekin, Agerre.*

Zure lagunak.
Oñatin, 2023ko uztailaren 14an.

## BERRI-ZAKUA



**Aitor eta Irune** Arrasaten ezkonduko dira gaur. "Onena opa dizuegu bi kuadrillek".





**50 urte ezkonduta** Esteban eta Toñi arrasatearrek gaur ospatuko dute. "Segi zoriontsu izaten".

BABESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Guri deitu zuzenean edo, nahiago baduzue, jakinarazi zuen aseguru-konpainiari gurekin nahi duzuela agurtu maite duzuena.

Marioren, Ibanen eta Maribiren partetik, besarkada magikoak zuentzako, bihotza sendatzeko balio duten horietakoak. Guk baditugu gordeta zuentzako, gure beharra duzuenerako.

Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

## ASTEA GOIENA TELEBISTAN



**BAILARAKO BAINUTOKIAK PROTAGONISTA**

Debagoiendarrek erabiltzen dituzten bainutokietan egongo dira *Uda giroan* saioko kazetariak. Baita Usakon ere.

***'Hemen Debagoiena'*** *Egubakoitza, 18:00, 20:00 eta 22:00*



**'MONDRA&ROLL BARRUTIK' ERREPORTAJEA**

Arrasateko jaialdiaren bigarrenak emandakoaren laburpena egingo dute, baina oholtzaren atzekoak erakutsiz.

***'Berezia'*** *Egubakoitza, 21:15 eta 23:15*



**NEREA AGIRREZABALARI ELKARRIZKETA**

Tolosaldea Arraun Taldeko arraunlari bergararra elkarrizketatuko du Xabi Urzelai kazetariak.

***'Harmailatik'*** *Astelehena, 21:30 eta 23:30*



**KALE-INKESTA ETA ZUZENEKOAK**

Horiek dira uda parteko *Hemen Debagoiena* saioaren berrikuntzak. Erreportajeek eta online bidezko elkarrizketek ere badute lekua.

***'Hemen Debagoiena'*** *Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00*



**ANTZUOLAKO JAIEN LABURPENA**

Aitor Agirianok eta Oihan Loitik egingo dute Antzuolako jaiek emandakoaren errepasoa, protagonisten hitzekin.

***'Jaiak'*** *Martitzena, 21:00 eta 23:00*

GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:
***goiena.eus/telebista***
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

# AGENDA

**EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 14

**ARETXABALETA Portasolgo jaiak**
17:00etan, buruhandiak, erraldoiak eta gaiteroak; 19:00etan, patata-tortilla txapelketa; 19:30ean, txupinazoa eta karro-poteoa; 21:30ean, Youth United, Laino Beltzak eta Oihu! taldeak; 23:15ean, Lekittoko Deabruak taldearen piroteknia ikuskizuna; eta 01:30ean, DJ Mikel Night.
*Portasolen.*

**ARRASATE Zerrajerako jaiak**
17:00etan, haur jolasak; 18:15ean, dantza erakustaldia; 18:45ean, magia ikuskizuna; 19:30ean, konpartsa txikia txistulariekin; 20:45ean, haurrendako afaria; 21:30ean, auzo-afaria; eta, 22:30ean, dantzaldia.
*Zerrajera kalean.*

**ESKORIATZA Zedemontre topaketa**
Arizmendi ikastolako batukada, Maddi Gabilondo, Irati Etxebarrieta eta Larraitz Iparragirre eta Eskoriatzako txalaparta taldea oholtza gainean.
*Santa Marina plazan, 18:00etan.*

**ARRASATE Santa Marinako jaiak**
18:00etan, banderak igotzea; 18:30ean, txokolate-jana; 19:00etan, konpartsa, pintxo-poteoa eta bolo-boloa; 20:00etan, Oscar Duran magoa; eta, 22:00etan, DJ Iver eta J&T disko festa.
*Santa Marinan.*

**BERGARA 'Udako zerua ezagutzen' ekimena**
Astronomia behaketa.
*Seminarixoan, 19:00etan.*

**ARRASATE The Fake Cousins taldea**
Arrasate Blues ekimena hasteko kontzertua.
*1990 gastrotekan, 19:00etan.*

**ARAMAIO Santa Marina jaiak**
20:00etan, etxafuegoak eta kanpai-errepikak, eta 21:00etan, auzoko bertso-afaria.
*Arexolan.*

**ARRASATE Bluedays Band taldea**
Arrasate Blues ekimenaren baitan.
*Taupako terrazan, 20:30ean.*

**BERGARA Iker Piris & His Dual Electracs**
Berumuga ekimenaren baitan.
*Espoloian, 22:00etan.*

**ARRASATE Afrika Bibang bakarlaria**
Arrasate Blues ekimenaren baitan.
*Irati tabernan, 22:30ean.*

**ARRASATE Erromintxelak taldea**
Arrasate Blues ekimenaren baitan.
*Aterpen, 23:59an.*

## ZAPATUA 15

**ARRASATE Debagoieneko Neska Gazteen* bigarren topaketa**
11:30ean, kale-apainketa; 14:00etan, topa eta argazkia; 14:30ean, *Zuk ein zuk jan* bazkaria, eta ostean, tertulia; eta, 19:00etan, karro-poteoa eta jolasak.
*Arrasaten.*

**BERGARA San Martzial txirrindularitza igoera**
Bergara Hiria Emakumezkoen saria, kadeteendako eta gazteendako.
*Bergaran, 11:00etan.*

**ARETXABALETA Portasolgo jaiak**
11:00etan, lasterketa; 12:00etan, puzgarriak; 15:00etan, bazkaria; 16:00etan, mus txapelketa; 17:30ean, Bixentak taldea; 19:00etan, triki-poteoa; eta 22:00etan, Etxepe, DMT –Denso, Mutiko Tatta–, Even eta Baken Ekso Pxli 721 taldeak.
*Portasolen.*

**ARRASATE 'Arrasate, hiribildu bizia' bisita gidatua**
Ondare historiko kulturala ezagutzeko. Izena emateko: *Arrasate.eus* edo 943-25 20 00.
*Biteri plazan,11:00etan.*

**ARRASATE Santa Marinako jaiak**
11:00etan, diana, bolo-palma txapelketa eta puzgarriak; 12:30ean, txino-jokoa; 13:00etan, Motores txaranga; 14:00etan, barbakoa; 18:00etan, apar-festa; 19:30ean, konpartsa; 20:30ean, Krosskoren erromeria; 21:00etan, Ixsyiroi taldea; 22:30ean, MCD taldea; eta, 23:30ean, Krossko.
*Santa Marina auzoan.*

**ARAMAIO Santa Marina jaiak**
12:00etan, meza; 13:00etan, Ibarratik Arexolara bizikleta lasterketa; 17:00etan, kanpai-jotze erakustaldia; 17:15ean, mus eta briska txapelketak; 18:00etan, Arexolatik Arriolara kalejira, eta han jolasak; 21:00etan, erromeria trikitilariekin eta parrillada.
*Arexolan.*

**LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoan**
12:00etan, euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena emateko: 943-71 47 92 edo *info@gatzmuseoa.com.*
*Gatz Museoan.*

**OÑATI Arranok 40 urte**
13:30ean, La Pulga Eta Lagunak taldea; 15:00etan, bazkaria; 19:00etan, Distopia elektrotxaranga; eta 22:00etan, DJ Elvis Caino.
*Arrano elkartean.*

**OÑATI Espeleotxiki abentura**
6 urtetik gorakoendako. Izena emateko: 943-08 20 00 edo *arrikrutz@onati.eus.*
*Arrikrutzen,15:00etan.*

**ARRASATE M&A Swing Machine taldea**
Arrasate Blues jaialdiaren baitan.
*Ezkiña tabernan, 15:00etan.*

**OÑATI Ulma-Challenge txirrindulari proba**
Kadete eta gazte mailetako emakumezkoendako.
*Ulma Handlingen, 16:00etan.*

**BERGARA Kontzertuak Gorlako kantinan**
Laino Beltzak, Burugabe, Hankaz Gora, El Volquete eta Colapso taldeak.
*Gorlako kantinan, 18:30ean.*

**ARRASATE Slideboy Vegas taldea**
Arrasate Blues jaialdiaren baitan.
*Monte tabernan, 19:00etan.*

**ARRASATE The Soul For Real taldea**
Arrasate Blues jaialdiaren baitan.
*Herriko Plazan, 20:30ean.*

**OÑATI Kantoikrit**
Emakumezkoen eta gizonezkoen sailkapenak izango ditu aurten.
*Foruen plazan, 22:00etan.*

**ARRASATE Trudy Lynn eta Steve Krase & Travellin'Brothers**
Arrasate Blues jaialdiaren baitan.
*Herriko Plazan, 22:30ean.*

## DOMEKA 16

**ELGETA Irteera Lekeitiora**
Kantsatzeke taldekoak.
*Mendizaleen plazan, 08:00etan.*

**ARETXABALETA Portasolgo jaiak**
10:30ean, azoka, ur-jolasak eta mokadutxoa; 13:00etan, paella lehiaketa; 19:00etan, dantzaldia; eta, 20:00etan, auzoko zaharrenari eta gazteenari omenaldia.
*Portasolen.*

**BERGARA Txistulari Banda**
Kalejira egingo du.
*Santa Marinan, 11:00etan.*

**ARRASATE Santa Marinako jaiak**
11:00etan, diana, puzgarriak eta apar-festa; 13:00etan, meza; 14:00etan, auzoko erretiratuendako bazkaria; 19:00etan, herri kirolak eta barbakoa; 20:00etan, boloa umeendako; eta, 20:30ean, Akusticovers taldea.
*Santa Marinan.*

**LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoan**
12:00etan, euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena emateko: 943-71 47 92 edo *info@gatzmuseoa.com*.
*Gatz Museoan.*

**ARAMAIO Santa Marina jaiak**
12:00etan, meza eta ondoren kantu saioa; eta 18:00etan, jolasak.
*Arexolan.*

**BERGARA Musika bandaren kontzertua**
Aurretik kalejira egingo dute.
*Pilotalekuan,12:30ean.*

**ARRASATE Monica Duran**
Musikari arrasatearraren emanaldia, Arrasate Blues jaialdiaren baitan.
*Ezkiña tabernan, 13:00etan.*

**ARRASATE The Spolem Girls taldea**
Arrasate Blues jaialdiaren baitan.
*Buenuena jatetxean, 19:00etan.*

## MARTITZENA 18

**ESKORIATZA 'Gaztekonkis', Elosuan**
12-16 urte arteko gaztetxoendako, hiru eguneko egonaldia. Lehenengo eguna.
*Elosun, 08:00etan.*

**ARRASATE 'Desªnuda' dantza ikuskizuna**
Maite Sarraldek dantza garaikide ikuskizuna egingo du, Udazabal ekimenaren baitan.
*Seber Altube plazan, 20:00etan.*

**BERGARA Aritzeta abesbatzaren emanaldia**
Santa Marina Eguna ospatzeko.
*Santa Marina parrokian, 20:00etan.*

**OÑATI 'Bañolet' pelikula**
Paxkal Irigoyenek eta Maia Iribarnek zuzendutako lana, Martizinema ekimenaren baitan. Ostean, sorpresa.
*Antixenean, 22:00etan.*

## EGUAZTENA 19

**BERGARA Uretako txirrista erraldoia**
Umeendako txirrista ipiniko dute.
*Arrizuriaga parkean, 16:00etan.*

**OÑATI D'capricho taldea**
Dana Moyak ahizpa Danirekin batera Kuban sortutako proiektua da. Kalean egitarauaren baitan.
*San Lorentzon, 19:00etan.*

**ARETXABALETA 'Kimera' kale antzerkia**
La Banda Teatro Circo konpainiaren eskutik. Zirkuko jolasek, gorputz-adierazpenak eta antzerkiak bat egiten duen ikuskizuna.
*Herriko Plazan, 19:00etan.*



MAITE SARRALDE

**ARRASATE 'Desªnuda' dantza ikuskizuna**
Maite Sarraldek dantza garaikide ikuskizuna egingo du, Udazabal ekimenaren baitan. Korapiloari buruzko gogoeta poetikoa egingo du, airean zintzilikatuta dagoen egitura batean.
*Uztailak 18, martitzena, Seber Altuben, 20:00etan.*

## EGUENA 20

**ESKORIATZA 'Gaztekonkis', Elosuan**
12-16 urte arteko gaztetxoendako. Azken eguna.
*Elosuan, 08:00etan.*

**BERGARA 'Txotxongilo bertsolariak' kale-antzerkia**
Antton Basteroren (txotxongilolaria) eta Felipe Zelaietaren (bertsolaria) eskutik. Euriarekin, Seminarixoan.
*San Martin plazan, 19:00etan.*

**ARRASATE Korrontzi taldea**
Udazabal ekimenaren baitan.
*Monterron parkean, 19:30ean.*

**ARETXABALETA Orei eta Añube taldeak**
Urbaltz tabernaren eskutik.
*Mitarte plazan, 19:30ean.*

## EGUBAKOITZA 21

**OÑATI Madalenako jaiak**
16:30ean, etxafuegoak; 17:00etan, bizikleta ibilaldia; eta 22:30ean, Eztan Ilen, Erne eta Kontralde taldeak.
*Santxolopeztegi auzoan.*

**ARETXABALETA Zerendepya taldea**
Aretxabaletarrek kontzertua egingo dute Urbaltz tabernak gonbidatuta.
*Mitarte plazan,19:30ean.*

**ARRASATE 'Los perros' dantza ikuskizuna**
Led Silhouettes konpainiaren eskutik, Udazabal ekimenaren baitan.
*Zaldibar frontoian, 20:00etan.*

**BERGARA Santa Ana jaiak**
20:00etan, txupinazoa eta Santanatxoren jaitsiera; 20:15ean, buruhandiak; 20:30ean eta gauerdian, Azkaiter Pelox; eta 22:30ean, Good Vibes.
*Boluan.*

**BERGARA FAMILY FOLKS taldea**
Berumuga zikloaren baitan.
*Espoloian, 22:00etan.*

## ZAPATUA 22

**BERGARA SemiCup txapelketa**
Zazpigarren aldia egingo dute.
*Seminarioko patioan, 07:00etan.*

**OÑATI 'Gatzagintzaren sekretuak' bisita gidatua**
Izena emateko: 943-78 28 94 edo *arantzazu@gipuzkoanatura.eus*.
*Parketxean, 10:30ean.*

**ARRASATE 'Arrasateko industria ondarea' bisita gidatua**
Izena emateko: *Arrasate.eus* edo 943-25 20 00.
*Biteri plazan, 11:00etan.*

**OÑATI Madalenako jaiak**
14:00etan, auzo bazkaria; 17:00etan, mus txapelketa; eta 22:30ean Laizo Beltzak eta Zopilotes Txirriaos taldeak. Jarraian, Xaukena elektrotxaranga.
*Santxolopeztegi auzoan.*

**OÑATI Espeleotxiki abentura**
6 urtetik gorakoendako. Izena emateko: 943-08 20 00 edo *arrikrutz@onati.eus*.
*Arrikrutzen,15:00etan.*

## ZINEMA

**GASTEIZ**

FLORIDA

**El primer dia de mi vida**
Egubakoitzetik domekara: 17:00. Astelehenetik eguenera: 17:30.

**El zorro**
Egubakoitza, eta astelehenetik eguenera: 17:00. Zapatua eta domeka: 11:30, 17:00.

**Indiana Jone y el dias del destino**
Egubakoitza: 16:45, 19:30, 22:00. Zapatua eta domeka: 11:30, 16.45, 19:30, 22:00. Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:00

**Las guardianas del planeta**
Zapatua eta domeka: 11:30

**Ruby: aventuras de una kraken adolescente**
Egubakoitza: 17:00. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00. Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Spiderman: cruzando el multiverso**
Zapatua eta domeka: 11:45.

**Te estoy amando locamente**
Egubakoitzetik domekara: 19:00, 21:30. Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Vacaciones de verano**
Egubakoitza: 17:00, 19.45, 22:00. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 19:45, 22:00. Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30, 19:30. Martitzena: 17:30.

**Vesper**
Egubakoitzetik domekara: 17:00. Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Mision imposible**
Egubakoitza: 16:45, 19:00, 22:00. Zapatua eta domeka: 11:30, 16:45, 19:00, 22:00. Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:00.

**Entre la higueras (jatorrizko bertsioan)**
Egubakoitzetik domekara: 19:45, 22:30. Astelehenetik eguenera: 19:45.

**Esperando a Dalí**
Egunbakoitzetik domekara: 19:45, 22:30. Astelehenetik eguenera: 19:45.

**Elemental**
Egubakoitza: 17:15, 19:30, 21:45. Zapatua eta domeka: 11:45, 17:15, 19:30.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

Zu hemen zaude.
goiena

AZKEN BERBA



ANDER ETXEBERRIA

## 129 urte

Milioika pertsonak gozatu dute mundu osoan Tourraren hasieraz. Despistaturen batek –esajeratu egingo dut apur bat– Interneten kontsultatuko zuen Bilbo non dagoen. Zergatik? Ez zituen topatuko hain kategoria altuko ekitaldian espainiar agintari nagusiak –erregea eta presidentea–. Konturatuko zen Gendarmerie-rekin batera Ertzaintza izeneko poliziaren esku egon dela segurtasuna. Eta ikusiko zuen nonahi hiru koloreko bandera. Ikurrinak egon dira –Nafarroako banderarekin batera, zenbait kasutan– milaka eta milaka herritarren eskuetan, balkoietan, zelaietan...

Behin Tourra pasatu dela, egoera itzuli da *normaltasunera*. Ikurrinak bueltatu dira armairura, hurrengo deialdira arte. Beste edozein herritan bandera nazionalak esparru propio askoz gehiago ditu. Presentzia du erakundeetan, enpresetan edo etxeko lorategian ere. Gurean, gaztetxo despistaturen batek –esajeratu egingo dut gehiago– pentsatuko du egoera bereziekin lotutako elementu folklorikoa dela. Ez zen, baina, bereziki horretarako sortu.

A, gaur bezalako egun batean ikusi zuen argia ikurrinak. 129 urte dela jarri zuten lehen aldiz balkoi batean.

BUKATZEKO

# Sanferminez gozatzeko zenbait modu aukeran

Zortzi egunen ondoren, iristear da "amaierarik gabeko" jaien bukaera. Amaitzear daude sanferminak. 'Gaixoa ni' kantuko kandelek eta zapi gorriek udaletxeko plaza hartu baino lehenago, debagoiendarrak han izan dira zeregin batzuetan

**Oier Zumarraga** ARRASATE

Parrandara joan direnez harago, badaude entzierroetan parte hartzera, lanera eta dultzainarekin kaleak girotzera joan direnak ere.

Hainbeste parranda artean, badago lanera joaten denik ere. Itxaro Zubillagak San Fermin jaien egun guztiak Iruñean igaroko ditu. Kasu horretan, entzierroak zuzenean komentatzen jarduten du ETB1 katean. Uztailaren 7tik eta 14ra arte Iruñeko biztanle bilakatu da Zubillaga. Goizean goiz esnatzen da, entzierroaren aurretiko prestaketa lanak egiteko EITBk duen *set* ibiltarian. Hain goiz esnatzeak gau giroaz gozatzea eragotzi dio, baina horren ordez bazkalosteko denbora sanferminak gertuagotik ezagutzeko baliatzen du. Esperientzia oso aberasgarria izaten ari dela aitortu du, batik bat, lan egiteko toki oso aproposa dela iritzita: "Jendea pozik egoteak dena errazten du eta aniztasun handi horrek jaiei bestelako xarma bat ematen die".



Itxaro Zubillaga, sanferminetan. GOIENA



Almortza, entzierroan. CARLOS ARANA



Arrasateko gaiteroak Iruñean. IGOR GONZALEZ

### Zezenaren aurrean lasterka

Debagoiendar mordoxka bat dira Iruñera entzierroan parte hartzera joaten direnak. Haien artean, Ander Almortza bergararra. Iaz egin zuen lehenengoz lasterka zezenaren aurrean, Estafetan barrena, baina aurten ia egunero joan da Iruñera. Oso arriskutsua dela aitortu du, ibilbidean zehar dagoen jendetza dela eta: "Bultzakada asko daude eta tentuz ibili behar da, norbaitek ez zangotrabatzeko". Horrez gain, adierazi du eskarmentu gutxiko jendea "oztopo" dela zezenaren alboan lekua bilatzeko.

Goizero zezena gertu sentitzeko ilusioarekin joaten da: Estafeta bukaeran hasi, Telefonicatik igaro eta zezen-plazara zezenekin batera sartzen saiatzen da, nahiz eta oso zaila dela onartu duen. Almortzak ez du aparteko erriturik lasterketa aurretik, baina egunero Bergarako Zezenak-en kamiseta morearekin parte hartzen du.

### Iruñeko kaleak girotuz

Edu Abarrategi arrasatearrak urte asko daramatza herriko gaiteroekin San Fermin jaietan kaleak girotzen. Aurten ez da gutxiago izan eta uztailaren 6an, txupinazoarekin batera, Iruñeko Udal Plazan izan zen gainontzeko dultzaineroekin batera. Dagoeneko ohitura bilakatu den hamaiketakoaren ondoren, plazara joaten dira, jendetza osoaren artean euren dultzaina hotsak ozen entzun daitezen. 30 urte daramatza sanferminetan dultzainero lanak egiten, eta hainbeste denboraren ondoren oraindik hunkitu egiten dela aitortu du. Egun paregabea izaten dela adierazi du: "Dultzaineroen inguruan jende irribarretsu, abesten eta saltoka ikustea bezalakorik ez dago guretzat".

MONDRA&ROLL
GOIENA TELEBISTAN
UZTAILAREN 14AN, EGUBAKOITZA, 21:15EAN ETA 23:15EAN
JAIALDIA BARRUTIK ERAKUTSIKO DIGUN ERREPORTAJEA
DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA
goiena
Zu hemen zaude.

